



Gaitasun
digitaletan
prestakuntza

2

Komunikazioa eta elkarlana





Gaitasun
digitaletan
prestakuntza



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila





AURKIBIDEA

2.1. TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZ ELKARRI ERAGITEA

- [Podcasta](#)
- [Hezkuntzan, osasunean eta bezeroaren arretarako zentroetan erabilitako txatbot-en adibideak](#)
- [VoIP](#)

2.2. TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZ PARTEKATZEA

- [Fitxategiak partekatzen Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin](#)
- [Berehalako mezularitza-aplikazioetan edukia partekatzen](#)

2.3. TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZKO HERRITARREN PARTAIDETZA

- [Sare neuronalak](#)
- [Herritar-karpeta](#)

2.4. TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZKO LANKIDETZA

- [Bertsioen kontrola](#)
- [Tresna bisual kolaboratiboak erabiltzen II](#)
- [Sareko plangintza-tresnak erabiltzen: Planner, Trello, Doodle eta Monday](#)

2.5. SAREKO JOKABIDEA

- [Berehalako mezularitza-aplikazioetako netiketa](#)

2.6. IDENTITATE DIGITALAREN KUDEAKETA

- [Gailu mugikorretan aztarna digitala konfiguratzeko](#)
- [Ordenagailu pertsonaletan aztarna digitala konfiguratzeko](#)





DigitAll

Komunikazioa eta
elkarlana

2.1

TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZ ELKARRI ERAGITEA





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.1 Teknologia digitalen
bidez elkarri eragitea

Podcasta





Podcasta

Podcast-en gaurkotasuna

Azken urteotan, nabarmen handitu da Interneterako sarbidea gailu eramangarrietatik, hala nola mugikorretatik edo tabletetatik, besteak beste, eta bi kontzeptu estu lotu ditu:

Internet eta mugikortasuna.

Harreman horrekin lotutako beste kontzeptu bat audioa da; izan ere, **gailu eramangarri horietatik Internetera sartzeko helburuen artean soinu-edukiaren kontsumoa dago**. Lotura triangeluar horrek, eta haren bilakaerak, **podcastinga** agertzea eragin du, eta, ondorioz, **podcastak hainbat plataforma eta gailutatik kontsumitzea**.

Egoera horren eta **Interneten multimedia-edukiak sortzeko eta argitaratzeko erraztasunaren** ondorioz, **gero eta podcast gehiago sortu dira urtetik urtera**. 2020an erregistratu zen podcast berrien kopururik handiena, milioi bat baino gehiago ere bai, baina, une horretatik aurrera, podcasten urteko sorkuntzak behera egin du, eta 2022an 250.000 baino gutxiago izan ziren. Hala eta guztiz ere, industriaren datuen arabera, **mundu osoan, 3.200 milioi podcast baino gehiago daude**.

Jarraian, podcastek gaur egun dituzten erabilera eta gai nagusiei buruz hitz egingo da. Gainera, kontuan hartu beharreko aholku edo estrategia batzuk aztertuko dira, podcast bat egitean ahalik eta arrakasta handiena lortzeko.



OHARRA

Podcastetan nagusi diren herrialdeak eta hizkuntzak

Podcast kopuru osoaren % 65 inguru Ameriketako Estatu Batuetakoa da; beraz, gaur egungo podcast gehienak ingelesez daude (% 60,6). Espainiaren kasuan, bertako podcastak munduko guztizkoaren % 1,5 baino ez dira; aldiz, espainierazko podcastak % 11 inguru dira.

Podcast-estatistikak: zenbat podcast daude? (listennotes.com/podcast-stats)



NOLA AURKITU ETA JARRAITU ZURE PODCAST GOGOKOENA

Bideo honetan, podcast-aplikazioak konfiguratzeko eta podcastak bilatzeko eta jarraitzeko segitu beharreko urratsak erakusten dira, pertsonen interesen arabera.

e.digitall.org.es/A2C21C1V02



Podcasten erabilera eta gai nagusiak

Lehen ikusi den bezala, podcasten sorkuntza eta kontsumoa areagotu egin da azken urteotan, eta, beraz, zaila da eduki horren erabilera eta gaiak mugatzea. Hala ere, zenbait helburu eta gaiak beste komunikabide batzuetatik bereizten dituzte podcastak, eta horiek aztertuko dira ondoren.

Podcasten erabilerak

Etengabe sortzen ari dira podcasten erabilera eta aplikazio berriak, hedatzen ari dira eta. Hala ere, badira nabarmentzen diren zenbait erabilera, beste komunikabide tradizionalago batzuekin alderatuta podcasta komunikabide berezitu eta berritzaile ere bihurtzen dutenak.



PODCASTEN ERABILERAK


Podcasten erabilera nagusiak	Deskribapena
Informazio-programak	Informazio-podcasten helburu nagusia hainbat gairi buruzko berriak eta gaur egungo informazioa ematea da, bai modu orokorrean, bai kolektibo zehatz bati zuzenduta modu espezifikoagoan . Eremu honetako podcasten aplikazioetako bat herritar itsuei albisteak eta informazioa eskuratzeko aukera ematea da, audio bidez erreproduzitzen baitute idatzizko informazioa.
Hezkuntza	Bi aplikazio nagusi bereizten dira: <ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate batzuek (ikasleek eduki horiek eskuratu eta deskargatu ahal izan ditzaten) argitaratzen dituzten klaseak eta mintegiak zabaltzea. Batez ere urrutiko hezkuntzan aritzen diren unibertsitateetan erabiltzen da. • Podcastak tresna pedagogiko gisa, ikasleen komunikazio-gaitasuna hobetzen baitu horrek, besteak beste.
Kultura eta entretenimendua	Nabarmentzekoak dira literatura-, musika- edo zinema -arloko gaurkotasanari eskainitako podcastak, bai eta podcastak kultura-zentroen jarduerari buruzko informazioa emateko modu edo audiogida gisa erabiltzea ere.

1. irudia. "Podcasten erabilera nagusiak". Geuk egina.



Podcasten gaiak

Gaur egun, podcasten aplikazio nagusiekin gertatzen den bezala, gai edo genero ugari argitaratzen dira. Gai horiek modu desberdinean banatzen dira podcast guztien artean, 2. irudian ikus daitekeen bezala.



2. irudia. "Podcastak generoaren arabera". Geuk egina, *Listen Notes* erabiltuta (listennotes.com/podcast-stats).

Musika

Podcast gehienak gai horri buruzkoak ez diren arren, edo podcast gehienetan gai nagusia hori ez den arren, **podcast-plataforma gehienetan dago**. Ildo horretan, hainbat musikariren podcastak daude, eta beraiek beren lanak partekatzen dituzte bitarteko horren bidez. Gainera, musika-informazioan eta artistekiko elkarrizketan espezializatutako kanalak daude, baita musika-ekitaldi zehatzetarako espazioak ere, besteak beste.

OHARRA

Musikarekin zeharka lotutako podcastak

Hainbat gairi buruzko podcast askok egileen musika-piezak erabiltzen dituzte edukiaren osagarri gisa. Podcast horiek egileei buruzko informazioa ematen dute, entzuleei musikarako sarbidea errazteko.




Entretanimendua

Gai zehatz gisa kontuan hartu ezin bada ere, **podcast-plataforma gehienetan agertzen da**, askotariko gaiak sartzen baitira entretanimenduaren barruan. Alde horretatik, **komedia, zinema eta telebista** nabarmentzen dira. Podcastek autonomia, askatasun edo espezializatzeko gaitasun handiagoa ematen diete igorleei, bai landu beharreko edukiei dagokienez, bai hori egiteko moduari dagokionez, eta horregatik daude hain zabalduta lehen aipatutako gai horiek.

Teknologia

Gai horren inguruan sortu ziren, hain zuzen, podcastak eta, nahiz eta gaur egun pisua galdu duen komunikabide horren gaien multzoaren dibertsifikazioagatik, oraindik ere agertzen da podcast-plataforma gehienetan.



OHARRA

Teknologiari buruzko podcast nagusiak

Eremu horretan, **gailu eta sistema eragileei buruzko iritzia eta informazioa** emateko podcastak nabarmentzen dira. Bereziki Apple eta Linuxen erabiltzaileak nabarmentzen dira, produktu espezifikoiei edo gai tekniko espezializatuei buruzko beste podcast batzuk daudela ahaztu gabe.

Espiritualtasuna

Gai hori bi alderdi nagusirengatik nabarmentzen da. Lehenik eta behin, **podcasten unibertsoaren barruan duen ospeagatik** nabarmentzen da, baina are garrantzitsuagoa da gai horri buruzko podcastek zer garrantzi handia hartu duten, kontuan hartuta erlijioari eta espiritualtasunari buruzko edukiek ez dutela presentzia handiegirik izaten komunikabide tradizionaletan. Hala ere, kulturalki hain askotarikoa den gizarte-egoera batean, beste erlijio batzuk eta espiritualtasuna bizitzeko beste modu batzuk ezagutzeko aukera ematen dute. Horrela, gai espiritualen inguruko podcastek **erlijioei buruzko informazioa, filosofia, meditazioa eta hazkunde pertsonala** lantzen dituzte.



Negozioak

Enpresekin eta negozioekin lotutako gaiak ere presentzia handia dute podcasten munduan, eta bi erabilera nagusi nabarmentzen dira.

- 1 | Lehenik eta behin, analisi- eta informazio-elementu gisako podcastak daude, eta horietan ekonomiari buruzko gaurkotasuneko gaiak aipatzen dira.
- 2 | Negozio-podcasten beste erabilera nagusi bat marketina eta komunikazio korporatiboa da. Horien bidez, enpresek marka-irudia hobetzea, bezeroei zerbitzu berri bat ematea edo hainbat proiektu sustatzea lortu nahi dute.

Kirolak

Kirol-gaiak ere toki nabarmena dute podcastetan; izan ere, beste gai batzuekin gertatzen den bezala, **plataforma gehienetan agertzen dira, nahiz eta podcastak sortzen direnean ez den gai hedatuenetako bat izaten**. Eremu horretan, **kirol ez hain konbentzionalei** edo komunikabide tradizionaletan presentzia txikiagoa dutenei eskainitako podcastak zein **kirol ezagunagoei** buruzkoak izaten dira.


i Gehiago jakiteko


Podcasten erabilera eta gai nagusiei buruzko informazio gehiago lor daiteke honako iturri hauen bitartez:

- **Podcast-estatistikak: zenbat podcast daude?** (listennotes.com/podcast-stats/#hosting)
- **La Comunicación Pública en Iberoamérica I.pdf (us.es)** (e.digitall.org.es/iberoamerica)
- Sellas, T. (2011). *El podcasting: la (r)evolución sonora*. UOC argitaletxea.

Podcastak arrakastaz erabiltzea

Aurreko ataletan ikusi den bezala, gaur egun podcast ugari daude eta, ondorioz, gai ugari. Horregatik, arrakasta izango duen edo berritzailea izango den podcast bat sortzea erronka bihur daiteke. Horregatik, podcast bat argitaratuz gero arrakasta izateko kontuan hartu beharreko zenbait estrategia azalduko ditugu jarraian, sorkuntza-prozesuaren faseen arabera ordenatuta (3. irudia).





3. irudia. "Podcastak arrakastaz erabiltzeko estrategiak". Geuk egina

1| Xede-taldea definitzea

Xede-taldea podcastaren funtsezko elementua da, edukia jasoko duen audientzia baita. Horregatik, oso garrantzitsua da jakitea zer gai interesatzen zaizkion eta, beraz, zer eduki entzun nahi dituen.

2| Norberari entzutea gustatuko litzaiokeen edukia sortzea

Norberaren intereseko gai bat aukeratu beharra dago, gogo biziari eustea eta ikus-entzuleak harrapatuta edukitzea erraztuko baitu horrek.

OHARRA

Podcastean landuko diren gaiak erabakitzeko orduan, zenbait galdera planteatu daitezke, hala nola zer gai lizurutzen duen norbera, zer gai landu daitezkeen aditu moduan edo zer gai interesatzen zaizkion xede-taldeari.

Gaia erabaki ondoren, garrantzitsua da **kapitulu bakoitzerako jarraitu beharreko gidoi bat ezartzea, bai eta podcasta hainbat ataletan banatzea ere**, informazioa modu sekuentziatuagoan eskuratu ahal izateko.



3 | Iraupena ituntzea

Beharrezkoa da **podcast bakoitzerako iraupen jakin bat ezartzea eta ahalik eta gehien mugatzea horretara.**

Izan ere, podcastaren entzuleek denbora jakin bat gorde dute podcastari eskaintzeko. Horregatik, iraupen oso desberdineko edukiak argitaratzeak entzuleek kontsumo leialik ez izatea eragin dezake.

4 | Berezia egitea

Titulua, estetika edo deskribapena dira publikoak podcasta entzun aurretik izango dituen elementuetako batzuk, eta, beraz, elementu horiek **erakargarriak, identifikatzeko modukoak eta deigarriak** izan behar dute. Gainera, audioak bereizita kontsumitu ahal izango direnez, komeni da **sarrera bat eta itxiera bat egitea kapitulu bakoitzean.**

5 | Formatua erabakitzea eta grabazio-tresnak bilatzea

Podcasta grabatu aurretik, programarako **formatu egokia** ezarri behar da, bai eta **sorkuntza-prozesua planifikatu** ere, lasai lan egin ahal izateko. Prozesua planifikatu ondoren, hurrengo urratsa **material eta giro** egokiak bilatzea da, grabazioaren soinua egokia izatea bermatzeko.



⚠ ADI!

JARRI ARRETA GRABAZIO-GIROAN ETA -MATERIALETAN

Podcasta **giro islean** grabatzeko ahalegina egin behar da; izan ere, kanpoko zaratek, intentsitatearen arabera, edizio-prozesua zaildu dezakete, zaila baita interferentzia horiek ezabatzea materiala kaltetu gabe. Gainera, podcast bat sortzeko prozesuak tresna gutxi behar ditu, eta, beraz, **material egokietan** inbertitu daiteke, kantitate txikia behar baita.

Podcast arrakastatsu bat sortzeko 8 aholku- iVoox Blog (e.digital1.org.es/ivoox)



6 | Podcasta editatzea

Grabazioan zehar gertatutako alferrikako edo okerreko uneak ezabatzeko aprobetxa daiteke edizio-prozesua. Gainera, musika ere gehitu daiteke, podcastaren gaiarekin lotutako testuinguru bat sortzeko eta hura arinagoa egiteko.

7 | Lehen kapitulua argitaratzea

Aurreko guztia egin ondoren, podcasta prest egongo da hautatutako plataforman argitaratzeko. Horretarako, edukia argitaratzeko agenda baten plangintza kontuan hartu behar da.

OHARRA

Plangintza bat ezartzerakoan errealista izan beharra dago, denboran mantendu ahal izateko eta hasi bezain pronto aldatu behar ez izateko. Horretarako, honako alderdi hauek aintzat hartu behar dira:

- Sorkuntza-prozesuari eskaini dakioken denbora.
- Entzuleek zenbat denbora izan dezaketen eta zer podcast entzun nahi izango dituzten astero.
- Eduki berriak argitaratzeko eskuragarri izango den informazio kopurua.

Aurrekoaz gain, argitaratuko den edukia sustatu ere egin behar da, entzule gehiagorengana iristeko sare sozialen bidez edo, lortu nahi den publikoaren arabera, egokia den beste edozein bitartekoren bidez.

Amaitzeko, aipatu behar da podcast **arrakastatsu** bat sortzeak lotura estua duela **gaurkotasunarekin, originaltasunarekin eta berrikuntzarekin**. Horregatik, aipatutako elementuei arreta berezia eskainiz gero, podcastarekin arrakasta izateko aukera areagotu daiteke, bai eta hura sortzeko prozesua erraztu ere.

Gehiago jakiteko

Honako iturri hauen bidez, podcast bat sortzeko kontuan hartu beharreko zenbait estrategiari buruzko informazio zehatzagoa lor daiteke:

- **Podcast arrakastatsu bat sortzeko 8 aholku- iVoox Blog** (e.digitall.org.es/ivoox)
- Cochrane, T. (2005). **Podcasta: Zuk zeuk egiteko gida** (e.digitall.org.es/do-it-yourself). Wiley Publishing.





Gehiago jakiteko

Cochrane, T. (2005). *Podcasta: Zuk zeuk egiteko gida*. Wiley Publishing. 2023ko urriaren 18an hemendik hartua: <https://vdoc.pub/download/podcasting-do-it-yourself-guide-soacmcal800>

iVoox (2021, uztaila). *Podcast arrakastatsu bat sortzeko 8 aholku*. 2023ko urriaren 18an hemendik hartua: <https://www.ivoox.com/blog/8-consejos-para-crear-un-podcast-de-exito/>

Listen Notes (2023, urria). *Podcast-estatistikak: zenbat podcast daude?* 2023ko urriaren 18an hemendik hartua: <https://www.listennotes.com/podcast-stats/#hosting>

Sellas, T. (2011). *El podcasting: la (r)evolución sonora*. UOC argitaletxea. 2023ko urriaren 18an hemendik hartua: <https://www.torrossa.com/gs/resourceProxy?an=2513917&publisher=FZW977>

Velasco, A. F. (2020). *Podcastingaren ekonomiak, erabileren eta aplikazioen azterketatik abiatuta*. 2023ko urriaren 18an hemendik hartua: <https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/102509/La%20Comunicaci%C3%B3n%20P%C3%BAblica%20en%20Iberoam%C3%A9rica%20I.pdf?sequence=1&isAllowed=y>



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.1 Teknologia digitalen
bidez elkarri eragitea

**Hezkuntzan,
osasunean eta
bezeroaren
arretarako
zentroetan
erabilitako
txatbot-en
adibideak**





Hezkuntzan, osasunean eta bezeroaren arretarako zentroetan erabilitako txatboten adibideak

Txatboten aplikazioak

Gaur egungo aro digitalean, txatbotak egunerokotasunaren hainbat alderditan infiltratutako tresna multifazetiko gisa sortu dira. Erabilera horiek hain dira askotarikoak, ezen hainbat **eremutan** identifika daitezkeen txatbot-erabiltzaileak, hala nola **bezeroarentzako arretan, osasunean edo hezkuntzan**. Aplikazio horien heterogeneotasunak erakusten du txatbotek moldakortasuna eta gaitasuna dutela prozesuak optimizatzeko, zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileei hainbat testuingurutan esperientzia arinagoa eta gogobetegarriagoa emateko.

Jarraian, honako hau aztertuko da: aplikazio horiek nola **eraldatu** duten erabiltzaileek **informazioarekin eta zerbitzuekin jarduteko** duten modua, **bezeroarentzako arretaren, osasunaren eta hezkuntzaren eremuetan**.



TXATBOTETIKO ELKARRERAGINAK

Bideo tutoriala, txatbotetikoko elkarreragin-kasu errealak erakusten dituena eta erabiltzaileari erantzun egokiak lortzeko "truko eta aholku" batzuk eskaintzen dizkiona.

e.digitall.org.es/A2C21B1V07

Merkataritza-erabilerak

Bezeroaren arretaren eremuan, txatbotek **eraginkortasun- eta efikazia-estandarrek birdefinitu dituzte**. Iraultza hori, neurri batean behintzat, aplikazio horien hiru ezaugarri zor zaie:

- Ia berehala **erantzuten diete** erabiltzaileen **kontsultei**.
- **24 orduz egunean**, asteko 7 egunetan eskuragarri daude.
- Elkarreragin bakoitzaren ondoren, **informazio berria** biltzen dute, eta horrek erabiltzaileei ulertzeko gaitasuna **hobetzen du**.

OHARRA

LAURA: SKODAKO MERKATARITZA-LAGUNTZAILEA

LAURA leiho berri gisa agertzen da, bezeroa automobil-enpresaren webgunean nabigatzen hasten denean. Harekiko elkarreraginean, hainbat ekintza egin daitezke, hala nola ibilgailu elektrikoei buruzko informazioa lortu edo eskaintza bat eskatu. Azken kasu horretan, laguntzaile birtualak tokiko kontzesionario batekin jartzen du harremanetan erabiltzailea, merkataritza-agente batek jarrai dezan salmenta-prozesuarekin.

Škoda (skoda.es)



Txatboten bidez baliabideak optimizatzeko zenbait enpresaren grinaren ondorioz, **giza osagaia funtsezkoa den eremuetan** erabiltzen ari dira tresna horiek. Horri dagokionez, adibide deigarrienetako bat **aholkularitza juridikoa eta legala** eskaintzen duten txatbotak dira. Zerbitzu horiek, ordea, **interpretazioa edo enpatia** bezalako gaitasun pertsonalik behar ez duten kasuetara mugatuta dago.

i Gehiago jakiteko

Negozioetarako AAKo Txatboten 2022ko Topa: onurak eta plataformetan integratzea. (e.digitall.org.es/best-chatbots) Insider Intelligence, 2022.

Abokatu digital bat edo ziberjurista bat? Txatbotak lege-sektorean: Dilematik errealitatera (e.digitall.org.es/abogado-digital). (artikulu zientifikoa) Revista Iberoamericana de Derecho Informático, 2021.



Osasunaren eremuko erabilera

"Funtsean humanotzat" jotzen diren beste eremuetako bat non txatbotak espazioa irabazten ari diren osasuna da. Berriz ere aitortu daiteke prozesu jakin batzuen automatizazioak arindu egiten duela **osasun-arloko profesionalen lan-karga**, eta espazioak irekitzen dituela beste jarduera batzuk egiteko, hala nola ikerketa edo pazientearen arreta.

Txatbot horien aplikazio-eremu ohikoenak **osasun mentala, COVID-19aren pandemiaren kudeaketa, tratamendurako laguntza eta osasunaren sustapena** dira. Eraginkortasunari dagokionez, tresna horiek osasunean eragin positiboa dutela berresten duten ebidentziak daude. Horri dagokionez, jarduera osasungarriak sustatzen dituzten txatbotak bereziki onuragarriak direla dirudi.

OHARRA

MAX: HAUREN ASMAREN AURKAKO ALIATUA

Suitzako ikertzaile talde batek garatutako txatbota da MAX, eta hiru helburu ditu: (1) pazienteen, senideen eta osasun-arloko profesionalen arteko komunikazioa hobetzea; (2) oztopo fisikorik gabeko laguntza eskaintzea, eta (3) esperientzia-ikaskuntzan oinarritutako esku-hartzea gidatzea. Proiektu horren arrakastak atea ireki die txatboten osasun-arloko ezin konta ahala aplikazioei.

Solasaldi-eragileak, gizarte-eragile bitartekari gisa, gaixotasun kronikoen kudeaketan, osasun-arloko profesionalak, pazienteak eta senideak barne hartzen dituenean (e.digitall.org.es/agente-dialosacional) (artikulu zientifikoa) Journal of Medical Internet Research, 2021.



Gehiago jakiteko

Txatboten garapena eta erabilera osasun publikoan: berrikuspena. (e.digitall.org.es/chatbot-salud) (artikulu zientifikoa). Journal of Medical Internet Research, Human Factors, 2022.



Txatbotak hezkuntzan

Eta zer gertatzen da txatboten erabiltzaileak apendizak direnean? Hezkuntza-eremuan txatbotak erabiltzea polemikaz eta ilusioz inguratuta egon da pareko neurrian. Arloko adituen kezka nagusien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Informazioaren **baliozkotasunik eza**
- Tresna horien gehiegizko erabilerarekin lotutako **narriadura kognitiboa**
- **Datuen pribatutasunarekin** lotutako alderdiak.

Hezkuntzan, txatboten erabilera polemika ugariz inguratuta egon da, baina baita haren aukerak aztertzeke ilusioz ere.

Hala ere, errezelo horiek gainditu egin dira txatbotak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aplikatuta **arrakasta** izan duten **proiektuen** bidez. Ahalegin horiek **bi kategoría handitan** bil daitezke:

- **Edukien transmisioan** zentratutakoak. Kategoría honetako jardunbide egokien adibide batzuen artean daude Betty, natura-zientziak irakasteko txatbota, eta Lucy, matematika ikasteko aplikazioa.
- **Ikasteko trebetasunak** sustatu nahi dituztenak.

OHARRA

EDUguia: TXATBOT BEREZIA

Proiektuen azken kategoría horren barruan, nabarmentzekoa da EDUguia txatbota. Aplikazio hori Espainiako ikertzaileek garatu dute, eta ikaskuntzaren autoerregulazioa erraztu nahi du, ikasleei jarraitu beharreko urratsen gida bat emanez. Aurrerapen handia da hezkuntza-arloan, eta tresna horien garrantzia indartzen du.

Txatbotak hezkuntzan: Gaur egungo joerak eta etorkizuneko erronkak. (e.digitall.org.es/chatbot-educacion) (Liburua) Universitat de Barcelona, 2023.



i Gehiago jakiteko

IKTak Hezkuntzan txertatzea Adimen Hedatuaren ikuspegitik. (e.digitall.org.es/tic-educacion) (Konferentzia). Hezkuntza Ikerkuntzako Diziplina Anitzeko Nazioarteko VIII. Biltzarra 2019.

Zer egin behar dugu ikasgelan ChatGPTrekin: Debekatu, indargabetu edo kritikoki txertatu? (e.digitall.org.es/chatgpt-aula) The Conversation, 2023.

Txatbotak efizientziaz erabiltzeko tip-ak

Txatbotak **informazioa partekatzeko eta izapideak egiteko** tresnak dira, gero eta gehiago erabiltzen direnak. Txatbotak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua nabarmen handitzeaz gain, teknologia horren aplikazio-**eremuak hazten** ari dira egunegun.

Askotariko erabilera horien ondorioz aplikazioen itxura alda daitekeen arren, ia guztiek **antzeko funtzionamendu-sekuentzia** partekatzen dute: erabiltzailearen eskaera zatitan banatzea, gako-hitzak identifikatzea eta datu-basean erantzunik egokiena bilatzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, funtsezko estrategiak aztertu behar dira, aplikazio horiei ahalik eta **probetxurik handiena** ateratzeko. Estrategia horiek, era berean, **txatbot gehienei aplikatu ahal izango** zaizkie, antzekotasunak dituzte-eta funtzionamenduan.

Aurretik: mintzaldi arina eta testuingurua

Txatboten teknologia makinen eta pertsonen arteko elkarreraginean oinarritzen den arren, aplikazio horien erabiltzaileek positiboki baloratzen dute oraindik ere emozio-eta adierazmen-osagaia. Elkarreraginak azaleko mintzaldi labur batekin hasteak erabiltzailearen esperientzia hobea erraztuko du, honako hauen bidez:

- **"Giza ukitu" bat**, lotura-sentimendu baten bidez etorkizuneko elkarreraginen oinarriak ezartzen dituena.
- **Enpatia eta konfiantza**, pertsonarengan lasaitasun-pertzepzioak sustatzen dituena (batez ere, larrialdi-egoeretan).
- **Konexio-sentimendu bat**, txatbotaren erantzun pertsonalatuagoetatik abiatzen dena (erabiltzailea "ezagutu" ahala).




TXATBOTTEKIKO ELKARRERAGINAK

e.digitall.org.es/A2C21B1V07





Solasaldiaren testuingurua definitzea da praktika gomendagarrienetako beste bat; txatbotetikiko elkarreraginen eraginkortasuna areagotzeko, alegia. Hau da, eskaera eragin duen edo erantzuna erabiliko den **egoera partikularren berri ematea** aplikazioari.



1. irudia. Txatbotetikiko elkarreraginetan testuingurua definitzeko paragrafoaren adibidea. Geuk egina.

Testuinguru hori definitzeko orduan erabiltzailea gidatu dezaketen galdera batzuk honako hauek dira: nori zuzendutako mezua da?, zerk eragin du?, zein efektu izatea espero da?, zer tonutan egon behar du idatzita erantzunak? (ikus 1. irudia).

i Gehiago jakiteko

Solasaldi arinek nola hobetzen duten txatbotetikiko esperientzia. (e.digitall.org.es/smaltalk-chatbot) Enterprise Bot, 2022.

Solasaldi arinak eta hezkuntza-testuinguruetakoko txatboten epe luzerako erabilera. (e.digitall.org.es/chatbot-educativo) Conversations, 2019.

Pertsonen eta txatboten arteko elkarreraginen giza alderdia: berrikuspen sistematikoa. (e.digitall.org.es/chatbot-humano) International Journal of Human-Computer Studies, 2021.



Bitartean: eskaera eraginkorren hiru ezaugarri

Txatbot bati beste eskaera bat egiteko orduan, erabiltzaileak kontuan izan behar du aplikazioaren datu-basean **bilaketa-prozesu bat gidatuko duen jarraibide-multzo** bat dela hura.

OHARRA

DENAK EZ DIRA BERDINAK

Idatzita dagoen moduaren arabera, eskaera batek erantzun mota desberdinak eragin ditzake. Hauek dira eskaera mota ohikoenak:

- **Galderak:** "Zein da Belgikako hiriburua?"
- **Osatzeko:** "Honako hauek dira Erromatar Inperioaren ezaugarri nagusiak..."
- **Istorioetakoa:** "Idatzi istorio bat honi buruz..."
- **Elkarrizketakoa:** "Idatzi elkarrizketa bat hauen artean..."
- **Sortzaileak:** "Idatzi poema bat honi buruz..."

Nola idatzi eskaera hobek ChatGPTrentzat. (webgunea) Great AI Prompts, 2023.

Ondo diseinatutako eskaera batek **erantzun informatiboak eta garrantzitsuak** sor ditzake, eta gaizki eraikitakoak, berriz, **garrantzirik gabeko** edo zentzurik gabeko emaitzak eragin ditzake.

	Gaizki diseinatua	Ondo diseinatua
Argiak eta laburrak	Konta iezadazu zerbait Galiziako faunari buruz	Egin Galiziako faunari buruzko entsegu labur bat.
Adibideak ematen dituzte	Sortu Galiziako faunari buruzko testu labur bat	Sortu Galiziako faunari buruzko testu labur bat, argitalpen hau erreferentziatzat hartuta: [web helbidea].
Gako-terminoak eta -xehetasunak	Prestatu idatzi labur bat Galiziako faunari buruz	Prestatu idatzi labur bat Galiziako (Espainia) faunari buruz, animalia belarjaleei arreta jarritz.

1. taula. Zuzen eta oker diseinatutako eskaeren adibideak.

"Ondo diseinatua" kontzeptua anbigua eta ez oso espezifikoa izan badaiteke ere, baliteke adituek "eskaera ona" deritzotenaren ezaugarriak kondentsatzea. Sintesi-prozesu horrek hiru ezaugarri hauek ditu (1. taula):

- 1 | Argiak eta zehatzak dira:** beharrezkoak ez diren zailtasunak edo definizio falta saihesten dituzte.
- 2 | Espero den erantzun motaren adibideak dituzte,** eta horri esker, txatbotak uler dezake erabiltzailea zer bilatzen ari den.



3 | Gako-terminoak eta -xehetasunak dituzte,

aplikazioaren arreta erabiltzaileak garrantzitsuentzat jotzen dituen alderdietara bideratzen dutenak.

i Gehiago jakiteko

Nola idatzi ChatGPTrentzako prompt onenak? (e.digitall.org.es/prompt-chatgpt) IEBS, 2023.

Nola idatzi eskaera bikainak zure Txatbot GPTrentzat. (e.digitall.org.es/peticiones-chatgpt) Landbot, 2023.

AA sortzailearentzako eskaera-ingeniaritza: mundu algoritmikoaren jeinuari xuxurlatzeko artea. (e.digitall.org.es/ia-generativa) (artikulua zientifikoa) Asian Journal of Distance Education, 2023.



Ondoren: zabaldu, laburbildu eta formatua eman


Erabiltzaileak txatbotaren lehen erantzuna jaso ondoren, **bere beharretara egokitze** aukera planteatzen zaio. Aldaketa ohikoenen artean honako hauek daude: informazioa **zabaltzea** edo **laburbiltzea**, beste gai edo jakintza-arlo batzuekin **lotzea** edota **formatu**-aldaketak aplikatzea. Horrelako elkarreraginak egituratzeko interesak komunikazio-estrategiak definitzea ekarri du. Erabilienetako bi hauek dira:

- **Jarraibideak metatzea**, hau da, zeregin konplexu bat azpizeregin errazetan banatzea. Erabiltzaileak nahi badu txatbotak argitalpen zabal baten laburpen dinamiko eta erakargarria egin dezan, emaitza hobekia lortuko ditu, baldin eta, lehenik eta behin, aplikazioari laburpen bat egiteko eskatzen badio eta, ondoren, hura aldatzeko eskatzen badio, erakargarria izan dadin.
- **Matrizearen metodoa**. Gai bati buruzko informazioa eskatzean eta, ondoren, beste jakintza-arlo batekin nola erlazionatzen den galdetzean datza. Erabiltzaileak, adibidez, informazioa eska dezake klima-aldaketak Galiziako orografian duen eraginaz eta horrek faunaren elikadura-aldaketekin duen loturaz.

Aplikazioaren pertsonalizazio hori harago ere joan daiteke, baldin eta, adibidez, erabiltzaileak **rol espezifiko** bat hartzeko ("Marketin-espezialista gisa jardun ezazu") edo **jarrera aktiboa** izateko eskatzen badio ("Esan zer gehiago behar duzun").



Laburbilduz, txatbotetikiko elkarreraginek **malgutasuna** eta erabiltzailearen eskaeretara **egokitzeko** gaitasuna dituzte ezaugarri. Hala ere, "**ondo diseinatutako**" eskaerak **aurkeztu** behar dira tresna horiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko (ikus 2. irudia).



2. irudia. Txatbotetikiko elkarreraginetan, aurretik, bitartean eta ondoren kontuan hartu beharreko alderdiak

Gehiago jakiteko

Goi-mailako hezkuntzarako eta garapen profesionalerako ChatGPT: solasaldirako AArentzako gida bat. (e.digitall.org.es/chatgpt-educacion-superior) (Liburua) The University of Rhode Island, 2023.

Lor ezazu ChatGPTren onena jarraibide hauekin. (e.digitall.org.es/instrucciones-chatgpt) The New York Times, 2023.



Gehiago jakiteko

Phaneuf, A. (2022). *Negoioetarako AAKo Txatboten 2022ko Topa: onurak eta plataformetan integratzea*. Insider Intelligence. 2023/10/05ean hartua: Enpresentzako txatbot onenak gehi onurak eta plataformak 2022an (<https://www.insiderintelligence.com/insights/best-ai-chatbots-online-robot-chat/>)

García-Peña, J.H. (2022). Abokatu digital bat edo ziberjurista bat? Txatbotak lege-sektorean: dilematik errealitatera. *Revisa Iberoamericana de Derecho Informática*, 11, 67-84.

Kowatsch, T., Schachner, T., Harperink, S., Barata, F., Dittler, U., Xiao, G., Stranger, C., Wangenheim, F., Fleisch, E., Oswald, H. eta Moller, A. (2021). Solasaldi-eragileak, gizarte-eragile bitartekari gisa, gaixotasun kronikoen kudeaketan, osasun-arloko profesionalak, pazienteak eta senideak barne hartzen dituen. *Journal of Medical Internet Research*, 23(2), e25060. Doi: 10.2196/25060

Wilson, L. eta Marasoiu, M. (2022). Txatboten garapena eta erabilera osasun publikoan: berrikuspena. *Journal of Medical Internet Research, Human Factors*, 9(4), e35882. Doi: 10.2196/35882

Fernandez-Ferrer, M. (2023). *Txatbotak hezkuntzan: gaur egungo joerak eta etorkizuneko erronkak*. Learning, Media & Social Interactions.

De Aldama, C. (2019ko uztailaren 4a eta 5a). *IKTak hezkuntzan txertatzea Adimen Hedatuaren ikuspegitik*. Hezkuntza Ikerkuntzako Diziplina Anitzeko Nazioarteko VIII. Biltzarra. Lleida, Espainia.

De Aldama, C. (2023) *Zer egin behar dugu ChatGPTrekin? Debekatu, indargabetu edo kritikoki txertatu?* The Conversation. 2023/10/05ean hartua: <https://theconversation.com/que-hacemos-con-chatgpt-en-el-aula-prohibir-contrarrestar-o-incorporarlo-criticamente-197918>

Menon, N. (2022). Solasaldi arinek nola hobetzen duten txatbotetikiko esperientzia. *Enterprise Bot*. 2023/10/05ean hartua: <https://www.enterprisebot.ai/blog/how-small-talk-enhances-the-chatbot-experience>

Hobert, S. eta Berens, F. (2019ko azaroaren 19a eta 20a). *Solasaldi arinak eta hezkuntza-testuinguruetakoa txatboten epe luzerako erabilera*. Conversations. Amsterdam, Holanda.

Rapp, A., Curti, L. eta Boldi, A. (2021). Pertsonen eta txatboten arteko elkarreraginaren giza alderdia: berrikuspen sistematikoa. *International Journal of Human-Computer Studies*, 151, 102630. Doi: 10.1016/j.ijhcs.2021.102630

Kapoor, M. (2023). *Nola idatzi eskaera hobeak ChatGPTrentzat*. Great AI Prompts. 2023/10/05ean hartua: <https://www.greataiprompts.com/chat-gpt/how-to-write-better-chat-gpt-or-gpt-prompts/>

Atlas, S. (2023). *Goi-mailako hezkuntzarako eta garapen profesionalerako ChatGPT: solasaldirako AArentzako gida bat*. The University of Rhode Island.

Chen, B.X. (2023). *Lor ezazu ChatGPTren onena jarraibide hauekin*. The



Gehiago jakiteko

New York. 2023/10/05ean hartua: <https://www.nytimes.com/es/2023/06/05/espanol/mejores-prompts-ia.html>

Ramirez, L. (2023). Nola idatzi ChatGPTrentzako prompt onenak? IEBS Business School. 2023/10/05ean hartua: <https://www.iebschool.com/blog/como-escribir-mejores-prompts-en-chatgpt-tecnologia/>

Magalhaes, R. (2023). Nola idatzi eskaera bikainak zure Txatbot GPTrentzat. Landbot. 2023/10/05ean hartua: <https://landbot.io/blog/how-to-write-prompts-for-chat-gpt>

Bozkurt, A. eta Sharma, R.C. (2023). AA sortzailearentzako eskaera-ingeniaritza: mundu algoritmikoaren jeinuari xuxurlatzeko artea. *Asian Journal of Distance Education*, 18(2), i-vii. Doi: 10.5281/zenodo.8174941



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.1 Teknologia digitalen
bidez elkarri eragitea

VoIP





VoIP

Zer da VoIP?

VoIP edo "**Voice over Internet Protocol**" teknologia komunikazio-modu bat da, aro digitalean telefono-deiak egiteko modua aldatu duena. Ohiko telefono-deiak ahotsa transmititzeko zirkuitu kommutatuen mende daude, baina **VoIPk Internet erabiltzen du transmisio-bide nagusi gisa**. Dokumentu honetan VoIPerako hurbilpena egingo da: nola funtzionatzen duen baita egunerokoan nola erabiltzen den ere.




OHARRA

DIFERENTZIA NAGUSIA

Erraz azalduta, VoIPk ahotsa datu digital bihurtu eta Interneteko sarearen bidez bidaltzen du. Horrek esan nahi du **telefono-linea fisikoak erabili beharrean, deiak Interneteko azpiegituraren bidez transmititzen direla**. Horren ondorioz, komunikazioa merkeagoa da.

Funtzionamenduari dagokionez, ahots-seinalea Internet bidez helmugaraino doazen datu-paketeetan zatitzean oinarritzen da. Han, pakete horiek berriro batzen dira, hartzailak ahotsa entzun dezan. VoIP teknologiak ahotsa konprimatzeko algoritmoak erabiltzen ditu eskatutako banda-zabalera minimizatzeko eta denbora errealean ahots-transmisioa bermatzeko (ikus 1. irudia).



1. irudia. VoIP sarea. Geuk egina.



Teknologia horrek aldatu egin du online-komunikazioa, eta mundu osoan deiak eta bideodeiak soinu-kalitate handiarekin egiteko aukera eman die pertsoneri.

i Gehiago jakiteko

VOIP. Interneteko telefonia. (e.digitall.org.es/voip-libro) (Liburua) Jose Antonio Carballar

VoIPen historia eta jatorria

VoIP edo Internet Protokoloaren Gaineko Ahotsa nabarmen hazi da sortu zenetik, eta aldatu egin du komunikatzeko modua.

Telefono-zirkuitu konbentzionalen ordeztatu datu-sareen bidez ahotsa transmititzeko ideia telefoniaren lehen hamarkadetan sortu zen. Hala ere, VoIPen ezarpen praktikoa teknologia digitalarekin gauzatu zen.

OHARRA

XX. mendearen amaieran, aurrerapen esanguratsuak egin ziren ahots digitalaren transmisioan. 90eko hamarkadan, VocalTec Communications bezalako enpresak ahotsa Internet bidez transmititzeko aukera ematen zuten produktuak eskaintzen hasi ziren, eta, horrela, merkataritzako VoIPen hasiera markatu zuten.

2000ko hamarkadan, VoIP zabaldu egin zen Skype bezalako zerbitzuekin, erabiltzaileei Internet erabiliz ahots-deiak eta bideodeiak doan egiteko aukera ematen zietenekin.

Hala ere, denboraren poderioz, VoIPk bilakaera izan du, eta ezaugarri aurreratuak gehitu ditu, hala nola talde-bideodeiak, mezularitza eta enpresentzako bertsioak.

i Gehiago jakiteko

The 1974 Origins of VoIP. (e.digitall.org.es/voip-origen) (artikulu zientifikoa) Robert M. Gray





VoIPen plataforma ezagunenak

VoIPen plataformak ospetsu bihurtu dira mundu osoan, Internet bidez ahots- eta bideo-komunikazioak eskaintzeko beren gaitasunari esker. Jarraian, VoIPen doako plataforma ezagunenetako batzuk aztertuko dira (ikus 2. irudia).

- **Skype: Microsoft**ena da, eta deiak eta bideodeiak egiteko nahiz testu-mezuak eta fitxategiak trukatzeko aukera ematen du. Ingurune pertsonal eta profesionaletan erabiltzen da.
- **WhatsApp: Meta**rena da, deiak eta bideodeiak eskaintzen ditu, eta, beraz, gailu mugikorretan komunikatzeko tresna moldakorra da.
- **Google Meet: Google**ren bideokonferentzien aplikazioa da. Parte-hartzaile askorekin bilerak online egiteko aukera ematen du, eta testuinguru profesionaletan eta hezkuntza-testuinguruetan erabiltzen da.
- **Zoom:** ezaugarri ugari ditu, online-bilerak eta webinarrek barne, besteak beste.



Skype



WhatsApp



Google Meet



Zoom

2. irudia. VoIPen plataforma ezagunenak. Geuk egina.

Gehiago jakiteko

Berrogeialdian hitzaldiak eta webinarrek egiteko plataformak. (e.digital.org.es/plataformas-webinars) Ziberhedabideen Behatokia.



Zer testuingurutan erabiltzen den

VoIP-deiak egoera askotan baliagarriak izan daitezke, adibidez:

- **Telelana eta elkarlana:** enpresei eta lantaldeei langileekin eta laguntzaileekin konektatuta egoteko aukera ematen die, kokapen geografikoa edozein dela ere.
- **Nazioarteko deiak:** nazioarteko deiak maiz egiten dituzten pertsonentzat eta enpresentzat, VoIPk asko aurrezten du komunikazio-kostuetan.
- **Komunikazioa hezkuntzan:** hezkuntza-erakundeek online-eskolak emateko, ikasleekin eta irakasleekin bilerak egiteko eta urrutiko hezkuntza-proiektuetan laguntzeko erabiltzen dute VoIP.

Gainera, VoIPk gero eta presentzia handiagoa du hainbat esparrutan:



VOIPEN ERABILERA-ESPARRUAK

Egoera	Azalpena
Nazioarteko komunikazioa	Aukera ematen du lagunak, senideak eta lankideak Internet bidez harremanetan jartzeko, eta urrutiko deietan kargu gehigarriak saihesten ditu.
Bidaiak	Bidaiariak lagunekin eta senideekin komunikatzeko erabil dezakete VoIP, kostu gehigarriak eragin gabe.
Online-hezkuntza	Irakasleek eta ikasleek bideokonferentzia-plataformen bidez elkarri eragin diezaiokete, eta hori bereziki garrantzitsua izan da COVID-19aren pandemian.
Enpresen arteko elkarlana	Enpresa-inguruneetan, VoIPk hainbat tokitan banatutako taldeen arteko komunikazioa eta elkarlana errazten du. Teknologia horri esker, hitzaldiak eta bilera birtualak erraz egin daitezke.

Gehiago jakiteko

VoIP teknologia herritarren eta gobernuaren arteko harreman digitalerako dituen onurak. (e.digitall.org.es/beneficios-voip) LinkedIn.



VoIPen abantailak

VoIP teknologiak zenbait abantaila esanguratsu eskaintzen ditu, ohiko telefono-deietatik bereizten dutenak. Abantaila horiez ohartuta uler daiteke zergatik den gero eta ezagunagoa VoIP komunikazio digitalaren esparruan.

VOIPEN ABANTAILA NAGUSIAK

Abantaila	Azalpena
Kostuak murriztea	Askotan, erabiltzaileen arteko deiak doakoak izaten dira. Nazioarteko deiak ere merkeagoak dira tradizionalak baino.
Malgutasuna	Erabiltzaileek deiak egin ditzakete ordenagailuetatik, smartphonetatik, tabletetatik edo Interneteko konexioa duten beste gailu batzuetatik.
Soinu-kalitatea	VoIP-deien soinu-kalitatea ohiko telefono-deienaren parekoa da edo are hobea.

Gehiago jakiteko

VoIPi buruzko komunikazioa. (e.digitall.org.es/comunicacion-voip) (artikulu zientifikoa) Denis Efrén Berríos eta Ernesto Espinoza.

VoIP eguneroko bizitzan

Gaur egun, VoIP teknologia nonahiko tresna bihurtu da gure bizitza digitaletan. Negozio-elkarrizketetatik hasi eta lagunekiko eta senideekiko deietaraino. VoIP eguneroko egoera askotan agertzen da. Internet bidez deiak eta bideodeiak egiteko ahalmenarekin, teknologia horrek irauli egin du komunikazioa. Atal honetan, deiak eta bideodeiak nola egin azalduko da. Segurtasun-aholku batzuk ere emango dira.

Nola egin deiak eta bideodeiak

VoIPen aplikazioetan deiak edo bideoiak egiteko, hala nola Skype, WhatsApp, Google Meet edo Zoomen, urrats orokor batzuk jarrai daitezke:

- 1 | Hasi appa:** gailuan dagokion aplikazioa ireki.



- 2 | Sartu edo kontaktua bilatu:** saioa hasi behar da, beharrezkoa bada, eta solaskidea bilatu. Izenaren, helbide elektronikoaren edo erabiltzailearen arabera bila daiteke.
- 3 | Kontaktua hautatu:** nahi den kontaktuan klik egin solasaldia irekitzeko.
- 4 | Hasi deia edo bideodeia:** bilatu "Deia" edo "Bideodeia" adierazten duen ikonoa eta hautatu nahiago duzun aukera.
- 5 | Komunikazioa abian:** deia edo bideodeia hasiko da eta hitz egin ahal izango da, baita kontaktua ikusi ere.

OHARRA

HONAKO HAU KONTUAN HARTZEA GARRANTZITSUA DA:

Aplikazio gehienek aukera ematen dute, solasaldiak iraun bitartean, ahots-deiaren eta bideodeiaren artean aldatzeko.

ADI!

INTERFAZE-DESBERDINTASUNAK

Aplikazio bakoitzak diferentziak izan ditzake ikonoen eta aukeren kokapenean.

Gehiago jakiteko

Nola egin behar dut dei bat Skypeen? (e.digitall.org.es/skype) Skype.

VoIP-deietarako segurtasun-aholkuak

VoIP-deiek komunikatzeko modu erraz bat eskaintzen dute, baina **Internet erabiltzen da-eta, garrantzitsua da segurtasuna eta pribatutasuna kontuan hartzea** zerbitzu horiek erabiltzen direnean. Jarraian, VoIP-zerbitzuak erabiltzen direnean online seguru egoteko aholkuak aurkeztuko dira (ikus 3. irudia):

- **Softwarea eguneratzea:** garrantzitsua da programak beti azken segurtasun-zuzenketak izatea.
- **Pasahitz sendoak:** beste pertsona batzuk zure kontura sar ez daitezten.
- **Sareko segurtasuna:** garrantzitsua da sare seguru bat erabiltzea, nahi ez diren entzuketak saihesteko. Bereziki, wifi-sare publikoak saihestu behar dira gai kalteberei buruz hitz egiten denean.
- **Baimendu gabeko grabazioak saihestea:** deiak ez dira grabatu edo partekatu behar tartean dauden alderdi guztien baimenik gabe. Baliteke horrek pribatutasun-legeak ez betetzea.
- **Faktore bikoitzeko autentifikazioa:** tresna horrek beste segurtasun-geruza bat dakarkio kontuari, erabiltzailearen identitatea bi aldiz modu desberdinetan egiaztatu behar baita.





- **Antivirus eguneratua:** gailua balizko mehatxuetatik babesten du.
- **Deiak zifratzea:** elkarrizketen pribatutasuna babesten laguntzen du, igorleak eta hartzaileak bakarrik baitute mezuak desfifratzeko kodea.
- **Identitatea egiaztatzea:** informazio konfidentziala partekatu edo transakzioak egin aurretik, solaskidearen identitatea egiaztatu behar da.
- **Ez ireki esteka ezezagunik:** birusak sartzeko atea izan daiteke.



Actualizar el software



Contraseñas fuertes



Seguridad de la Red



Evitar grabaciones no autorizadas



Usar autenticación de doble factor



Mantener actualizado el antivirus



Cifrado de llamadas



Verificación de identidad



No abrir enlaces desconocidos

3. irudia. Segurtasun-aholkuak. Geuk egina.

Gehiago jakiteko

VoIPko segurtasuna: erasoak, mehatxuak eta arriskuak. (e.digitall.org.es/seguridad-voip) (artikulu akademikoa) Roberto Gutiérrez Gil



Gehiago jakiteko

Berrios, D & Espinoza, E. (2009). VOIPi buruzko komunikazioa. Nikaraguako Unibertsitate Nazional Autonomoa. 2023/10/13an kontsultatu da.

Hemendik hartua: <http://riul.unanleon.edu.ni:8080/jspui/bitstream/123456789/4748/1/211798.pdf>

Carballar, J. (2007). VOIP. Interneteko telefonia. [Bertsio elektronikoa].

Ediciones Paraninfo. 2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=j7Nuzoet5gIC&oi=fnd&pg=PR3&dq=VoIP&ots=>

Chaquea, L. (2022). VoIP teknologiak herritarren eta gobernuaren arteko harreman digitalerako dituen onurak. LinkedIn. 2023/10/13an kontsultatu da.

Hemendik hartua: <https://www.linkedin.com/pulse/beneficios-de-la-tecnolog%C3%ADa-voip-para-relaci%C3%B3n-digital-luis-c-chaquea/?originalSubdomain=es>

FCC. (d.g.). Internet Protokoloaren Gaineko Ahotza (VoIP). [Web esteka].

2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <https://www.fcc.gov/general/voice-over-internet-protocol-voip>

Gray, R. (2005). The 1974 origins of VoIP. Signal Processing Magazine, IEEE, 22, 87-90.

2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <https://doi.org/10.1109/MSP.2005.1458295>

Gutiérrez, R. (d.g.). VoIPen segurtasuna: erasoak, mehatxuak eta arriskuak.

Valentziako Unibertsitatea. 2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <http://www.it-docs.net/ddata/896.pdf>

Ziberhedabideen Behatokia. (2020). "Berrogeialdian hitzaldiak eta webinarak egiteko plataformak." Pompeu Fabra Unibertsitatea.

Ziberhedabideen Behatokia. 2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <https://observatoriocibermedios.upf.edu/plataformas-videoconferencias-webinars/>

Skype Support. (d.g.). Nola egin dei bat Skypen. [Web esteka]. 2023/10/13an kontsultatu da.

Hemendik hartua: <https://support.skype.com/es/faq/fai0613/como-hago-una-llamada-en-skype?q=hacer+una+llamada>

VoIP-Info.org. (d.g.). Zer da VoIP? [Web esteka]. 2023/10/13an kontsultatu da.

Hemendik hartua: <https://www.voip-info.org/what-is-voip/>

Zoom Video Communications, Inc. (d.g.). Zer da VoIP-telefono bat? [Web esteka].

2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <https://explore.zoom.us/es/what-is-voip-phone/>

Zoom Video Communications, Inc. (d.g.). Deiak nola egin eta jaso. [Web esteka].

2023/10/13an kontsultatu da. Hemendik hartua: <https://support.zoom.us/hc/es/articles/360021087192-C%C3%B3mo-hacer-y-recibir-llamadas>



DigitAll

Komunikazioa eta
elkarlana

2.2

TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZ PARTEKATZEA





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.2 Teknologia digitalen
bidez partekatzea

Fitxategiak partekatzen Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin





Fitxategiak partekatzen Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin

Sarrera

Dokumentu honek A2C22B2V03 bideoa osatzen du: "Fitxategiak partekatzen Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin".



FITXATEGIAK PARTEKATZEN GOOGLE DRIVE, ONEDRIVE ETA DROPBOXEKIN

Bideo honek fitxategiak (irudiak, bideoak eta dokumentuak) Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin partekatzeko moduari buruzko xehetasun gehiago ematen ditu.


e.digitall.org.es/A2C22B2V03

Google Drive, OneDrive eta Dropbox plataformekin fitxategiak partekatzeak hainbat abantaila eta onura ditu, eta, horren ondorioz, praktika zabaldua da ingurune digitalean. Honako hau eskaintzen du: elkarlanean aritzeko erraztasuna, edozein lekutatik eskuragarri egotea, sinkronizazio automatikoa, bertsioen kontrola, segurtasuna eta modu kontrolatuan partekatzeko gaitasuna.

Tresna horiek bereziki baliagarriak dira elkarlan-inguruneetan eta gailu askotatik fitxategietara bizkor eta erraz iristea eskatzen duten egoeretan.

Zer da Google Drive?

Google Drive hodeiko biltegiratze-zerbitzu bat da, Googlek garatua. Fitxategiak eta karpetak online biltegiratzeko, sinkronizatzeko eta partekatzeko aukera ematen die erabiltzaileei. Google Driverekin, hodeian fitxategiak gorde ditzakezu eta Interneteko konexioa duen edozein gailutatik sar zaitezke haietara. Gainera, zeure fitxategiak beste pertsona batzuekin parteka ditzakezu, eta denbora errealean elkarlanean aritu zaitezke dokumentuetan, kalkulu-orrietan eta aurkezpenetan.






Google Drivek 15 GBko doako biltegitratze-ahalmena eskaintzen dio erabiltzaile bakoitzari, Google Drive, Gmail eta Google Photosen artean partekatua. Espazio handiagoa behar baduzu, ordaindutako biltegitratze-aukerak ere eskaintzen ditu. Gainera, Google Drivek hainbat aplikazio ditu integratuak, hala nola Google Docs, Google Sheets, Google Slides eta Google Forms, dokumentuak, kalkulu-orriak, aurkezpenak eta inprimakiak online sortzeko eta editatzeko aukera ematen dutenak.

Laburbilduz, Google Drive hodeian biltegitratzeko zerbitzu bat da, fitxategiak eta karpetak online biltegitratzeko, sinkronizatzeko eta partekatzeko aukera ematen dizuna, baita dokumentuetan, kalkulu-orrietan eta aurkezpenetan beste erabiltzaile batzuekin denbora errealean elkarlanean aritzekoa ere. Fitxategiak kudeatzeko eta elkarlanean aritzeko tresna baliagarria da.

Nola partekatu fitxategiak Google Driverekin

Fitxategiak Google Driverekin partekatzeko, egin urrats hauek:

- 1 | Ireki Google Drive zure nabigatzailean eta aurkitu partekatu nahi duzun fitxategia (Sarbidea: google.com/drive).
- 2 | Hautatu fitxategia, bertan klik eginez, hura nabarmentzeko.
- 3 | Egin klik eskuineko aldean fitxategian menu zabalgarri bat irekitzeko eta hautatu "Partekatu" menuaren behealdean (ikus 1. irudia).



1. irudia. "Partekatu" aukera Google Driven.



4 | Sartu pertsonaren edo pertsonen helbide elektronikoa, zeinarekin edo zeinekin partekatu nahi duzun fitxategia, "Pertsonak eta taldeak erantsi" eremuan, "Beste pertsona batzuekin partekatu" elkarrizketa-koadroan (ikus 2. irudia).




2. irudia. Helbide elektronikoa edo helbide elektronikoak sartzeko, Google Driven partekatzeko.

5 | Hautatu, menu zabalgarrian, zer baimen mota eman nahi diezun hartzaileei, baita haien helbide elektronikoa ere. Honako hauek hauta ditzakezu: "Editatu", "Komentatu" edo "Ikusi" (ikus 3. irudia).

6 | Erantsi aukerako mezu bat "Mezu pertsonala erantsi" testu-koadroan (ikus 3. irudia).

7 | Egin klik "Bidali" aukeran elkarlan-gonbidapena bidaltzeko (ikus 3. irudia).



3. irudia. Baimenak, mezuak eta bidaltzeko aukera Google Driven.



Zuk fitxategia partekatu ondoren, hartzaileek mezu elektronikoa jasoko dute fitxategirako esteka batekin. "Editatu" edo "Komentatu" baimenak eman badizkiezu, haiek aldaketak egin ahal izango dituzte fitxategian, eta aldaketa horiek denbora errealean ikusiko dituzu. Era berean, fitxategira nor sartzen den ikus dezakezu, eta haren baimenak edozein unetan aldatu dezakezu, fitxategiaren xehetasunen pantailaren goialdean, Google Driven, "Honekin partekatua" botoian klik eginez.

Zer da OneDrive?

OneDrive hodeian biltegitzeko zerbitzu bat da, Microsoftek garatua. Fitxategiak eta karpetak online biltegitzeko, sinkronizatzeko eta partekatzeko aukera ematen die erabiltzaileei. OneDriverekin, hodeian fitxategiak gorde ditzakezu eta Interneteko konexioa duen edozein gailutatik sar zaitezke haietara. Gainera, zeure fitxategiak beste pertsona batzuekin parteka ditzakezu, eta denbora errealean elkarlanean aritu zaitezke dokumentuetan, kalkulu-orrietan eta aurkezpenetan.

OneDrivek 5 GBko doako biltegitze-ahalmena eskaintzen dio erabiltzaile bakoitzari, OneDrive, Outlook.com eta Microsoften artean partekatua. Espazio handiagoa behar baduzu, ordaindutako biltegitze-aukerak ere eskaintzen ditu. Gainera, OneDrivek aplikazio ugari ditu online integratuak, hala nola Word, Excel eta PowerPoint, dokumentuak, kalkulu-orriak eta aurkezpenak sortzeko eta haiek online editatzeko aukera ematen dutenak.


Laburbilduz, OneDrive hodeian biltegitzeko zerbitzu bat da, fitxategiak eta karpetak online biltegitzeko, sinkronizatzeko eta partekatzeko aukera ematen dizuna, baita dokumentuetan, kalkulu-orrietan eta aurkezpenetan beste erabiltzaile batzuekin denbora errealean elkarlanean aritzeko ere. Fitxategiak kudeatzeko eta elkarlanean aritzeko tresna baliagarria da, eta Microsoften beste zerbitzu batzuekin integratuta dago, erabiltzaile-esperientzia integratua eskaintzeko.

Nola partekatu fitxategiak OneDriverekin

OneDriverekin fitxategiak partekatzeko, egin urrats hauek:

- 1 | Ireki OneDrive zure nabigatzailean eta aurkitu partekatu nahi duzun fitxategia (Sarbidea: microsoft.com/onedrive).
- 2 | Hautatu fitxategia, bertan klik eginez, hura nabarmentzeko.
- 3 | Egin klik goiko tresna-barrako "Partekatu" botoian (ikus 4. irudia).





4. irudia. "Partekatu" aukera OneDriven.

4 | Sartu pertsonaren edo pertsonen helbide elektronikoa, zeinarekin edo zeinekin partekatu nahi duzun fitxategia, "Partekatu" elkarrizketa-koadroko "Norentzat" eremuan (ikus 5. irudia).

5 | Hautatu, menu zabalgarrian, zer baimen mota eman nahi diezun hartzaileei, baita haien helbide elektronikoa ere. "Editatu" edo "Bakarrik ikusi" ("Ikus dezakezu") hauta dezakezu (ikus 5. irudia).

6 | Erantsi aukerako mezu bat "Mezu bat erantsi" testu-koadroan (ikus 5. irudia).



5. irudia. Baimenak, mezuak eta bidaltzeko aukera OneDriven.

7 | Egin klik "Partekatu" botoian elkarlan-gonbidapena bidaltzeko.



Zuk fitxategia partekatu ondoren ("Bidali"), hartzaileek mezu elektronikoko bat jasoko dute fitxategirako esteka batekin. "Editatu" baimena eman badiezu, haiek aldaketak egin ahal izango dituzte fitxategian, eta aldaketa horiek denbora errealean ikusiko dituzu. Era berean, fitxategira nor sartzen den ikus dezakezu, eta haren baimenak edozein unetan alda ditzakezu, "Partekatu" botoian klik eginez, fitxategi ondoan, OneDriven.

Zer da Dropbox?

Dropbox hodeian biltegitratzeko zerbitzu bat da, erabiltzaileei fitxategiak eta karpetak online biltegitratzeko, sinkronizatzeko eta partekatzeko aukera ematen diena. 2008an abiarazi zen, eta harrezkero hodeiko biltegitratze-zerbitzu ezagunenetako bat bihurtu da munduan. Dropboxekin, hodeian fitxategiak gorde ditzakezu eta Interneteko konexioa duen edozein gailutatik sar zaitezke haietara. Gainera, zeure fitxategiak beste pertsona batzuekin parteka ditzakezu, eta denbora errealean elkarlanean aritu zaitezke dokumentuetan eta karpetetan.


Dropboxek 2 GBko doako biltegitratze-ahalmena eskaintzen du erabiltzaile bakoitzarentzat, eta hori hainbat modutan handitu daiteke, hala nola lagunei erreferentzia eginez, misioak eginez edo premium-kontu baten truke ordainduz. Gainera, Dropboxek aplikazio ugari ditu integratuak, hala nola Dropbox Paper, dokumentuak sortzeko eta online editatzeko aukera ematen duena, eta Dropbox Transfer, fitxategi handiak segurtasunez bidaltzeko aukera ematen duena.

Laburbilduz, Dropbox hodeian biltegitratzeko zerbitzu bat da, fitxategiak eta karpetak online biltegitratzeko, sinkronizatzeko eta partekatzeko aukera ematen dizuna, baita dokumentuetan eta karpetetan beste erabiltzaile batzuekin denbora errealean elkarlanean aritzeko ere. Fitxategiak kudeatzeko eta elkarlanean aritzeko tresna baliagarria da, eta funtzio ugari eskaintzen ditu erabiltzaileen beharrak asetzeko.

Nola partekatu fitxategiak Dropboxekin


- 1 | Ireki Dropbox zure nabigatzailean eta aurkitu partekatu nahi duzun fitxategia (Sarbidea: dropbox.com).
- 2 | Hautatu fitxategia, bertan klik eginez, hura nabarmentzeko.
- 3 | Egin klik fitxategiaren ondoan agertzen den "Partekatu" botoian.





6. irudia. "Partekatu" aukera Dropboxen.



4 | Sartu pertsonaren edo pertsonen helbide elektronikoa, zeinarekin edo zeinekin partekatu nahi duzun fitxategia, "Partekatu" elkarriketa-koadroko "Norentzat" eremuan.



7. irudia. Posta-helbidea eransten Dropboxen.

5 | Hautatu, menu zabalgarrian, zer baimen mota eman nahi diezun hartzaileei, baita haien helbide elektronikoa ere. "Editatu" edo "Bakarrik ikusi" hauta dezakezu.




PDF Get Started with Dropbox.pdf  

Quiénes pueden acceder

Compartir este archivo

Cualquiera con el vínculo puede ver [Configuración](#)

nombresuario@gmail.com 

Agrega una nota

[Copiar vínculo](#) [Compartir archivo](#)

8. irudia. Dropboxen partekatzeko aukerak konfiguratzeko.

6 | Erantsi aukerako mezu bat "Mezu pertsonal bat erantsi" testu-koadroan.

7 | Egin klik "Partekatu" botoian elkarlan-gonbidapena bidaltzeko.

Zuk fitxategia partekatu ondoren, hartzaileek mezu elektronikoa jasoko dute fitxategirako esteka batekin. "Editatu" baimena eman badiezu, haiek aldaketak egin ahal izango dituzte fitxategian, eta aldaketa horiek denbora errealean ikusiko dituzu. Era berean, fitxategira nor sartzen den ikus dezakezu, eta haren baimenak edozein unetan alda ditzakezu, "Partekatua" botoian klik eginez, fitxategi ondoan, Dropboxen.

Gehiago jakiteko

1 | Garrantzitsua da jakitea, dokumentu honetan azaldutako bideez gain, telefono mugikorren edo ordenagailuen sistema eragileen aplikazioetatik ere parteka daitezkeela fitxategiak Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin. Web-bertsioarekin integratuta daude, fitxategiak partekatzea errazteko.

2 | Google Drivek, OneDrivek eta Dropboxek ordainketa-planak dituzte, hodeiko biltegiatze-ahalmena handitzeko. Tresna bakoitzaren web-helbideetan zuzenean sartuta (dokumentu honetan dituzu), bakoitzaren planak ikusi ahal izango dituzu.



Ondorioak

Hodeiko biltegitratze-zerbitzuek, hala nola Google Drive, OneDrive eta Dropboxek, fitxategiak online partekatzeko modu egoki eta segurua eskaintzen diete erabiltzaileei. Zerbitzu horien erabilerari buruzko ondorio nagusien artean, honako hauek daude:

- 1 | Erabilerraztasuna:** erabilerrazak dira eta ez dute eskatzen, fitxategiak partekatzeko, trebetasun tekniko aurreraturik.
- 2 | Irisgarritasuna:** zerbitzu horietara Interneteko konexioa duen edonondik sar daiteke, eta gailu askotan erabil daitezke, hala nola mahaigaineko konputagailuetan, eramangarrietan, tabletetan eta telefono adimendunetan.
- 3 | Elkarlana:** denbora errealean elkarlanean aritzea ahalbidetzen dute; horrek esan nahi du hainbat erabiltzailek aldi berean lan egin dezaketela fitxategi berean.
- 4 | Segurtasuna:** segurtasun handia eskaintzen dute partekatutako fitxategietarako, zifratzeko teknika aurreratuen eta baimenik gabeko sarbidearen aurkako babesaren bidez.
- 5 | Kostua:** askotariko prezio-aukerak izan ohi dituzte, doakoak nahiz ordainketak. Prezioa, askotan, biltegitratze-espazioaren eta behar diren funtzio osagarrien kopuruaren araberakoa da.

Oro har, Google Drive, OneDrive eta Dropboxekin fitxategiak partekatzea elkarlanean aritzeko eta taldean lan egiteko modu bikaina da, eta zerbitzu horiek aukera eta tresna ugari eskaintzen dituzte modu efiziente eta seguruan egiteko.



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.2 Teknologia digitalen
bidez partekatzea

Berehalako mezularitza- aplikazioetan edukia partekatzen





Berehalako mezularitza-aplikazioetan edukia partekatzen

Sarrera

Dokumentu honek A2C22B2V04 bideoa osatzen du: "Berehalako mezularitza-aplikazioetan edukia partekatzen".



BEREHALAKO MEZULARITZA-APLIKAZIOETAN EDUKIA PARTEKATZEN

Bideo honek fitxategiak (irudiak, bideoak eta dokumentuak) berehalako mezularitza-aplikazioetan partekatzeko moduari buruzko xehetasun gehiago ematen ditu.

e.digitall.org.es/A2C22B1V07

Berehalako mezularitza-aplikazioak ezinbesteko tresna bihurtu dira pertsonen eguneroko bizitzan. Lagunekin eta senideekin komunikatzeko ez ezik, informazioa, irudiak, bideoak eta beste eduki batzuk partekatzeko ere erabiltzen dira. Testuinguru horretan, berehalako mezularitza-aplikazioetan edukiak partekatzea praktika arrunta bihurtu da eta gero eta hedatuagoa da. Informazioa eta fitxategiak beste erabiltzaile batzuei bidaltzeko modu azkar eta erraza eskaintzen du. Argazki eta bideoetatik hasi eta audio-dokumentu eta -fitxategietaraino, erabiltzaileek ia edozein gauza parteka dezakete beren gailu mugikorraren pantailan ukitu gutxi batzuk eginda.

Dokumentu honetan, berehalako mezularitza-aplikazioetan edukiak nola partekatu erakutsiko dugu; bereziki, WhatsApp, Telegram eta Signal aplikazioetan.

Fitxategiak partekatzen WhatsAppen

WhatsAppeko fitxategiak nola partekatu jakitea funtsezkoa da gaur egungo aro digitalean. Mezularitza-aplikazio hori munduko ezagunenetako bat da, eta milaka milioi erabiltzaile aktibo ditu mundu osoan. Erabiltzaileek azkar eta erraz parteka ditzakete argazkiak, bideoak, dokumentuak eta beste fitxategi batzuk lagunekin, senideekin eta kideekin.





WhatsAppen bidez fitxategiak partekatzeko gaitasuna bereziki garrantzitsua da enpresa-ingurunean, langileek fitxategi garrantzitsuak bizkor eta segurtasunez partekatu behar izaten baitituzte. Aplikazioa funtsezko tresna bihurtu da urrutiko hezkuntzarako ere, non ikasleek dokumentuak eta beste fitxategi batzuk parteka ditzaketen beren irakasleekin eta ikaskideekin.

Gainera, WhatsAppek fitxategiak partekatzeko hainbat funtzio eskaintzen ditu, hala nola 100 MB arteko fitxategiak bidaltzeko aukera eta hainbat fitxategi aldi berean bidaltzekoa. Webguneetarako eta aplikazioetarako estekak ere parteka daitezke, eta horrek aukera ematen die erabiltzaileei informazio garrantzitsua eta baliagarria partekatzeko haien kontaktuekin.

WhatsAppen bidez fitxategiak partekatzen direnean, garrantzitsua da pribatutasunari eta segurtasunari buruzko zenbait alderdi kontuan hartzea. WhatsAppek muturretik muturrerako zifratzea erabiltzen du; horrek esan nahi du bidalitako mezuak eta fitxategiak babestuta daudela eta bidaltzaileek eta hartzaileek soilik irakur ditzaketela. Horrek beste segurtasun-geruza bat ematen du, partekatutako fitxategiak ez baitira eskuragarriak ez hirugarrenentzat ez WhatsAppentzat. Era berean, pribatutasun-aukerak eskaintzen ditu, eta doitu egin ditzakezu, partekatzen dituzun fitxategiak nork ikusi eta eskura ditzakeen kontrolatzeko. Zeure multimedia-fitxategiak automatikoki edo zeuk baimentzen duzunean bakarrik deskargatzen diren hauta dezakezu. Gainera, zeure profilaren eta egoeraren argazkia nork ikus dezakeen konfigura dezakezu, eta taldeetara nork gehi zaitzakeen muga dezakezu.



Nola partekatu fitxategiak WhatsAppen

WhatsAppen fitxategiak partekatzeko, egin urrats hauek:

- 1 | Ireki banakako edo taldeko txat bat.
- 2 | Egin klik eransteko ikonoan eta, ondoren, egin klik aukera hauetako batean (1. irudian ikono guztiak ikus ditzakezu):
 - **Argazkiak eta bideoak:** mugikorretik edo ordenagailutik argazkiak edo bideoak hautatzeko. Gehienez ere, 30 argazki edo bideo bidal ditzakezu aldi bakar batean, eta iruzkin bat erantsi bakoitzean. Argazki edo bideo bat ere arrastaka eraman dezakezu zuzenean testuaren sarrera-eremura, ordenagailutik ari bazara. Bidaltzen duzun bideo bakoitzak 16 MB izan ditzake gehienez ere.



- **Kamera:** gailuaren kamerarekin argazki bat egiteko.
- **Dokumentua:** gailutik dokumentuak hautatzeko. Ordenagailutik ari bazara, dokumentua zuzenean arrastaka eraman dezakezu testuaren sarrera-eremura. Dokumentuetarako gehieneko tamaina 2 GBkoa da.
- **Kontaktua:** telefonoan gordetako kontaktuei buruzko informazioa bidaltzeko.
- **Kokapena:** kokapena parteka daiteke mugikorretik ari bagara. Egin klik kokapen-ikonoan, zauden lekua edo hurbileko lekuren bat bidaltzeko.

3 | Fitxategia hautatu ondoren, bidali aurretik ziurtatu zuzena dela. Nahi baduzu, iruzkin edo mezu bat erantsi dezakezu. Egin klik bidaltzeko botoian.



1. irudia. WhatsAppeko ikonoak (agertzen diren hurrenkeran), honetarako: erantsi, kamera, dokumentua, kontaktua, bidali eta kokapena.

Facebookeko edo Instagrameko bideoetara birbideratzen duten estekak ere parteka ditzakezu (WhatsAppetik erreproduzitu egin daitezke). Esteka txatean itsastean, aurrebista bat agertuko da.

Kalitate handiko multimedia-fitxategiak bidaltzeko, urrats hauek egin behar dituzu:

- 1 | WhatsAppen, zoaz "Konfigurazioa" atalera.
- 2 | Sakatu "Biltegitratzea eta datuak".
- 3 | Sakatu "Fitxategiak kargatzeko kalitatea".
- 4 | Sakatu "Automatikoa" (gomendatua), "Kalitate hobea" edo "Datuak aurreztea".

Kontuan izan bereizmen handiko multimedia-fitxategiek datu gehiago kontsumituko dituztela.



WhatsApp bidez ahots-mezu bat bidaltzea

WhatsApp bidez ahots-mezu bat bidaltzeko, egin urrats hauek:

- 1 | Ireki banakako edo taldeko txat bat.
- 2 | Egin klik mikrofono-íkonon eta hasi hitz egiten (2. irudian ikus ditzakezu íkonok).
- 3 | Grabatzen amaitzen duzunean, egin klik bidaltzeko ikonoan ahots-mezua bidaltzeko.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ahots-mezu bat grabatzen duzun bitartean, geldialdi-íkonon klik egin dezakezula grabazioa aldi baterako geldiarazteko, eta mikrofono-íkonon berriro hasteko. Grabazioa ezeztatzeko eta ezabatzeko, egin klik paperontzi-íkonon.



2. irudia. WhatsAppeko ikonoak (agertzen diren hurrenkeran), honetarako: mikrofonoa, etenaldia eta paperontzia.

Multimedia-fitxategiak, dokumentua, kokapenak edo kontaktuak birbidaltzea

WhatsApp bidez ahots-mezu bat bidaltzeko, egin urrats hauek:

- 1 | Ireki banakako edo taldeko txat bat.
- 2 | Sakatu birbidali nahi duzun mezu mota eta, ondoren, sakatu "Birbidali". Hainbat mezu hauta ditzakezu.
- 3 | Sakatu birbidaltzeko ikonoa.
- 4 | Hautatu txata, zeinera mezua birbidali nahi duzun, eta sakatu "Birbidali".

Multimedia-fitxategiak, dokumentuak, kokapenak edo kontaktuak birbidaltzeko, ez da beharrezkoa berriro kargatzea. Zeuk sortu ez duzun mezu bat birbidaltzen duzunean, mezu hori "Birbidalita" etiketarekin agertuko da. Iruzkinak ez dira multimedia-fitxategiekin batera birbidaliko.



Fitxategiak partekatzen Telegramen

Telegram berehalako mezularitza-aplikazio oso ezaguna da mundu osoan, eta segurtasun handia, pribatutasuna, abiadura eta erabilerraztasuna ditu ezaugarri. Hona hemen Telegram garrantzitsua izateko arrazoietako batzuk:

1 | Segurtasuna eta pribatutasuna: Telegramek muturretik muturrerako enkriptatzea erabiltzen du bidaltzen diren mezuak eta fitxategiak babestuta daudela eta hirugarrenek ezin dituztela atzeman bermatzeko. Gainera, Telegramek segurtasun-funtzio gehigarriak eskaintzen ditu, hala nola, suntsitzen diren txat sekretuak eta appra sartzeko sarbide-kode bat gaitzeko aukera.

2 | Abiadura: Telegram da merkatuko berehalako mezularitza-aplikaziorik azkarrenetako bat. Mezuak berehala bidali eta jasotzen dira, eta horrek denbora errealean egindako komunikazioa errazten du.

3 | Erabilerraztasuna: Telegram oso erraza da erabiltzen, eta, horregatik, oso ezaguna da adin guztietako erabiltzaileen artean. Aplikazioak interfaze intuitiboa eta funtzio sinpleak ditu, eta horrek oso aukera erakargarri bihurtzen du mezularitza-aplikazio erraz eta efiziente bat bilatzen dutenentzat.

4 | Funtzio gehigarriak: Telegramek hainbat funtzio osagarri eskaintzen ditu, eta, horien ondorioz, oso baliagarria da hainbat helburutarako: tamaina handiko fitxategiak partekatzeko aukera, 200.000 kide ere har ditzaketen taldeak egiteko aukera, eta informazioa modu masiboan zabaltzeko kanalak sortzekoa.

5 | Erabiltzaile-komunitate aktiboa: Telegramek erabiltzaile-komunitate aktibo eta konprometitu handia du. Talde eta kanal askotan hainbat gai eztabaidatzen dira eta informazioa partekatzen da; beraz, oso tresna baliagarria da antzeko interesak dituzten pertsonekin konektatzeko.





Nola partekatu fitxategiak Telegramen

Telegramen fitxategiak partekatzeko, egin urrats hauek:

- 1** Ireki Telegram eta hautatu solasaldirako pertsona edo taldea, zeinarekin partekatu nahi duzun fitxategia, audioa edo kokapena.
- 2** Sakatu eransteke botoia, pantailaren behealdean, eskuinean. Botoi horrek klip forma du.
- 3** Hautatu zer fitxategi mota partekatu nahi duzun. Galeriaren (argazkiak eta bideoak), dokumentuen, audioaren, kokapenaren edo kontaktuaren artean hauta dezakezu (ikus ikonoak 3. irudian).
- 4** Argazkiak eta bideoak aukeratzen badituzu, zuzenean hautatu ahal izango dituzu zeure galeriatik. Dokumentuak aukeratzen badituzu, zeure barne-biltegian edo hodeian bilatu ahal izango dituzu. Audioa aukeratzen baduzu, ahots-audio bat grabatu ahal izango duzu edo hura bilatu zeure barne-biltegian. Kokapena aukeratzen baduzu, oraingo zeure kokapena partekatu ahal izango duzu. Kontaktua aukeratzen baduzu, zeure agendako kontaktu bat hautatu ahal izango duzu.
- 5** Fitxategia hautatu ondoren, bidali aurretik ziurtatu zuzena dela. Nahi baduzu, iruzkin edo mezu bat erantsi dezakezu.
- 6** Sakatu bidaltzeko botoia, pantailaren eskuinaldean. Botoi horrek goranzko gezi forma du.
- 7** Kokapen espezifiko bat partekatu nahi baduzu, sakatu eransteke botoia eta hautatu "Kokapena". Mapan kokapena bila dezakezu edo helbidea eskuz sartu. Horrez gain, gaur egungo zeure kokapena denbora errealean ere parteka dezakezu solasaldi-pantailan kokapen-botoia sakatuta.



3. irudia. Telegrameko ikonoak (agertzen diren hurrenkeran), honetarako: galeria, dokumentua, kontaktua, kamera eta kokapena.

Kontuan izan, fitxategi bat baino gehiago aldi berean partekatu nahi badituzu, eransteke botoia sakatuta eduki eta nahi dituzun fitxategiak hauta ditzakezula. Partekatu nahi duzun fitxategia handiegia bada, azter ezazu hodeiko biltegiratze-zerbitzu bat erabiltzeko aukera, hala nola Google Drive edo Dropbox. Fitxategia hodeira igo eta esteka Telegramen parteka dezakezu.



Telegram bidez ahots-mezu bat bidaltzea

Telegram bidez ahots-mezu bat bidaltzeko, egin urrats hauek:

- 1** Ireki Telegram eta hautatu solasaldirako pertsona edo taldea, zeinari ahots-mezua bidali nahi diozun.
- 2** Sakatu mikrofono-botoia, solasaldi-pantailaren behealdean, eskuinean. Funtzio hau lehen aldiz erabiltzen baduzu, Telegram-ek gailuko mikrofonora sartzeko baimena eskatuko dizu.
- 3** Eduki mikrofono-botoia sakatuta eta hasi hitz egiten. Gehienez ere bi minutuz hitz egin dezakezu.
- 4** Hitz egiten amaitu ondoren, askatu mikrofono-botoia. Ahots-mezua automatikoki bidaliko da.

Ahots-mezua ezeztatu nahi baduzu bidali aurretik, irristatu hatza ezkererantz mikrofono-botoia sakatuta mantentzen duzun bitartean. Bidali aurretik, ahots-mezua berrikusteko aukera duzu: ahots-mezua grabatu ondoren, solasaldi-pantailaren behealdean, eskuinean, agertzen den erreproduzio-botoia sakatuta entzun dezakezu. Ahots-mezu luzeagoa bidali nahi baduzu, hainbat zatitan bana dezakezu. Geldiarazi grabazioa bi minutu igaro ondoren eta hasi gero beste grabazio bat.

Fitxategiak partekatzen Signalen

Signal berehalako mezularitza-tresna bat da, segurua, pribatua eta erabilerraza, eta erabiltzailearen pribatutasun-ikuspegia duena. Hona hemen, bere ezaugarri nagusietako batzuk:

- 1 | Segurtasuna eta pribatutasuna:** Signalek muturretik muturrerako zifratzea erabiltzen du solasaldien pribatutasuna babesteko eta haietarako sarbidea elkarrizketan parte hartzen duten pertsonak baino ez dutela izango bermatzeko. Gainera, Signalek ez du erabiltzailearen informazioa biltegitzen, eta ez du daturik biltzen publizitate-helburuetarako.
- 2 | Erabilerraza:** Signalek interfaze intuitiboa eta erabilerraza du, eta horregatik tresna erakargarria da adin guztietako erabiltzaileentzat.
- 3 | Multiplataforma:** Signal hainbat plataformatan dago eskuragarri (iOS, Android, Windows, Mac eta Linux barne), eta horrek aukera ematen die erabiltzaileei aplikazioa instalatua duen edozein pertsonarekin konektatzeko eta komunikatzeko.





4 | Funtzio gehigarriak: Signalek zenbait funtzio gehigarri ditu, hala nola ahots-mezuak, fitxategiak eta kokapenak bidaltzeko aukera, ahots-deiak eta bideodeiak egitekoa eta 1.000 parte-hartzailerekin ere talde-solasaldiak izatekoa.

5 | Pribatutasun-ikuspegia: Signalek erabiltzailearen pribatutasun-ikuspegia du, eta, beraz, tresna ezin hobea da komunikazio-tresna seguru eta pribatu bat bilatzen dutenentzat.

Signalen fitxategiak partekatzea

Signalen fitxategi bat partekatzeko, egin urrats hauek:

- Ireki solasaldirako pertsona edo taldea, zeinarekin fitxategia partekatu nahi duzun.
- Sakatu "+" botoia, pantailaren behealdean, ezkerrean.
- Hautatu "Fitxategia".
- Bilatu partekatu nahi duzun fitxategia eta hautatu.
- Sakatu "Bidali".

Signalen audioa partekatzea

Signal bidez audioa partekatzeko, egin urrats hauek:

- Ireki solasaldirako pertsona edo taldea, zeinarekin ahots-audioa partekatu nahi duzun.
- Sakatu mikrofono-botoia, pantailaren behealdean, eskuinean, eta sakatuta mantendu.
- Esan audioan esan nahi duzuna.
- Askatu mikrofono-botoia grabazioa geldiarazteko.
- Sakatu "Bidali" ahots-audioa partekatzeko.

Signalen kokapena partekatzea

Signalen zeure kokapena partekatzeko, egin urrats hauek:

- Ireki solasaldirako pertsona edo taldea, zeinarekin zeure kokapena partekatu nahi duzun.
- Sakatu "+" botoia, pantailaren behealdean, ezkerrean.
- Hautatu "Kokapena".
- Signalek galdetuko dizu gaur egungo zeure kokapena partekatu nahi duzun edo mapan beste kokapen bat bilatu nahi duzun.
- Hautatu nahiago duzun aukera eta sakatu "Bidali".



Ondorioak

Berehalako mezularitza-tresnak gure eguneroko bizitzaren funtsezko zati bihurtu dira. Tresna horiei esker, azkar eta efizientziaz komunika gaitzke lagunekin, senideekin eta kideekin, edozein unetan eta tokitan, testu-, ahots- eta bideo-mezuen bidez.

Berehalako mezularitza-tresna nagusien artean, WhatsApp, Telegram eta Signal nabarmentzen dira. Tresna bakoitzak berezko ezaugarriak ditu, erabiltzaile desberdinentzat erakargarri egiten dituztenak. WhatsApp da tresnarik ezagunena, 2 mila milioi erabiltzaile aktibo baino gehiago baititu, eta erabilerraztasunagatik eta fitxategiak partekatzeko eta ahots-deiak eta bideodeiak egiteko gaitasunagatik nabarmentzen da. Telegramek, bestalde, erabiltzailearen pribatutasuna eta segurtasuna ditu ardatz, eta funtzio gehigarriak eskaintzen ditu, hala nola berri-kanalak eta 200.000 kide ere har ditzaketen taldeak. Signal, azkenik, ezaguna da bere segurtasunagatik eta pribatutasunagatik, eta bideodeiak eta 1.000 parte-hartzaile ere har ditzaketen taldeak eskaintzen ditu.

Oro har, berehalako mezularitza-tresnek komunikatzeko modua eraldatu dute eta konektatuta mantentzen gaituzte. Hala ere, garrantzitsua da tresna horien erabilerarekin lotutako arriskuez jabetzea, hala nola datu pertsonalen pribatutasunaz eta segurtasunaz. Gomendagarria da tresna seguru eta fidagarriak erabiltzea, gure pribatutasuna babesteko eta gure datu pertsonalen babesa bermatzeko.





DigitAll

Komunikazioa eta
elkarlana

2.3

TEKNOLOGIA DIGITALEN BIDEZKO HERRITARREN PARTAIDETZA





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.3 Teknologia digitalen bidezko
herritarren partaidetza

Sare neuronalak





Sare neuronalak

Sarrera

Zein da intimitatearen prezioa? Zergatik dira hain baliotsuak datu pertsonalak non *meategietan* "ustiatzen" diren? Jateko ez ezik, zertarako balio dute *cookie*ek? Zer da *itzal-profil* bat? Sare neuronalek haurtxoak balira bezala ikasi behar dute? Zergatik jotzen dira ahultzat edo mugatutzat gaur egun sortzen diren adimen artifizial guztiak? Zer probabilitate dago *superadimen artifizial* bat sortzeko? Posible da nork bere burua "kamuflatzea" Interneteko bere jarduera arakatzea saihesteko? Nola "irakur" daiteke aurpegi bat?

Dokumentu honek A2C23B2V03 bideoa osatzen du ("Sare neuronalak erabiltzaileen profilaketan"), eta sare neuronalak praktika sozial jakin batzuk nola iraultzen ari diren erakusten duten adibide batzuk ematen ditu.



SARE NEURONALAK ERABILTZAIILEEN PROFILAKETAN

Erabiltzaileak profilatzeko sare neuronalen erabilerari buruzko alderdietan sakontzen duen azalpen-bideoa. Bideo hau B1 mailan emandako azalpen orokorraren jarraipena da.
e.digitall.org.es/A2C23B2V03

Sare neuronal bat entrenatzea

"Sortzen denean", sare neuronal bat entrenatu egin behar da, sorrerako helburua bete dezan. Entrenamendu-fasea da gogorrena, zehatz-mehatz egiten baita. Neurri batean, oinez hasi eta, orientatzeko ahaleginean, etengabe estropezu egiten duten haurtxoekin alderatu daitezke sare neuronalak. Zeregin berberak errepikatzen dituzte behin eta berriz, horiek efizientziaz gauzatzea lortu arte.

Haurren metaforarekin jarraitzeko: haurtxoak eseri eta haiekin lan egin dezakegu, hau da, gainbegiratutako ikaskuntza sustatu (eta gauza bera gertatzen da sare neuronal batekin), edo bestela, jostailu bat haien esku jarri eta jostailuarekin zer egiten duten behatu dezakegu, gainbegiratu gabeko ikaskuntza batean (era berean, sare neuronal bere burua hobetzen doa).



Baina, haurtxoei ere gertatzen zaien bezala, sortu berri diren sare neuronalek "gurasoekiko" elkarreragina izan behar dute, hau da, beren sortzaileekikoa, ezagutzak eskuratu ahal izateko.

Sare neuronal baten entrenamendu-fasea da gogorrena, zehatz-mehatz egin behar baita.

Sare neuronalek gizakiek baino milioika aldiz azkarrago eboluziona dezakete. Hain zuzen ere, elkarrekin konektatuta daudelako. Baina horrek, batzuetan, nolabaiteko kezka sortzen du, inork ez baitaki, zehatz-mehatz, zein izan daitekeen bilakaera horren emaitza. Sare neuronal bat aurreikusitako garapen-planetik gehiegi urruntzen bada eta portaera inkoherentea badu, programatzaileak deskonektatu egin dezake, egitura aldatu, eta sorkuntza berri bati ekin diezaioke. Oraingoz behintzat...

Sare neuronal baten entrenamenduari esker, adimen artifizial bat (AA) garatu ahal izango da. Konplexutasun-maila kontuan hartuta, AAK hiru motatakoak izan daitezke. Lehenik eta behin, AA estuaz (ANI) hitz egin liteke (*mugatua* edo *ahula* ere esaten zaio), giza adimenari esleitutako trebetasunetatik oso urrun baitago oraindik. Algoritmo eta sare neuronal konplexuek bultzatutakoa bada ere, zeregin bakarra egiteko gai da. Adibidez, Internet bidezko bilaketak, aurpegi-ezagutza eta ibilgailu autogidatuen mugimendua.

Sare neuronalek gizakiek baino milioika aldiz azkarrago eboluziona dezakete.

Bigarrenik, AA orokorra (AGI) identifika daiteke. Aurrekoak bezala, horrek ere esperientziatik ikasteko eta patroiak antzeman eta aurreikusteko gaitasuna izango luke. Hala ere, edozein zeregin intelektual egitera ere iritsi liteke, gizaki baten pare. Are gehiago, ezagutza harago estrapolatzeko eta gaur egungo algoritmoekin eta aurretik eskuratutako datuekin orain arte landu gabeko zereginak egiteko haren gaitasunaz espekulatzen ari da.

Zientzialari batzuen ustez, AA orokorra AA estu batetik sortuko litzateke, baina oraindik ezin da jakin nola (oraingoz, AA estuak baino ez daude). Agian, AA estuaren motak tamaina handiko sare neuronal batean konektatuz. Sare hori eboluzionatzen





joango litzateke bere gailuak erabiltzen ikasita; adibidez, haurtxo bat bere gorputz-adarrekin ohitzen hasten den moduan. Hain zuzen ere, "Gauzen Internet" (IoT ere esaten zaio, ingelesez) printzipio horretan oinarritzen da. Printzipio horrek azaltzen du nola konekta daitezkeen hainbat etxetresna elektriko sare batekin (eta, horrela, elkarrekin ere konektatzen dira) eta nola jardun dezaketen erabiltzaile batekin.

Gehiago jakiteko

"Gauzen Internet" izena okerrekotzat jotzen da, gailuek ez baitute Internet publikoarekiko konexiorik behar. Sare batekin bakarrik konektatuta egon behar dute. Oro har, *etxe adimendunaren* kontzeptuarekin lotzen da (argiztapen-gailuak, termostatoak, segurtasun-sistemak, etxetresna elektrikoak eta abar). Gaur egun, industria eta gobernua neurriak hartzen hasi dira haren erabilera orokortuak ekar ditzakeen pribatutasun-arazoak eta arriskuak konpontzeko.

fijdjournal.com/that-internet-of-things-thing

Azkenik, *AA superadimen artifiziala (ASI)*, modu hipotetikoan, sistema autokontzienteek osatutako AA gisa ulertzen da, imitazio hutsetik harago giza portaerak ezin hobe ulertzeko ahalmenarekin. Analisi- eta prozesatze-ahalmen askoz handiagoa izango luke gizateriak baino. Zientzia fikziotik (kasu batzuetan, esparru zientifikotik ere bai) espekulatu da IoT gailu askoren arteko interkonexioak ASI bat bat-batean sortzea eragin lezakeela. Adibidez, gure ordenagailuen eta telefono adimendunen kameren bidez, ASIak mundu erreala ikus lezake, gure mikrofonoen bitartez entzun, droneei esker mugitu eta abar. Hala ere, bere burmuina orojakilea izango litzateke, baina ez ahalguztiduna. Ibiltzeko hankak eman arte behintzat...



Datua da AAre munduko kapital handiena

Epigrafe honi izenburua ematen dioten hitzak Microsoft España-ko presidente Alberto Granadosek egin ditu orrialde hauek idazteko unean (2023ko martxoa). Gaur egun, datuak ezinbestekoak dira konpainiek irabazi-marjina handiagoak eskura ditzaten eta lehiakorragoak izan daitezzen.

Sare neuronal batzuk internauten profilak ezartzeko sortu dira; aplikazio, produktu edo zerbitzu jakin baten erabiltzaileak hobeto ezagutzeko aukera ematen dute profil horiek. Gaur egun, gero eta enpresa gehiagok dituzte esperientzia digitalaren analitika-plataformek emandako datuak. Informazio ugari ematen diete bezeroei buruz (edo bezero potentzialesi buruz).

Horrelako plataformek erabiltzaile batek web-orri jakin batean egindako ekintza guztien miaketa anonimoa egiten dute. Adibidez, saguaren mugimendua, klikatutako estekak edo pantailaren goialdetik behealderako desplazamenduak (*scrolling*). Jarduteko modu horrek enpresa batek haren online-kanaletan erakusten dituen edukietako bakoitzaren oihartzuna ezagutzeko aukera ematen du.

Esperientzia digitalaren analitika-plataformek erabiltzaile batek web-orri batean egindako ekintza guztiak arakatzen dituzte.

Kasu batzuetan, plataforma birtual batekin jarduten denean sortutako *frustrazio-tasa* ere kuantifika daiteke. Horri esker, hobekuntza-aukerak detekta daitezke, bereziki trafikoa monetizatzen duten webguneetan eta *e-commerce*-a lehenesten duten negozioetan.

Gaur egun, bezeroen profil bat egin nahi duten enpresek haien datuak beraiek atzemandu baino ezin dute hori egin. Hala ere, 2023ko urtarrilera arte ez zen hala, Googlek hirugarrenen *cookie*-ak arakatzen baitzituen haien publizitate-kanpainetarako, bai eta Google Chrome bilatzailean ere. Baina enpresek dagoeneko ezin dute Google horretarako erabili.





Galleta bat baino askoz gehiago.

Cookieak testu-fitxategi txikiak dira, eta bisitatzen dituzten web-orrietara sartzen diren internauten ekipoetan gordetzen dira. Helburu bikoitza dute. Alde batetik, webguneek haietara konektatzen diren erabiltzaileen identitatea ezagutzeko eta sarbidea errazteko aukera dago (adibidez, pasahitz bat berriro idazteko beharrik izan gabe).

Bestetik, erabiltzaileak bertan egiten dituen ekintzen jarraipena egiteko aukera ematen diote guneari. Horrela, gunea hobetu dezakeen informazioa biltzen dute eta, aldi berean, bisitarien interesak ezagutu ditzakete. A2C23B2V03 bideoan adierazi den bezala, sare neuronal sakonek zehaztasunez ikas dezakete datuetatik, eta erabiltzaile baten jokabide-ereduak deskubritu.

Hainbat cookie mota dago. Hauek dira ohikoenak:

- **Cookie propioak:** bisitatutako web-orriaren editoreak berak kudeatutako beste ekipo edo domeinu batetik bidaltzen dira erabiltzailearen terminalera.
- **Hirugarrenen cookieak:** web-orri bateko bisitariari bidaltzen zaizkio, ez orri horretatik, baizik eta *cookieen* bidez lortutako datuak tratatzen dituen beste erakunde batetik.
- **Cookie teknikoak:** web-orri, aplikazio edo plataforma baten bidez nabigatzeko eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzeko aukera ematen dute.
- **Saioko cookieak:** erabiltzaileak webgune batean saio bat irekitzen duenean lortutako datuak biltegiratzen dituzte.
- **Analisi-cookieak:** erabiltzaileen jokabidea ezagutzeko eta aztertzeo aukera ematen diete webgune bateko arduradunari edo hirugarrenei .
- **Publizitate-cookieak:** web-orri, plataforma edo aplikazio bateko publizitate-espazioen kudeaketara bideratuak.
- **Jokabide-publizitateko cookieak:** aurrekoak bezala, publizitate-espazioak kudeatzeko erabiltzen dira. Baina, gainera, bisitariak webgune batean dituzten nabigazio-ohiturak etengabe aztertzeo aukera ematen dute. Horri esker, bisitari-profil bakoitzerako publizitate espezializatua gara daiteke.



i Gehiago jakiteko

Google Analytics *cookie*tan oinarritutako esperientzia digitalaren analitika-plataforma bat da. Googleko bilaketek edo Google Chrome bidezko nabigazioak milioika *cookie* sortzen dituzte, Delawareko konpainia horrek Ameriketako Estatu Batuetako bere zerbitzarietan artxibatzen dituena. Googlek informazio hori erabiltzen du webgune jakin bati buruzko txostenak biltzeko eta publizitate digitalaren negozioan zerbitzuak emateko.

analytics.google.com

Erabiltzaileak profilatzen

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) Europar Batasuneko herritar guztien datu pertsonalez subjektu, enpresa edo erakundeek egindako tratamendua arautzen du. Espainian 3/2018 Lege Organikoa ere badago, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Zibilak Bermatzekoa. Araudi horren arabera, bereziki babestutako datuak honako hauei buruzko informazioa ematen dutenak dira: ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa, sinesmenak, arraza- edo etnia-jatorria, osasuna, sexu-bizitza, datu genetikoak eta biometrikoak, eta kondena eta arau-hauste penalei buruzko datuak.

Hala ere, konturatu gabe, norbanakoak berak bere buruari buruzko informazio bereziki babestua eman dezake, edo hirugarrenek hura tratatzea baimendu dezake, baimen-eskaera baten letra txikia irakurri gabe.

Erabiltzaile batek Interneten argitaratzen duen informazio oro, eta egiten duen edozein ekintza, sare neuronal batek arakatu, katalogatu eta azter dezake profil pertsonal sofistikatu bat sortzeko, eta, batzuetan, profil horrek oso datu pertsonalak ere izan ditzake, hala nola historia medikoa, erlijioa edo bikote-harremanaren egoera.

Adibidez, A2C23B2V03 bideoan agerian geratu da sare neuronal errepikariak erabiltzen direla internauta baten bilaketa-historiaren bidez lortutako iraganeko datu-sekuentziak prozesatzeko.

Erabiltzaile baten Interneteko informazio eta ekintza oro arakatu, katalogatu eta aztertu daiteke.



**SARE NEURONALAK
ERABILTZAILEEN
PROFILAKETAN**

e.digitall.org.es/A2C23B2V03



Beste adibide bat: internautek Facebookera igotzen dituzten edukiak arakatuta, sare neuronal batek erabiltzaileen profilaketa ez ezik haien lagunena ere egin dezake, nahiz eta sare sozial horretan konturik ez izan. Hori da *itzal-profilaren* izenarekin ezagutzen dena. Hala, bi erabiltzailek sare sozial horretatik kanpoko hirugarren bat aipatzen badute, AAK egiaztatu lezake erabiltzaile horiek Facebookeko aplikazioa instalatua duten telefono adimendunetan. Gogoratu behar da aplikazioa instalatu zenean telefono mugikor horien datuetara sartzeko baimena eman zitzaiola. Beraz, sare neuronalak "itzalean dagoen erabiltzaile" horren aipamenak kontsulta litzake telefono horietan.

Nola libratu miaketa batetik

Sare neuronalek algoritmoekin jarduten dute. Edukiak antolatzeaz eta iragazteaz arduratzen dira algoritmoak. Sare sozial bakoitzak bere algoritmo propioa du. Horrela, Twitterren dugun jokabidearen jarraipenetik abiatuta, aplikazio horrek aurreikusi dezake zer argitalpen interesatzen zaizkigun gehien. Horretarako, adibidez, mezuak zein puntu geografikotatik argitaratzen ditugun edo zein profilekin jarduten dugun kontuan hartzen du.

Algoritmoak oso errentagarriak dira publizitate-arloan ere. Izan ere, haiek erabakitzen dute zein iragarki erakutsiko zaizkigun, gure interesekin ahalik eta ondoen bat etor daitezzen horiek. Erabiltzaile batek baimen guztiak onartzen baditu, blokeatu beharrean, aplikazioek erraz jakin dezakete baita norekin dagoen ere. Horren ondorioz, askotan, *antzeko audientzia* gisa ezagutzen den publizitate-irizpidea erabiltzen dute, non pertsona bat haren hurbilekoen zaletasunei buruzko publizitatearekin zirikatzen saiatzen diren. Erabiltzaile beraren gailu profesionalen eta gailu pertsonalen arteko "kutsatzeak" ere gerta daitezke. A2C23B2V03 bideoan erakutsi den bezala, mota horretako ekintzak entropia handieneko sare neuronalek egiten dituzte.



SARE NEURONALAK
ERABILTZAILEEN
PROFILAKETAN

e.digitall.org.es/A2C23B2V03



Algoritmoak oso errentagarriak dira publizitate-esparruan.

Hala ere, egoera 2021eko udazkenean aldatzen hasi zen, iPhone-ren azken ereduak kaleratu zirenean. Horien bidez, jabeek aplikazio batean egindako nabigazioaren arrastoa blokea dezakete. Androiden sistema eragile berriek ere aukera ematen dute aplikazioek mugikor baten gainerako baliabideetarako sarbidea izateko soilik horiek erabilgarri daudenean. Hartara, WhatsAppek gure mikrofonoa entzun ahal izango du soilik aplikazio hori irekita dugunean. Horren guztiaren ondorioz, aplikazioek informazio gutxiago dute erabiltzaileei buruz, eta, beraz, okerrago ezagutzen dituzte haien interesak.

Zein da intimitatearen prezioa?

Normalean, erabiltzaileek identifikatu ohi dute, Interneten egiten dituzten ekintzetatik, zeinek eragin duen, adibidez, salgai dauden etxebizitzetako buruzko iragarkiak jasotzea. Hala ere, nabigatzen den bitartean *cookie*en miaketa blokeatzeko gero eta modu gehiago daude. Horrek norberaren intimitatea babesteko aukera ematen du.

Adibidez, zenbait internauta poztu egin daitezke bilatzen ari ziren etxebizitzak prezioa jaitsi duela jakiteagatik, baina agian beste batzuek ez dute gustuko sare neuronalek beren interesak ezagutzea. Hala ere, *cookie*ak blokeatzearen ondorioz, aplikazioek internauta "bonbardatu" dezakete, bereizi gabe, haren gustuekin inolako harremanik ez duten iragarkiekin.

Gauza jakina da, halaber, herritarren datu pertsonalak helburu politikoetarako erabiltzen direla. 2010eko hamarkadan, Cambridge Analytics aholkularitza-enpresak Facebookeko 87 milioi profilen datu pertsonalak bildu zituen. Horiek propagandarako erabili ziren 2016ko presidentetza-hauteskundeetan Ted Cruzek eta Donald Trumpekin egindako kanpainenetan. Britainia Handiko aholkularitza-enpresa horri urte horretan bertan egindako Brexitaren erreferendumean esku hartzea ere leporatu zioten. Baina emaitzan izandako erantzukizun-maila ezin izan da oraindik argitu.





Facebookek barkamena eskatu zien nahastuta egon zitezkeen erabiltzaileei, eta Mark Zuckerbergegek, zuzendari exekutiboak, lekukotza eman behar izan zuen Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuan. 2019ko uztailean, Merkataritzako Batzorde Federalak 5.000 milioi dolarreko isuna ezarri zion konpainiari, pribatutasuna urratzeagatik. Eta urte horretako urrian, 500.000 librazio isuna ordaindu behar izan zion Erresuma Batuko Informazio Mandatariaren Bulegoari. 2018ko maiatzean, Cambridge Analyticsek kiebra-egoera deklaratu zuen Ipar Amerikan.

Aurpegia "irakurtzeko" softwarea


Sare neuronalak, gure datuetarako sarbidea izateaz gain, gure aurpegiko zentimetro bakoitza ezagutzera iritsi daitezke batzuetan. Aurpegia ezagutzeko teknologiak gai dira gizabanakoen aurpegierak aztertzeo, bai segurtasun-helburuekin, bai merkataritza-helburuekin. Gainera, horrelako teknologiek itsuei edo alzheimerria dutenei lagun diezaiekete.

A2C23B2V03 bideoan erakutsi da sare neuronal konboluzionalek irudiak eta bideoak prozesa ditzaketela. Horri esker, datu bisualetatik ikasi eta haietan patroik konplexuak ezagutu ditzakete.

Aurpegia ezagutzeko teknologiaren erabilerarik hedatuenetakoa bat aireportuetan egiten da, segurtasuna zaintzeko: pasaporte batean inprimatutako irudia eta haren eramailearen aurpegierak bat datozen egiaztatzeo, alegia. Baita kriminalak identifikatzeko, desagertutako adingabeak bilatzeko eta dokumentu-iruzurraren aurka borrokatzen laguntzeko ere.

Sare neuronalek, gure datuetarako sarbidea izateaz gain, gure aurpegiko zentimetro bakoitza ere ezagutu dezakete.

Hala ere, eskubide zibilen alde diharduten gero eta erakunde gehiagok salatzen dute teknologia horrek gehiegi inbaditzen duela herritarren intimitatea, eta gutxiengo etnikoen aurkako polizia-isuriak betiketzen dituela.





Adibidez, 2018an, American Civil Liberties Unione (ACLU) frogatu zuen aurpegia ezagutzeko Amazonek garatutako sistemak (Amazon Rekognition System), 535 aurpegi aztertu ondoren (Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuko kideenak, hain zuzen), 28 susmagarri kriminal gisa identifikatu zituela; horietatik 11 beltzak ziren. Kontuan izan behar da, une hartan, kongresukide guztien % 20 baino ez zela arraza horretakoa; beraz, sistemak kalte handiagoa egin zien haiei ustezko kriminalak identifikatzerakoan.



SARE NEURONALAK ETA ISURIA ADIMEN ARTIFIZIALEAN

Orrialde hauetan gehiago sakontzen da adimen artifizialeko sistemen erabilerak dakartzan arazo nagusietan, batez ere isuriari dagokionez.

*Erreferentzia-dokumentua: **A2C23C1D01***

2019an, Googlek aurpegi-ezagutzari buruzko bere ikerketa-programa geldiarazi behar izan zuen, *The New York Daily News* egunkariak agerian utzi ondoren Ipar Amerikako teknologia-erraldoiak teknologia hori hobetzeko kontratatutako enpresetako batek etxerik gabeko pertsona afro-amerikar askoren aurpegia eskaneatu zuela. Trukean, bost dolarreko opari-txeke bat baino ez zuten eskuratu.

2020ko urtarrilean, Londresko poliziak denbora errealean aurpegiak ezagutzeko kamerak jarri zituen hiri osoan, krimenari aurre egiteko. Komunikatu baten bidez, arduradunek azaldu zuten teknologia mota hori beren lanaren osagarri gisa erabiltzen zela, agenteei gaizkileak aurkitzen laguntzeko. Dena den, gizarte zibileko hainbat elkartek erabakiaren kontrako jarrera azaldu zuten, Netflixen ikusgai dagoen "Coded bias" dokumentalean ikus daitekeen bezala.

Gehiago jakiteko

Ameriketako Estatu Batuetako Northwestern University unibertsitateko ikertzaile batek egindako artikulua batek dioenez, betaurrekoek sare neuronalak nahasteko eta, horrela, aurpegi-ezagutzeko balio dezakete. Betaurrekoak tinta-injekzioko inprimagailu batekin egin zituzten, zeinak betaurrekoen markoa paper satinatu batean inprimatu zuen, gero betaurrekoen benetako marko batean jartzeko. Horrela, aurpegiko irudiaren pixelak aldatzea eta aurpegia ezagutzeko softwarea engainatzea lortu zen.

e.digital.org.es/anteojos



2022ko irailean, Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuaren (JRC ingelesez) Humaint Europako proiektuak 187 enpresaren aurpegi-ezagutzako praktiketan oinarritutako txosten bat ezagutarazi zuen. Lan horrek, *Scientific Reports* aldizkarian argitaratutakoak, lau koloretan oinarritutako semaforo bat ere garatu zuen, arrisku-maila desberdinak zeuzkaten erabilerak identifikatzen laguntzeko.

Aurpegia ezagutzeko softwarea erabiltzea arrisku txikikoa da (kolore berdea) herritarrak honako honetarako identifikatzen direnean: banku-autentifikaziorako, izapide ofizialak egiteko, gailuak desblokeatzeko, mugetako sarbideak kontrolatzeko, edukiera kontrolatzeko edo benetako irudi bat erretratu robot batekin parekatzeko. Oro har, erabilera horietan herritarrak bere borondatez ematen du baimena.

Bigarren arrisku-maila (horia) datu pertsonalak detektatzeko aplikazioek dute, hala nola sexua edo adin-tartea, argazkietako irribarreak, iragarkien pertsonalizazioa, bezero baten gogobetetze-mailaren balorazioa edo bideojoko batean izandako esperientzia emozionala. Erabilera horretarako, ukitutakoak informatu behar dira, gardentasun handiagoa izateko.

Aurpegia ezagutzeko softwareak hainbat arrisku-maila izan ditzake.

Azkenik, debekatutako edo arrisku handiko aplikazioen artean (kolore gorria eta beltza), honako hauek daude: kamera, drone edo robotak erabilia pertsonen jarraipena egitea, irudi pertsonalen bidez katalogatzea, sare sozialetako erabiltzaileak lokalizatzea, bezeroak identifikatzea tratu berezia emateko, edo mugarik gabeko aurpegi-ezagutzak.

Ultrafaltsuak

Deepfake izenekoak sare neuronalen bidez egindako bideo hiperrealisten muntaketak dira. Irudien eta soinuaren manipulazioan oinarritzen dira, edo lehendik dauden bideo eta argazkien erabileran, faltsututako eduki bat sortzeko. AAK lortutako garapenaren ondorioz, kasu askotan, emaitza benetakoa dela dirudi.

2023ko martxoan argitaratutako albiste baten arabera, une hartan *deepfake*ek 134 milioi bistaratze baino gehiago zituzten





Interneten. Kasuen % 90ean, haietan agertzen ziren pertsonen baimenik gabe sortutako bideo pornografikoak ziren. Praktika horiei buruzko lehen salaketa publikoa 2017koa da. Bertan, aplikazioa nolabaiteko garrantzi publikoa zuten emakumeak biluzteko erabiltzea leporatu zitzaion Redditen erabiltzaile bati.

Deepfakeak sortzeko aukera ematen duten aplikazioak gero eta merkeagoak eta eskuragarriagoak dira.

Duela gutxi, Ipar Amerikako 29 urteko QTCinderella eduki-sortzaileak (oso ezaguna da Twitch zuzeneko emankizunen plataforman agertzeagatik) salatu zuen bere irudietatik sortutako sekuentzia pornografiko hipererrealista baten hedapen masiboaren biktima izan zela. Aitortu zuenez, horrek kalte psikologiko handia eragin zion.

Gero eta aplikazio gehiagok aukera ematen dute itxura errealista duten bideoak sortzeko, herritarrak benetan egin ez zituzten ekintzak egiten erakusten dituztenak. Oso merkeak eta eskuragarriak dira. Are gehiago, audio hipererrealisten sorrera ere zabaltzen ari da.

Hala ere, horien erabilera ez da beti kaltegarria. Adibidez, Holandako polizia 2022ko maiatzean *deepfake* bideo bat egin zuen, hamahiru urteko mutil baten hilketari argitzen saiatzeko. Bideo hunkigarria zen, biktima bizirik egongo balitz bezala irudikatzen zuena. Hiltzailea aurkitzeko laguntza ere eskatzen zuen.

OHARRA

Gaztelaniaz, hobe da, *deepfake* anglizismoaren ordez, *ultrafalso* terminoa erabiltzea. Fundación del Español Urgente (Fundéu) fundazioaren arabera, zeina espainiera zuzen erabiltzeko autoritate nagusietako bat den, *ultrafalso* adjektiboak (bideo horiek aipatzeko substantibo gisa ere erabil daitekeena) ingelesezko bi kontzeptuak biltzen ditu. Alde batetik, *ultra-* aurrizkiak *deep* duen erabilera metaforikora garamatza ("sakona"). Bestalde, *fake falso* gisa itzuli da.

e.digitall.org.es/ultrafalso



Ondorioa: lanbide berriak mundu berri baterako

Pixkanaka-pixkanaka, orain arte pentsaezinak ziren lanpostu ugari sortzen ari dira: datu-zientzialaria (*data scientist*), garatzaile informatikoa (*full stack developer*), hodeiko arkitektoa (*cloud architect*)... Batzuk hain dira berriak ezen ez diren oraindik espainierara itzuli: *AI prompter*, esaterako. Izen horrekin ezagutzen da aplikazio berriak, hala nola ChatGPT edo DALL-E, komando egokiekin hornitzeko gai dena (haien sare neuronalekin jardun eta aginduak transmititu ahal izateko). Horrelako enpleguek STEM graduen prestakuntza eskatzen dute (hau da, Zientzien, Teknologiaren, Ingeniaritzaren edo Matematikaren espezialitatetakoak).

Beste batzuentzat, aldiz, gomendagarria da Komunikazioa edo Publizitatea eta Harreman Publikoak bezalako graduetako prestakuntza. Horiek marketin digitalaren esparruarekin daude lotuta: baliabide digitalen planifikatzailea (*digital media planner*), analista digitala (*digital analyst*), eresketa programatikoaren arduraduna (*programmatic trader*), ilustrazio-espezialista (*artwork specialist*) edo zuzendari omnikanala (*omnichannel*).

Badira, halaber, hainbat plataformaren ezagutza tekniko eta errealitate areagotua (AR) edo errealitate birtuala (VR) sortzeko sormena uztartzen dituen prestakuntza hibridoa eskatzen duten lanbideak. Hori da metabertso-espezialistaren kasua (*metaverse planner*). Eta bloke-kateko adituarena, ekonomiari eta programazio-lengoaiei buruzko ezagutzak izan behar dituenarena.

Pixkanaka-pixkanaka, horrelako enpleguen eskaria gero eta handiagoa da enpresen aldetik. Hala ere, profesional kualifikatuen eskaintza oso urria da oraindik. Horren adibide bat hodeiaren arkitekturaren esparruan dugu, online-sareetan hainbat zerbitzu garatzeari dagokionez. Lan-eskaintza bakoitzean, zazpi hautagai egoki bakarrik aurkezten dira batez beste. Eta zibersegurtasun-arloan are txikiagoa da tasa hori: hautagai bat eta hiru artean. Horren ondorioz, giza baliabideen departamentuek gero eta gehiago inbertitzen dute iragarkietan hautagai kualifikatuak "konkistatzen" saiatzeko, soldata astronomikoen eta lan-baldintza oso onuragarrien bidez.





Günther Anders filosofo alemaniarra 1992an hil zen, eta adierazi zuenez, gaur egun teknologiak inoiz ez bezalako gaitasuna du oraindik ere jaiotzeko dauden belaunaldien etorkizunean eragiteko. Sare neuronalen garapen geldiezinak etorkizun urrunetan eragina izan dezake, eta gizartearen bizikidetzara- arauak ere iraul ditzake. Auskalo, hain urrun ez dagoen garai batean, gizakia ez ote den gai izango sutan dauden espazio-ontziei eraso egiteko Orionetik harago, edo C izpiak iluntasunean dirdiraka ikusteko Tannhauser Atearen ondoan. Baliteke gaur egun ezinbestekoak iruditzen zaizkigun zenbait lanbide denboran galtzea. Malkoak euritan bezala...





Gehiago jakiteko

Diego Jaramillo Arango eta Diego Ignacio Montenegro: "Adimen artifizialek jainkoen jolasetara", *ComHumanitas: komunikaziorako aldizkari zientifikoa*, 10 (3), 85-106 or. Web helbidea: <https://www.comhumanitas.org/index.php/comhumanitas/article/view/210> [2023/03/29].

El Mundo: "Gizateriarentzako erronkarik handiena". Web helbidea: <https://lab.elmundo.es/inteligencia-artificial/riesgos.html> [2023/03/29].

Carlos Santana Vega: "AAren etorkizuna: itxaropenetatik harago". Web helbidea: <https://www.youtube.com/watch?v=Nzj-NJOWb54> [2023/03/29].

UNESCO: *Adimen Artifizialaren Adierazpen Unibertsala*, 2021. Web helbidea: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000378931> [2023/03/29].



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.3 Teknologia digitalen bidezko
herritarren partaidetza

Herritar-karpeta





Herritar-karpeta

Zer da Nire Herritar-karpeta?

Nire Herritar-karpeta online-espazio pertsonala da, herritarren eta administrazio publikoen arteko harremana errazten duena.

Nire Herritar-karpetak administrazio publikoetara hurbiltzen gaitu, eta haiekin komunikatzeko lotura gisa balio du.

Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jarduna eta funtzionamendua arautzen ditu. Nire Herritar-karpeta bitarteko horien artean dago.



HERRITAR-KARPETA: ESKURAGARRI DAGOEN INFORMAZIOA

Herritar-karpetari buruzko bideoa, herritar-karpeta erabiliz zer izapide eta dokumentaziotarako sarbidea dugun zehazten duena: jakinarazpenak, administrazioen artean datuak partekatzea eta abar.

e.digitall.org.es/A2C23B2V07

Nire Herritar-karpetaren arauketa

Administrazioen betebeharrak eta eskubideak definitzen dituzten legeek arautzen dute Nire Herritar-karpeta.

- **39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, jasotzen du nolakoak diren harreman horiek.
- **40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak**, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, definitzen du nola erlazionatzen diren pertsonak administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez.
 - Era berean, herritarren sarbideak ere nolakoa izan behar duen jasotzen du, hura errazteko.
 - Administrazio publikoetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiliz sartzeko modua lehenesten da.
 - Erabilera horren helburua da kudeaketaren efizientzia hobetzea, eta, aldi berean, administrazio publikoen arteko harremana, lankidetzeta eta kooperazioa indartzea eta hobetzea, herritarren erabilera errazten duen karpeta komun baten barruan.



- **11/2007 Legea, ekainaren 22koa**, administrazioak herritarrekin elektronikoki dituen harremanak arautzen dituena.
- **1671/2009 Errege Dekretua, azaroaren 6koa**. Izapidetze elektronikoa administrazio-prozedurak eta herritarren eta administrazioen arteko harremanak kudeatzeko modu berri gisa hartzen duena.

Araudia administrazioak hobetzera bideratuta dago, eraginkorragoa izan dadin; izan ere, gaur egun, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta sareen bidez elkarrekin konektatutako bitarteko elektronikoak erabilia egiten baitira izapideak. Administrazio-prozedurak, horien izapidetze elektronikoa eta herritarrekiko harremana bermatzen dituzte. Horrela, bitarteko elektronikoak erabil daitezke, nahitaezkoak edo borondatezkoak izan.

Harreman mota horrek beste helburu bat du: administrazio-jardunaren gardentasuna eta pertsonen Administrazio Elektronikoan duten parte-hartzea hobetzea. Harreman hori sustatzeko, Herritar-karpeta sortu da Estatuko sektore publikoan. Lehen aipatutako legeek arautzen dute zer eduki eta zerbitzu eman behar dituzten administrazioek, egoitza elektronikoek eta erregistroek. Horiek guztiak elkar lotuta daude eta garrantzi handia dute Herritar-karpetarentzat, edukiak egiaztatzeko aukera ematen dute eta.

Sarbide-puntu nagusi elektronikoa eta Nire Herritar-karpeta

Beste faktore garrantzitsu bat da administrazioekiko harremanak modu erraz eta argian eta eraginkortasunez ezarri ahal izatea, erabilitako kanal eta gailu elektronikoa edozein dela ere.

Administrazioek herritarrekin duten harreman elektronikoa **martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak** arautzen du (sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardun eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartzen duena). Errege-dekretu horren I. Tituluan, honako hauek arautzen dira: Interneteko atariak, **Sarbide-puntu nagusi elektronikoa**, egoitza elektronikoak, zure informaziorako sarbide-gunea, administrazio-izapideak eta Administrazio Publikoaren esparruko jakinarazpenak eta komunikazioak. Hori guztia "Herritar-karpetan" aurki dezakegu.



Errege Dekretu horren 8. artikulua Estatuko sektore publikoaren Herritar-karpetari buruzkoa da. 7.3 artikulua dio **sarbide-puntu nagusi elektronikoek** egoitza elektronikoa bat izango dutela. Bertan, administrazioaren egoitza elektronikoa guztietara sartu ahal izango gara. Horrek informazioaren osotasuna eta datuen konfidentzialtasuna bermatzen dituen erabiltzaile bakoitzarentzako berariazko eremu bat barne hartzen du. Espazio horretan, geure informazioa ikusi ahal izango dugu, eta egindako izapideen egoera eta zer egoeratan dauden ikusi. Administrazioen egintzak ere jakinarazi eta komunikatu ahal izango dizkigute.

Nola erabili Nire Herritar-karpeta?

Herritar-karpeta pertsona bakoitzak eskura dezakeen espazio bat da, eta administrazioek hari buruz duten informazio asko agertzen da bertan. Karpetara haren jabea baino ezin da sartu, eta, gainera, araututa dago interesdunaren legezko ordezkariak ere sartu ahal izatea.

Ikus dezakegunez, Nire Herritar-karpeta erabiltzaile bakoitzaren eremu pertsonalizatua da. Publikoa eta estatuarena lotzen dituen ataria da, herritarrak estatuko administrazioa sartzeko puntua. Karpeta horretara jabea, haren legezko ordezkariak edo horretarako baimena ematen duen ahalorde orokor bat dutenak sar daitezke.

Herritar-karpetara sartzeko, sarbide-puntu nagusi elektronikoaren Egoitza Elektronikora jo behar da. Horren bidez, honako hauek egin ditzakegu:

- Administrazioan ditugun izapide eta prozeduren jarraipena egin (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 53.1.a artikulua)
- Administrazio publikoen komunikazio eta jakinarazpenetara sartu.
- Jakin gurekin eta gure jarduerekin lotutako zein datu dauden eskuragarri administrazioarentzat, eta zeintzuk diren datu horiek erabiltzeko legeriak ezarritako mugak.
- Herritar-karpetaren bidez, ziurtagiriak erraz, arin eta azkar lor daitezke, ziurtagiri horiek lortzeko izapidea bizkortuta.





- Sarbidea urriaren leko 39/2015 Legearen 9.2 artikulua arautzen du, eta horiek bermatzen dute herritarren sarbidearen segurtasuna. Legeak honako sistema hauek jasotzen ditu: aitortutako ziurtagiri elektronikoak edo sinadura elektronikoko kualifikatuak. “Ziurtatze-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan”, gako itunduan eta administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistematan sartuta dauden emaileek, ezarritako termino eta baldintzetan, emandako aitortutako ziurtagiri elektronikoetan edo zigilu elektronikoko kualifikatuetan oinarritutakoak.
- Bestalde, erabiltzaileek dute Herritar-karpetari lotutako kontuetara modu seguruan sartzearen ardura, bai interesduna bera sartzan denean, bai hark baimendutako pertsonak sartzan direnean.

Nire Herritar-karpetaren antolaketa administrazio publikoaren menpe dago. Bera arduratzen da herritarrei sarbidea emateaz eta prozedura seguruak erabiliz sartu ahal izateko erregelamendua betearazteaz (59. artikulua, Estatuko sektore publikoa Herritar-karpetari atxikitzeari buruzkoa). Horrela, modu seguruan sar daiteke bertara, eta datu pertsonalen osotasuna eta konfidentziasuna bermatzen dira. Kasu honetan, Herritar-karpetara sartzeko erabili dugun puntuak ez du garrantzirik, sarbide guztiek seguruak izan behar dute eta.

Gure Herritar-karpeta honako orri honen bidez aktibatzen da: carpetaciudadana.gob.es/carpeta/clave.htm. Horretarako, sarbide-metodo seguruaren bat izan behar dugu, ziurtagiri digitala edo gako bidezkoa duena.



Nola sartu Herritar-karpetara eta izapideak egin

Nire Herritar-karpetaren web-orriak berak ematen digu sartzeko bitarteko ohikoenen berri, bertara sartu ahal izateko.

Herritar-karpeta arautzen duen legeak jasotzen duen moduan, erabiltzaileak honela identifikatu behar du bere burua:

- G@koa,
- NAN-e,
- Aitortutako beste ziurtagiri elektronikoz batzuk (normalean, Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalak ziurtatutakoak)
- PIN g@koa eta g@ko iraunkorra.

Administrazio publikoen aurrean identifikatzeko modu horiek guztiak egiaztatuta daude eta webaren bidez egin daitezke.

Ikusten da administrazio askotan izapideak sareen bidez egin ditzakegula, eta nola laguntzen digun Herritar-karpetak.

Haren erabilerak honako honetarako aukera ematen digu:

- Administrazioekin komunikatzea.
- Gure datu pertsonalak eskuratzea.
- Gogoraraztea organismoekin zer hitzordu ditugun eta izan ditugun.
- Administrazioei kontsultak eta eskaerak nola egin azaltzen du.
- Iristen zaizkigun jakinarazpenak erakusten ditu, zentralizatuta daudenak, horietako askotarako sarbidea toki bakar batean izanda (horrek aukera ematen digu gure dokumentazioa modu eraginkorragoan antolatzeko).
- Espedienteetara sartu eta haien izapidea zein egoeratan dagoen ikus dezakegu.
- Administrazioen mezuak, oharrak eta alertak jasotzea.
- Espedienteen bilaketa-zenbakietara sartzera, eta hortik erregistrora bidaltzen ditugun dokumentu erantsiak ere berreskura ditzakegu.





Zer datu ditu Nire Herritar-karpetak?

Orriaren barruan gaudela, gure sarbide-datuak ikusiko ditugu lehenik, hau da, gure identifikazioa eta gure nortasun-agiri nazionalaren zenbakia. Hori dela eta, kontuz ibili behar dugu segurtasunarekin, gure datu pertsonal garrantzitsuenak agertzen baitira.

Ondoan, denboran gertuen dauden gertaera garrantzitsuak ikus ditzakegu: ibilgailuen azterketa teknikoaren hurrengo data edo gure NANA berritzea.

Gure agenda osora sar gaitezke, non ekitaldi garrantzitsu guztiak agertzen diren, baita urte batzuk barru egitekoak ere. Aldi berean, orriak gure informazioa antolatzen du, eta gai berriak erakusten dizkigu, zeinetara sartu garen, baita gehien bisitatzen ditugunak ere.

Laburpen pertsonal baterako sarbidea ere badugu, non jakin baitezakegu gure buruari buruzko zer informazio dagoen eskuragarri administrazioarentzat. Atal horretan, parametro batzuk konfiguratu ditzakegu.

Nire gaietan, honako hauetara sar gaitezke:

- **Hezkuntza eta prestakuntza.** Bertan, geure informazio akademikora sar gaitezke.
- **Herritartasuna eta bizilekua.** Horrek aukera ematen digu geure identitate-datuak, beste dokumentu batzuk eta geure errolda-datuak ikusteko eta helbide-aldaketak jakinarazteko.
- **Lana eta prestazioak.** Bertan, lan-bizitza eskatu edo geure pentsioaren simulazioa egin dezakegu.
- **Osasuna eta gizarte-gaiak.** Atal horretan, mendekotasunari, desgaitasunari, geure historia klinikoari edo COVID ziurtagiriari buruzko txostenak eta ziurtagiriak eskura ditzakegu.
- **Egoera pertsonala eta familiarra.** Zigor-aurrekarietarako, familia ugariaren titulurako eta antzeko gaietarako.
- **Garraio-ibilgailuak.** Geure izenean zer ibilgailu dauden eta gidabaimenean zenbat puntu ditugun jasotzen da bertan.
- **Etxebizitza.** Hor gure hiri- eta landa-higiezinak agertzen dira.
- **Gardentasunak** administrazioek guri buruz zer datu trukatzeko dituzten ezagutzeko aukera ematen digu.



- **Nire jakinarazpenak:** sarbide horrek **Gaitutako Helbide Elektronikoa Bakarraren** (DEHÚ) bidez egiaztatzen ditu hainbat administrazioen jakinarazpenak, eta **Taula Ediktal Bakarraren** bidez sar gaitzke.
- **Nire idazkiak eta eskabideak** atalaren bitartez, gure eskabideak zertan diren jakitea.
- **Nire Espedienteetan** gure espedienteak ikus ditzakegu, hala nola Nire Dokumentuak, edo, ohiko galderen bidez edo ADA (Herritar-karpeta orrian txertatutako laguntzaile birtuala) erabiliz, informazio gehiago lortu.

Prozesu horiek guztiek herritarren eta administrazioen arteko komunikazioa arintzen dute, eta datuak eskuratzeko eta administrazioarekin lotutako gaiak azkar konpontzeko aukera ematen digute.

Gehiago jakiteko

Nire Herritar-karpetarako sarbidea (carpetaciudadana.gob.es/carpeta/clave.htm). Bertan, sarbidea ematen digun administrazioetara sartzeko eta haiekin komunikatzeko behar dugun informazio guztia aurki dezakegu.





DigitAll

Komunikazioa eta
elkarlana

2.4

**TEKNOLOGIA
DIGITALEN BIDEZKO
LANKIDETZA**





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.4 Teknologia digitalen
bidezko lankidetzaz

Bertsioen kontrola





Bertsioen kontrola

Sarrera. Hodeian dokumentu kolaboratiboan bertsioak kudeatzea

Dokumentu honek A2C24B2V04 bideoa osatzen du. Google Docsen aplikazioaren bertsioen kontrolari buruzko xehetasunak ematen ditu, Googleren lankidetzaz-tresnen adibide gisa, bai eta OneDriveren testu-fitxategienari buruzkoak ere, Microsoften lankidetzaz-tresnen adibide gisa. Horretarako, urratsez urrats azaltzen du nola berreskuratu hodeian partekatutako eta editatutako dokumentuen aurreko bertsioak.



BERTSIOEN KONTROLA DOKUMENTU KOLABORATIBOETAN

Dokumentu kolaboratiboan bertsioak kontrolatzeari buruzko bideo tutoriala. Dokumentuen aurreko bertsioak nola berreskuratu azaltzen da. Google Docseko eta Officeko adibide praktikoa.
e.digitall.org.es/A2C24B2V04



Online-lan kolaboratiboak ekoizpen-aukera handiak eskaintzen ditu, baina zailtasun berriak ere sortzen ditu. Hainbat pertsona dokumentu berean lanean ari badira, modu sinkronikoan zein asinkronikoan, dokumentuaren bertsio desberdinak sortuko dira. Batzuetan, zaila izan daiteke bertsio desberdinekin jardutea, eta frustrazioa eragin dezake horrek. Nork ez du inoiz idatzi, ahalegin handiarekin, orri berri bat dokumentuan, ondoren aurreko bertsio baten gainean egin duela egiaztatzeko eta ikusteko beste pertsona batek eduki horiek txertatuak zituela ordurako dokumentuaren beste leku batean? Nork ez du inoiz hilabete lehenago ezabatutako artxibo bateko edukiak ikusteko beharra izan, eta konturatu da dokumentu horren aurreko bertsio batean zeudela eta bertsio hori ezabatu dela?

Hau da, taldean lantzen ditugun dokumentuen bertsio ugariak modu fidagarrian kudeatzea funtsezkoa da lan kolaboratiboaren produktibitateerako. Eta gure lasaitasunerako.



Aurreko bertsioak kudeatzea

Dokumentu baten bertsioetan nabigatzeko eta haiek kudeatzeko kontuan hartu beharreko hainbat gai dokumentatuko dira. Horiek egile bakar baten ekintzaren ondorioz sor daitezke, baina baita dokumentu berean hainbat pertsonak esku hartzearen ondorioz ere, eta azken hori izaten da ohikoena lan kolaboratiboan. Lehenik eta behin, Google Docs–Google Drive inguruneko bertsioen alderdia landuko da, eta, ondoren, Microsoft Office–OneDrive ingurunekoena.

Google Docs–Google Driven

Google Docs testua online prozesatzeko aplikazio bat da, eta aukera ematen die zenbait erabiltzaileri dokumentu batean, aldi berean, elkarlanean aritzeko eta hura editatzeko.

⚠ ADI!

Editatzeko baimena izanda bakarrik ikusi ahal izango dituzu dokumentu baten aurreko bertsioak. Dakizunez, partekatutako dokumentu bati dagokionez, hura ikustea, komentatzea edo editatzea ahalbidetzen duten baimenak ezar daitezke, eta azken hori litzateke baimenen maila maximoa. Azken hori behar duzu aurreko bertsioak aztertzeko.

Lantzen ari zaren dokumentuaren aurreko bertsioetara sartzeko, dokumentuan egon behar duzu eta "Fitxategia" menuan sartu, "Bertsioen historia" hautatu eta, bertan, "Bertsioen historia ikusi" aukerara joan (Fitxategia > Bertsioen historia > Bertsioen historia ikusi).

Hori egiten denean, dokumentuaren eskuinaldean menu bat zabalduko da (ikus 1. irudia). Bertan, kronologikoki ordenatuta, dokumentu horren bertsioak ikusi ahal izango dituzu, dokumentua nork editatu duen eta edizioaren une zehatza zehaztuta.

Bertsioen historia erregistratzeko modu horrek badu abantaila bat: oso zehatza da, egindako aldaketak jasota uzten ditu, eta aurreko edozein bertsioetara itzultzeko aukera ematen du. Hori abantaila handia da, offline testu–prozesadore tradizionalekin alderatuta; izan ere, haiek, behin baino gehiagotan "ekintza desagitea" ahalbidetzetik harago, ez zuten aurreko bertsiorik berreskuratzeko aukera ematen, behin aldaketak gordeta. Hala ere, irudiari begiratua eman besterik ez da egin behar



1. irudia. Bertsioen historiaren menua Google Docsen.



konturatzeko zehaztasun horrek ekar dezakeela elkarren artean desberdintasun txikiak baino ez dituzten bertsioen itsaso batean galtzea. Horregatik, bertsio nagusiak berariaz izendatzeko aukera baliagarria da, historian errazago aurkitzeko.

⚠ ADI!

Dokumentuak modu ordenatuan izendatzeko, ondoz ondoko zenbakiak jartzen dira dokumentuaren izenaren amaieran. Horrela, hainbat dokumentu ordena alfabetikoan ordenatuta, berrienak agertzen dira azkenean, eta alderantziz. Ohikoa da, halaber, tituluaren aurretik lanketa-data txertatzea.

Gainera, dokumentuan egindako aldaketen garrantzia bereizteko, digitua aldatu ohi da aldaketak funtsezkoak badira, eta beste maila bat gehitu, aldaketak txikiak badira. Adibidez, dirulaguntza batera aurkeztuko den proiektuaren lehen zirriborroa honako hau izan liteke: **230107_memoria_1**

Aldaketa txikiak egiten diren bitartean, honela izenda daitezke: 230107_memoria_1.1, 230108_memoria_1.2, 230108_memoria_1.3 eta horrela hurrenez hurren.

Hala ere, ikuskatzailearen berrikuspenaren amaieran, zeinak aldaketa garrantzitsuak sartu baititu, dokumentua "230131_memoria_2" dei daiteke. Horrek agerian uzten du dokumentuan aldaketa nabarmena gertatu dela.

Horretarako, Fitxategia > Bertsioen historia > Egungo bertsioari izena jarri menura jo behar da. Dokumentu batek gehienez ere 40 bertsio izan ditzake izenarekin. Horrek nahikoa izan beharko luke aldaketa garrantzitsuak dituzten bertsio guztiak erregistratzeko eta aurkitzeko, baina ez egindako aldaketa guztiei izen bana emateko.

Bertsioak kudeatu ahal izateko beste gai garrantzitsu bat da haien artean zer aldaketa gertatu diren identifikatzea. Eskuinaldean "Bertsioen historia" zabalduz gero, behean "Aldaketak erakutsi" botoia ikus daiteke. Aukera hori aktibatuta dagoen bitartean, dokumentuan zer aldaketa egin diren ikus daiteke, eta aurreko bertsioarekiko aldaketa bakoitza nork egin duen ere identifika daiteke, bere Googleko kontutik sartzen den erabiltzaile bakoitzak kolore bat baitu esleituta. Markatutako aldaketa guztiek despistatu edo enbarazu egiten badute, aukera hori desaktiba daiteke.





Aurreko bertsio bat berrezartzea

Bertsioen artean nabigatzen denean, baliteke konturatzea jarraitutako aldaketa-lerroren bat ez dela egokia. Adibidez, une jakin batetik aurrera, orain desagokizat jotzen den norabide batez hasi zen lanean dokumentuan. Kasu horretan, aurreko egoerara iritsi arteko aurrerapenak ezabatu beharreak, eraginkorragoa da guztia okertu aurreko bertsio hori bilatzea eta berreskuratzea edo berrezartzea. Horretarako, eskuinaldean "Bertsioen historia" zabaldua, ikus daiteke bertsio bakoitzak izenburuaren ondoan hiru puntutxo bertikal dituela. Haien gainean sakatuz gero, aukera batzuk zabalduko dira; besteak beste, " Berrezarri bertsio hau" aukera, goialdean ezkerrean agertzen dena. Orain, bertsio hori da lanketarako bertsioa.

⚠ ADI!

Aurreko bertsio bat berrezarri izana damutzen bazaizu, orain landuko duzuna bezalakoa, ez dago arazorik, lantzen ari zinen bertsio hori ez delako desagertzen; aitzitik, "Bertsioen historian" gordetzen da, eta, behar izanez gero, bertara itzuli ahal izango duzu.


Microsoft Office-OneDriven

Office software-multzo ezaguneko testuak prozesatzeko programa da Microsoft Word. Googleren aplikazioaren dokumentuak Google Driven hodeian biltegitratzen diren bezala, Wordekoak OneDriven biltegitratzen dira.

OneDriveko bertsioen kontrolak Google Driverako arestian azaldutakoaren antzera funtzionatzen du; beraz, atal horretatik hastea komeni da, utilitate horien funtzionamendu orokorra ikusteko.

Hala ere, azpimarratu behar da, OneDriven kasuan, bertsioen historia "Fitxategia > Informazioa > Bertsioen historia" ibilbidean dagoela. Lehen erakutsi bezala, aurreko bertsioak ikus daitezke, aldaketak erakutsi edo ez, bertsio horietako edozeinen kopia bat gorde eta aurreko bertsio bat berrezarri (ikus 2. irudia).





2. irudia. OneDriveko MS Word dokumentu baten bertsioen historiarako sarbidea.

Google Driveren funtzionamenduarekiko diferentzia bat da OneDrivek dokumentu beraren aurreko 25 bertsio gordetzeko aukera ematen duela gehienez ere.

Ezabatutako dokumentuak berreskuratzea

Orain, ezabatu diren dokumentuak berreskuratzeko jarraitu beharreko urratsak dokumentatuko dira; dokumentu baten bertsioak kudeatzea baino zerbait errazagoa da.

⚠ ADI!

Kasu horretan, ez gara dokumentu beraren aurreko bertsioez ari –gai hori arestian azaldu da–, baizik eta hodeian banaka edo elkarlanean lantzen ari ziren eta ezabatu diren dokumentuez, eta, horregatik, ez dira ezabatu ez den dokumentu baten aurreko bertsioak.

Google Driven

Google Drive Googleren hodeiko lan-eremua da eta hainbat tresna ditu. Zuzenean Googleko zeure kontuarekin saioa hasiz bertara sartzeko aukera duzun arren, Gmailetik ere sar zaitezke, haren ikonoan klik eginez, pantailaren goialdean eta eskuinaldean dagoen menu zabalgarriaren barruan.



Google Driven zaudela, ezker aldean, lanerako espazio nagusiak dituen menu bat ikusiko duzu. Horietako bat "Zakarrontzia" da (ikus 3. irudia).

Bertan klik eginez gero, ezabatu edo "kendu" dituzun Driveko dokumentu guztiak joan diren lekura iritsiko zara, zakarrontzi-ikonoaren ondoko aplikazioak dioen bezala. Hor dauden arren, dokumentu horiek ez dira behin betiko ezabatu. Izan ere, dokumentu horiek berriro ikuska ditzakezu, haien gainean klik bikoitza eginez, eta behin betiko kentzeko edo "berrezartzeko" aukera ere baduzu, saguaren eskuineko botoiarekin haien gainean klik eginez. Dokumentu bat berrezartzea da eskuliburu honetan "berreskuratu" deitzen dena.

⚠ ADI!


Fitxategiaren izenaren ondoan, haren "jatorrizko kokapenari" buruzko erreferentzia bat agertuko da. Karpeten arabera antolatutako Google Drive bat baduzu, ondo begiratu zein zen; izan ere, fitxategia berrezartzean, zuzenean karpeta horretara joango da. Gauza bera, fitxategiaren izena konplexua bada. Bestela, zaila izan daiteke jakitea non geratu den berreskuratu berri duzun fitxategi hori.

OneDriven

OneDrive Microsoften hodeiko lan-eremua da, eta hainbat tresna ditu, hala nola MS-Officeren barruan daudenak. Zuzenean Microsofteko zeure kontuarekin saioa hasiz bertara sartzeko aukera duzun arren, Outlook posta-kudeatzailetik ere sar zaitezke, hodei urdinaren ikonoan klik eginez (), pantailaren ezker aldeko menu zabalaren barruan.

OneDriven zaudela, ezker aldean, lanerako espazio nagusiak dituen menu bat ikusiko duzu. Google Drivekoaren oso antzekoa da. Interesatzen zaigun atala "Birziklatzeko zakarrontzia" da (ikus 4. irudia).

Bertan klik eginez gero, ezabatu edo "Birziklatzeko zakarrontzira bidali" dituzun Driveko dokumentu guztiak joan diren tokira iritsiko zara, aplikazioak dioen bezala. Google Driven gertatzen den bezala, OneDriven ezabatutako dokumentuak ez dira behin betiko ezabatzen, zakarrontzi horretan baitaude. Han bezala, berriz ere ikus ditzakezu. Zakarrontziko dokumentu bakoitzak honako informazio hau du: bere izena, ezabatze-data, nork ezabatu duen, nork sortu duen -kontuan izan lan



3. irudia. Google Driveko menu nagusia.



4. irudia. OneDriveko menu nagusia.



kolaboratiborako erabil daitezkeen espazioak direla– eta jatorrizko kokapena. Zakarrontziko dokumentuak ezaugarri horietako edozeinen arabera ordena daitezke.

Sagua izenaren ezkerretara hurbiltzen badugu, hautaketa–lauki bat argitzen da. Horrela hautatutako fitxategiak erabakitzen den ekintzaren xede izango dira gero, dela jatorrizko karpitetan berrezartzea, dela behin betiko ezabatzea. Hartara, ez dira fitxategiak banan–banan berrezarri edo ezabatu behar, agindu masiboak eman baitaitezke.

Bestalde, saguaren eskuineko botoiarekin fitxategi horietako baten gainean klikatzen badugu, hautatu egingo dugu eta aukera hauek emango dizkigu:

- **"Ezabatu"**: fitxategia behin betiko ezabatuko da.
- **"Berrezarri"**: zakarrontzitik jatorrizko karpetara itzuliko da fitxategia.
- **"Xehetasunak"**: fitxategiari buruzko informazio gehiago emango du.

Dropboxen

Dropbox hodeiko biltegitratze–aplikazio aitzindaria da jendearentzat, eta, nahiz eta ez duen doako biltegitratze–kopuru handirik eskaintzen –2 GB baino pixka bat gehiago, konektatutako gailuen arabera–, jende askok erabiltzen du oraindik ere, eta komeni da hemen espazio bat eskaintzea, Google Driverekin zein OneDriverekin integratu daitekeelako, besteak beste.

⚠ ADI!

Dropbox hodeian biltegitratzeko aplikazio bat da, baina ez du testuak, kalkulu–orriak edo bulegotikako beste aplikazio batzuk prozesatzeko aplikazio propioak barne hartzen lan kolaboratiboa egiteko. Elkarlanean aritu daiteke, ordea, dokumentazioa duten karpeten erabilera partekatuz.

Aurreko aplikazioen antzera, Dropboxen orri nagusian, saioa hasi ondoren, "Ezabatutako fitxategiak" izeneko atal bat aurki daiteke, eta bertan behin–behinean gordetzen dira Dropboxen jasotako edo harekin sinkronizatutako karpetetatik ezabatu ditugun fitxategiak (ikus 5. irudia).

☰ Dropbox



5. irudia. Dropboxeko menu nagusia.



Sistema beste aplikazio batzuetan erakutsi denaren antzekoa da. Fitxategiak ezabatzen direnean, "Ezabatutako fitxategiak" karpeta horretara joango dira. Horiek berrezarri egin daitezke (hau da, jatorrizko karpetara itzuliz berreskuratu egin daitezke), izenaren ezker aldean klik eginez eta pantailaren eskuinaldeko "Berrezarri" botoia sakatuz.


Ezabatutako fitxategien karpeta horretan, pantailaren eskuinaldean, ezabatutako dokumentuen bilatzaile bat eskaintzen du Dropboxek eta baliagarria da. Dokumentu asko badituzu, ezabatze-dataren, jatorrizko karpetaren edo ezabatu duen pertsonaren arabera iragazteko modu egokia da (ikus 6. irudia).

Gehiago jakiteko


Dokumentu honetan aipatu diren aplikazioek beren produktuen erabilerari buruzko informazio asko ematen dute, ohiko galderentzako erantzunak eta tresnak ahalik eta gehien esplotatzeko xehetasunak. Kasu honetan, dokumentuak berreskuratzea zuzendutakoak aipatuko ditugu.

- Google Driverako: e.digitall.org.es/restaurar-googledrive
- OneDriverako: e.digitall.org.es/restaurar-onedrive
- Dropboxerako: e.digitall.org.es/restaurar-dropbox


Fecha inicial

 8/3/2023


Fecha final

 15/3/2023

Eliminado por

 Correo o nombre

En la carpeta

Cualquier carpeta 

Restaurar filtros

6. irudia. "Ezabatutako fitxategiak" bilatzeko menua Dropboxen.



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.4 Teknologia digitalen
bidezko lankidetzaz

Tresna bisual kolaboratiboak erabiltzen II






Tresna bisual kolaboratiboak erabiltzen II

Sarrera. Hodeian lankidetzaz erraztea

Dokumentu honek A2C24B2V07 bideoa osatzen du. Tresna bisual kolaboratiboak erabiltzeko xehetasunak ematen ditu, hala nola Miro, Padlet eta Mural. Aipatutako bideoan, auzo bateko berdeguneak zabaltzeko kanpaina baten adibideari jarraitzen zaio. Horrek tresnen utilitate asko zehatz-mehatz azaltzeko aukera eman zuen, praktikan zertarako balio duten ulertzeko. Dokumentu honek, ordea, tresna bakoitzaren funtzionalitate nagusiak erabiltzeko urratsei heltzen die: online-bilerak eta aurrez aurrekoak integratzea, txantiloak proiektuaren beharren arabera erabiltzea, proiektuan elkarlanean ari den pertsona bakoitzak egin dezakeena partekatzeko edo mugatzeko aukerak eta taula kolaboratiboak aurkezteko aukerak.



TRESNA BISUAL KOLABORATIBOAK ERABILTZEN II

Bideo tutorial praktikoa, egoera jakin batean Miro, Padlet eta Mural tresna kolaboratiboak erabiltzeari buruzkoa.

e.digitall.org.es/A2C24B2V07

Miro

Aplikazioaren definizioaren beraren arabera, Miro arbel-kolaboratiboaren online-plataforma bat da, urrundutako kidez osatutako taldeei elkarrekin efikaziaz lan egiteko aukera ematen diena. Hemen, erreferentzia-bideoan aipatutako funtzionalitateetako batzuk azalduko dira urratsez urrats, hala nola online-bilerak eta aurrez aurrekoak integratzea, txantiloak proiektuaren beharren arabera erabiltzea eta proiektuan elkarlanean ari den pertsona bakoitzak egin dezakeena partekatzeko edo mugatzeko aukerak.




Meet eta Zoomekin integratzea bilerak egiteko

Demagun ikastaro edo kanpaina bat prestatzeko bilera bat egin behar dugula. Miroko arbela erabiliko dugu elkarlanean aritzeko, baina, printzipioz, parte-hartze eraginkorra parte-hartzaileen kokalekuaren arabera izango da neurri handi batean. Pertsona batzuk gela berean daude, eta taularen proiektzio bat ikusten ari dira pantaila handi batean, baina beste batzuk telelanean ari dira. Denek arbel bera ikus dezakete, baina guztiek ezin dute zuzenean ahoz komunikatu. Online-lankidetzeta garatzen ari den une honetan, begi-bistakoa da edonorentzat pertsona horiek bideodei bat egin dezaketela. Hala ere, Mirok aukera ematen du haratago joateko eta dei hori arbel berean integratzeko, non pertsona guztiek beren lehen ideiak azalduko dituzten.

Hori lortzeko, lehendik dauden tauletako edozeinetara sartu behar da, eta entxufe-ikonoan klik egin, goialdean ezkerrean (ikus 1. irudia). Horrek menu bat zabalduko du, Miroekin integratu daitezkeen aplikazioak erabiltzeko aukera ematen duena. Fitxa batean, erabiltzen ari zaren ekipoan instalatuta dauden aplikazioak ageri dira, Miron sar ditzakezunak. Beste fitxa batean, Miron integra ditzakezun baina instalatuta ez dauden aplikazioak daude. Bestalde, zein aplikazio erabili nahi den jakinez gero, bilatzailean sar daiteke eta zuzenean bertara joan.

⚠ ADI!

Aplikazio bat ez badago Miron integratuta, ez da ezer pasatzen, Miro erabiltzen den aldi berean erabil daiteke eta. Integrazioak aukera ematen du Miroren arbelaren barruan erabiltzeko, non lanean ari garen. Hori erosoagoa izan ohi da, baina integratuta ez badago edo integrazioak akats teknikoak baditu, aplikazio hori bereiz erabil daiteke. Hau da, ezerk ez du eragozten Miron arbel batekin lanean aritzea, eta, bestalde, Zoom bat irekitzea, aldi berean beste fitxa edo aplikazio batean dei bat egiteko.



1. irudia. Miron integratzeko dei-aplikazioen menua.



Aplikazioa instalatuta badago, menu horretatik sartu ahal izango da bertara. Gainera, instalatzen diren aplikazio guztiak agertuko dira Mirok ezkerrean duen tresna-barra bertikaleko integratzeko ikonoa klikatuta (ikus 2. irudia).

Horrela, Meet edo Zoom bidezko deia egin ahal izango da eta arbelean sartu, non talde osoa ari den lanean. Deia pantailaren eskuinaldean agertuko da, aplikazio bakoitzaren ohiko itxurarekin, eta bertan gauza berberak egin ahal izango dira: mezuak idatzi, pantaila bera partekatu eta abar.

Txantiloien erabilera

B1 mailako bideoan, txantiloien garrantzia azaldu zen. Oraindik ere tresna kolaboratibo horiek aditu batek erabiltzen dituen bezala erabiltzen ez direnean, txantiloien erabilerak denbora asko aurrezten du diseinuaren hasierako uneetan. Diseinu-soluzioak ere erakusten ditu, eskarmenturik gabeko erabiltzaile batek denbora luzea beharko luke-eta horiek bere kabuz aurkitzeko.



2. irudia. Miron integratutako aplikazioen ezkerreko alboko menua.



TRESNA BISUAL KOLABORATIBOAK ERABILTZEN I

Bideo tutorial praktikoa, egoera jakin batean Miro, Padlet eta Mural tresna kolaboratiboak erabiltzeari buruzkoa.
e.digitall.org.es/A2C24B1V06

Mirok txantiloia hainbat unetan hautatzeko aukera ematen du. Hasierako menuan egiteko aukera ematen du, baina baita taula zuri berri bat irekitzen denean ere. Eta, edozein unetan, ezkerrean dagoen menu-barra bertikaleko txantiloï-botoia saka daiteke (ikus 3. irudia).

Hautaketa-laguntzaileak txantiloï-aukera jakin batzuk erakusten ditu lehenetsita. Horrek asko laguntzen du hasieratik identifikatzen zein egokitzen den gehien gure egoerara: proiektuaren hasierako uneak (ideia-jasa edo mapa mental edo kontzeptuala), jada diseinatutako prozesuen eta proiektuen jarraipena (fluxu-diagrama edo lan-fluxua), eta abar. (ikus 4 irudia). Bestalde, Miroko komunitateak txantiloï asko sortu ditu bere proiektuetan, eta partekatu egin ditu, erabiltzaile berriek ere erabili ahal izan ditzaten. Hala, horiek Mirok eskura jartzen dituen txantiloien artean daude.



3. irudia. "Txantiloïak" ikonoa Miroko tresnen menu bertikalean (pantailaren ezkerreko zutabea).



4. irudia. Miron aldeaz aurretik diseinatutako txantiloiak, txantilo motaren arabera.

Taula horien diseinuaren aurrebistak zalantzak argitzen ez baditu, txantiloia aukeratu ahal izango da, taula erabiliko den prozesu motaren arabera. Txantiloien hautaketa-laguntzaileak hainbat txantilo-multzo taldekatzen ditu, haien erabilera orokorren arabera. Prozesu motak menu honetan daude, laguntzailearen ezkerreko zutabean (ikus 5. irudia).

Azkenik, bilatzaile barra bat dago, aurreko modu guztietan txantilo egokia aurkitu ez bada.

Taulak eta baimen-sistemak partekatzea

Miro eta dokumentu honetan azaltzen diren gainerako tresna bisualak baliagarriak dira norberaren lana banaka antolatzeko (konplexua bada, fase edo jardueretan, adibidez), baita proiektu batean pertsona-talde batekin elkarlanean aritzeko ere. Azken horretarako, aplikazioaren elementuak eta lotutako baimen-sistemak partekatzeko aukerak ezagutu behar dira.

Miron, horrek eskatzen du elkarlanean aritzeko bi maila daudela kontuan hartzea: taldea eta taula.

- **Taldea** proiektu batean lan egiten duten pertsonen taldea da. Proiektuetako lankidetzatza taula batean edo gehiagotan egituratzen da.

POR CASO DE USO

Reuniones y talleres

Lluvia de ideas y proceso creativo

Flujos de trabajo de Agile

Creación de mapas y diagramas

Investigación y diseño

Estrategia y planificación

5. irudia. Miroko txantilo motak, jarduera motaren arabera multzokatuta.



- **Taula** edo arbela taldearen lan-eremu zehatzak dira (hasierako ideia-jasa egiteko taula, lanen jarraipena egiteko taula, komunikazio- edo finantza-zeregin zehatzak egiteko taula eta abar).

Erabat irekia den proiektu batean, taldekide guztiek dute taula guztietarako sarbidea, baina hori modulatu egin daiteke. Era berean, taulak eskuragarri egon daitezke loturarako URLa duen edonorentzat. Ikusi sarbide-mailak dokumentu honek azaltzen duen B2 bideoan erabilitako adibidean (auzo bateko zuhaitzak babesteko kanpaina). Kasu horretan, logikoa dirudi lotura duen edozein auzokidek bilerak, ideia-jasak eta hedapenerako komunikazio-materialak antolatzen dituzten hasierako taulak ikusteko aukera izateak, ahalik eta parte-hartze handiena izatea komeni baita. Hala ere, lan teknikoagoak eta espezializatuagoak ere badaude, lantalde jakin batzuen ardurapean. Lantaldeetako pertsona horiek prozesuen jarraipena egiteko tauletara sartu ahal izango dira. Azkenik, pertsona jakin batzuek baino ezin izango dituzte erabili informazio kaltebera duten taulak: finantza-kontuak eta ekitaldien ekoizpenari edo sare sozialetarako kartel eta bideo-pilula berrien diseinuari buruzkoa, esaterako. Aldi berean, pertsona-talde bakoitzak baimen-maila desberdinak izan ahal izango ditu sar daitezkeen taula bakoitzean: ikustea bakarrik, komentatzea, baita editatzea ere, azken hori da-eta maila maximoa (ikus 1. taula).

1. taula. TAULAK PARTEKATZEARI ETA HORIEN GAINEKO EKINTZA-BAIMENEI BURUZKOA

Baimenak partekatze modua	Ikusi bakarrik	Komentatu	Editatu (max.)
Lantaldea gonbidatu eta taula hori partekatzea			Gomendagarria da taldea erantzunkidea den zereginetarako
Taula zehatz hori partekatzea gonbidapen bidez			
Lotura duen edozein pertsona sar daiteke taulara (max.)	Gomendagarria da talde osoa informatuta edukitzeko		Irekiera maximoa. Gomendagarria da parte-hartze irekian



Miron, aukera horiek guztiak pantailaren goialdeko eskuinaldeko "partekatu" botoian aktiba daitezke, taula jakin batean zaudenean (ikus 6. irudia).

Bertan sakatuz gero, honako menu hau zabaltzen da, eta adierazitakoa egin daiteke; baita taula baten kodea beste edozein webgunetan txertatu edo sartu eta, gonbidatuek taula edo ekipo horretan zer egin behar den jakin dezaten, bidalitako gonbidapenean iruzkinak sartu ere (ikus 7. irudia).

Compartir

6. irudia. Miroko edizio-baimenak eta sarbidea kudeatzeko botoia.



7. irudia. Miron baimenak partekatzeko eta emateko aukeren kontrol-panela.

Padlet

Padlet taula kolaboratiboak sortzeko tresna bat da, Miroren antzekoa, baina, agian, diseinuaren eta alderdi bisualaren pisu handiagoa duena. Atal honetan, urratsez urrats dokumentatuko da nola erabili txantiloiak, lankidetzaz hobetzeari begira zer aukera dauden gure taulak partekatzeko, eta taulen aurkezpen-modua.

Txantiloien erabilera

2.2. atalean Mirorako adierazi zen bezala, taula bat hasten denean, alde aurretik ezarritako txantiloiak erabiltzea da aplikazio bisual kolaboratiboetan hasteko modurik erosoena. Hemen, berriz ere, zer jarduera-motatan hasi behar den pentsatu behar da, txantiloia egokiena hautatzeko. Adibidez, jarduera sekuentzial bat bada, non zeregin batzuek beste batzuei bide ematen baitiete, hala nola lasterketa baterako entrenamendu bat diseinatzea, komeni da denbora-lerro



gisako txantiloiak erabiltzea (*timeline*, ingelesez), horizontalki edo bertikalki informazioa, irudiak, bideoak eta urrats bakoitzerako estekak eransteko aukera ematen dutenak. Aldiz, jarduera konplexu bat antolatu nahi bada, non kontzeptuek edo jarduerak elkarren arteko loturak dituzten, komenigarriagoa izan daiteke kontzeptuen mapa bat edo mihise motako txantiloia bat (*canva*), modu libreagoan erlazionatuko ditugu eta.

Taula bat sortzen denean, Padletek txantiloia horiek proposatzen dizkizu; lehenik forma sinpleetan (*simple formats*) eta gero txantiloia batzuk beste batzuekin nahastuta (*advanced formats*) (ikus 8. irudia).

Sagua aukera bakoitzaren gainean mugitzen bada, diseinu hori nola geratuko litzatekeen aurreikusten duen aurrebista edo irudi bat erakutsiko du Padletek, interesgarria bada hura identifikatzea errazagoa izan dadin.


Taulak eta baimen-sistemak partekatzea

Mirorako ikusi zen bezala, tresna bisual horiek, norberaren lana banaka antolatzeaz gain, proiektu batean pertsona-talde batekin elkarlanean aritzeko aukera ematen dute. Horretarako, aplikazioaren elementuak partekatzeko aukerak ezagutu behar dira.

Hauek dira partekatzeko aukera nagusiak. Partekatzeko ikonoa gezi hau da, eskuinaldeko edo behealdeko ikonoen artean dagoena; aplikazioaren arabera, pantaila osoan ageri da edo ez (ikus 9. irudia).

Ikono horretan klik egin ondoren, hainbat aukera ikus daitezke:

- **Erantsi kideak.** Taula beste pertsona batzuekin zuzenean partekatzeko aukera ematen du, Tableteko haien erabiltzaile-izenak edo posta elektronikoak adierazita, eta gonbidapena bidaliko die.
- **Partekatze-maila.** Mirorako ikusi zen bezalaxe, "Aldatu pribatutasuna" aukerak hainbat ereduren artean hautatzeko aukera ematen du (taulara sartzeko moduaren eta taularako sarbidea duenak egin dezakeenaren eta hark dituen baimenen arabera) eskatzailearen baimenen fitxan (ikus 10. irudia):



8. irudia. Padleten alde zurretik ezarritako txantiloien formatuak.



9. irudia. Padleten partekatzeko aukerak zabaltzen dituen botoia.

**⚠ ADI!**

Taulak edo dokumentuak partekatzea lagungarria izan daiteke hobeto lan egiteko, baina pribatutasun-kontuak zaindu behar dira beste pertsona batzuekin lan egiten denean, batez ere hezkuntza-inguruneetan, erabiltzaile asko adingabeak baitira. Taula batzuk "publikoak" izan daitezke, hau da, edonork ikus ditzake Padleteko profil pertsonal jakin batean, baina ikusten duenak ezin du haietan inolako aldaketarik egin. Beste taula batzuk, sarbidearen gaineko kontrola mantendu nahi den lan-ingurune batean non, hala ere, denek ekarpena egin dezaten nahi den, partekatzeko modukoak izan daitezke, gako sekretuarekin eta erabiltzaileentzako baimen handiagoekin (komentatzea eta editatzea, adibidez). Beste taula batzuetan, hala nola hezkuntza-arlokoetan, arestian aipatutakoetan (haurrekin eta nerabeekin lan egitea ohikoa da eremu horretan), pasahitza mantentzea komeni da; hala, taulara sartzeko lotura izan arren, beste pasahitza bat beharko da hura ikusteko edo editatzeko.

- **Partekatzeko modua.** Beherago taula partekatzeko hainbat modu jaso dira: esteka baten, aurkezpen baten, QR kode baten, posta elektronikoko baten, sare sozialen edo Google Classroom bidez. Taula partekatzeko beste modu bat da beste mota bateko fitxategi berri gisa esportatzea: irudia, PDF, CSV datu-multzoa edo Excel orria. Bistakoa denez, hautatu beharreko fitxategi mota egiten ari den taula motaren arabera da; adibidez, taula bisualagoa den edo datu-karga handiagoa duen.


Taula aurkeztea

Taularen aurkezpena Padleten beste aukera interesgarri bat da. Diapositibaz diapositiba, taulako etiketa bakoitzaren edukia helarazteko modu bat da. Aukera hori interesgarria izan daiteke taulako ideia eta etiketa guztiek halako lotura badute non zentzua duen batera ikusteak (ikus 11. irudia), baina, era berean, zentzua badu haiek modu xehatuan, etiketaz etiketa, diapositiba ezberdinetan ere ikusteak.


Aurkezteko aukerak play formako ikono bat du tresna-barran, eskuinaldean edo behealdean, pantailaren hedaduraren arabera. Taula-moduaren eta aurkezpen-moduaren arteko aldea ikus daiteke horrela (ikus 12. irudia):



10. irudia. Taula baterako sarbide partekatua konfiguratzeko menua Padleten.



11. irudia. Taula bateko elementu guztien baterako ikuspegia Padleten.



12. irudia. Padleteko taula bateko etiketa baten "aurkezpen" moduaren irudia.




Mural

Mural tresna bisual kolaboratibo oso baliagarria da. Hari buruz, zenbait funtzionalitate garrantzitsu zehaztuko ditugu hemen, hala nola eskura dauden txantiloien arteko aldeak eta lan kolaboratiboa partekatze eta babesteko aukerak.

Txantiloien erabilera

Muralek taula bakoitzean txertatu beharreko xehetasunen eta elementuen sakontasun handia ahalbidetzen du, eta ibilbide luzeko proiektu konplexuen jarraipena egiteko pentsatuta dago. Horregatik, gomendagarria izan daiteke zooma handitzea eta murriztea, une bakoitzean interesatzen zaizun xehetasun-maila ondo ikusteko, saguaren erruletarekin edo bi hatzak aldi berean erabiliz teklatuaren pad-aren gainean, ordenagailu eramangarrietan, eta mugikorretan edo tabletetan.

Muralen hasierako pantailan, ezkerrean, "Workspace" izenburupean, "Templates" aukera (txantiloiak) ikus daiteke. Bertan klikatuz gero, txantiloien hainbat kategoria ageri dira, batez ere jarduera profesionalera bideratuak: estrategia eta plangintza, ikerketa, ideia-jasa, proiektuen plangintza, zereginetarako fluxu-diagrama, bezeroen fidelizazioa eta abar. (ikus 13 irudia).



13. irudia. Muraleko txantiloien menua.



Taulak eta baimen-sistemak partekatzea

Beste tresna batzuek bezala, Muralek taulak partekatzeko aukera ematen du, lan kolaboratiboa antolatzeko. Horretarako, pantailaren goiko eskuinaldean dagoen "Share" edo "Partekatu" botoi gorrian klik egin behar da. Horrela, menua zabaltzen da (ikus 14. irudia), taulak partekatzeko ohiko aukerak erakusten dituena: esteka baten edo posta elektronikoaren bidez, eta baimenak bi mailatan ezartzeko aukerarekin (ikustea bakarrik edo editatzea).

Share mural You have access ×

Members Visitors

i How are members and visitors different? >

[Link](#) Email or name

[https://app.mural.co/invitation/mural/tareas8337/16793029202 ...](https://app.mural.co/invitation/mural/tareas8337/16793029202) **Copy link**

Workspace members with the visitor link: can edit ▼

Import group **Download** **Embed**

14. irudia. Taulak partekatzeko eta baimenak ezartzeko Muraleko menua.

Muralek lantaldeak inportatzeko azken aukera interesgarri bat eskaintzen du ("Import group", 14. irudian, behean). Kontua da, proiektu bat garatzeko lantalde bat ezarri bada, posible dela talde horren datuak hartzea eta taula berria talde osoarekin partekatzea, lehendik zegoen baimen-konfigurazio berarekin. Horrela, proiektu bat amaitu bada eta beste bat hasi behar bada oinarrizko ekipo berarekin, ez da taula partekatu behar eta ez dira baimenak eman behar banan-banan; aitzitik, dagoeneko finkatuta dagoen partekatze- eta baimen-sistema koptatu daiteke.



i Gehiago jakiteko

Dokumentu honetan aipatu diren aplikazioek beren produktuen erabilerari buruzko informazio asko ematen dute, ohiko galderentzako erantzunak eta tresnak ahalik eta gehien esplotatzeko xehetasunak. Hala ere, orri eta laguntza-zentro horietako gehienak ingelesez daude:

- **Mirrorako** (espainieraz): help.miro.com
- Padleterako: padlet.help
- **Muralerako**: batez ere ingelesez dagoen arren, "learning" espazioak (ikasi), hasierako menuan goialdean eskuinean dagoenak, aplikazioaren funtzio nagusiei buruzko hainbat bideo tutorial eskaintzen ditu. Komunitatearen bideoak eta iruzkinak ere aurki daitezke, kategoriaka, "help center"-en (laguntza-gunea) support.mural.co





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.4 Teknologia digitalen
bidezko lankidetzak

Sarean plangintza- tresnak erabiltzen: Planner, Trello, Doodle eta Monday





Sarean plangintza-tresnak erabiltzen: Planner, Trello, Doodle eta Monday

Sarrera. Antolaketa-tresnak

Dokumentu honek A2C24B2V08 bideoa osatzen du. Plangintza-tresna bisualak erabiltzeko xehetasunak eskaintzen ditu: Planner, Trello, Doodle eta Monday, esaterako.



TRESNA BISUAL KOLABORATIBOAK ERABILTZEN II

Sarean plangintza-tresnak erabiltzen: Planner, Trello, Doodle eta Monday.

e.digitall.org.es/A2C24B2V08



SAREAN PLANGINTZA-TRESNAK ERABILTZEN: PLANNER ETA TRELLO

e.digitall.org.es/A2C24B1V07



SAREAN PLANGINTZA-TRESNAK ERABILTZEN: DOODLE ETA MONDAY

e.digitall.org.es/A2C24B1V08



ANTOLAKETARAKO TRESNA KOLABORATIBOAK

Erreferentzia-dokumentua:
A2C24B1D03

B1 mailan, tresna horien erabilerarako hurbilpen bat egin zen, zegokion dokumentazioarekin. Hori dela eta, B2 mailako bideoan, talde baten alderdiak zeregin konplexu jakin batean planifikatzeko tresna horiek nola erabili zehaztu zen, hala nola jardunaldi zientifiko batzuen antolaketa. Adibide horrek hainbat plangintza-moduri heltzeko eta tresnen erabilera urratsez urrats azaltzeko balio du, baina dokumentu hau irakurtzen duenak buruan duen edozein adibidetara egokitu beharko du.

Proiektuak antolatzeko ikuspegiak

Interfaze edo itxura askoz bisualagoetan oinarritutako beste tresna kolaboratibo batzuen antzera, Trello edo Monday bezalako tresnek aukera ematen dute antolaketa-taula zerotik edo hainbat proiektu mota egituratzeko alde aurretik pentsatutako txantiloietatik hasteko.




TRESNA BISUAL KOLABORATIBOAK ERABILTZEN II

Bideo tutorial praktikoa, egoera jakin batean Miro, Padlet eta Mural tresna kolaboratiboak erabiltzeari buruzkoa.

e.digitall.org.es/A2C24B2V07



Trellon, txantiloietara sartzeko, goialdeko ezkerreko menua erabili behar da (ikus 1. irudia). Botoi horretatik abiatuta, hainbat aukera zabaltzen dira.




1. irudia. Trelloko menu-barra nagusia. "Txantiloiak" botoia nabarmentzen da.

Mondayn, lehen taula sortzen denean, proiektuaren arabera gehien komeni den bistaratze-ereduari buruzko galderak egiten ditu laguntzaileak. Horrela, hasieran ikuspegi-diseinu desberdinen artean hauta daiteke (ikus 2. irudia).

Agrega un diseño de vista

Transforma la manera de ver y gestionar tu trabajo con más vistas únicas. Puedes agregar otras más tarde.



Planifica, haz el seguimiento y gestiona todo con un tablero visual.

2. irudia. Mondayn taulak sortzeko laguntzailearen ikuspegi-diseinuen menua.

Aplikazio horietako parte-hartzaileek eskain dezaketen laguntza alde batera utzi gabe, proiektuaren arduradunak erabaki behar du zer ikuspegi eman nahi dion zereginen antolaketari, dokumentu honetan azaldutako aplikazioek lagundu dezaten zeregin horiek ahalik eta hobekien planifikatzen eta exekutatzeko.

Adibidez, Trelloko "project manager" motako ikuspegi edo txantilo bat aukeratzen bada, txertatutako zereginak zutabeetan antolatuko dira, zer egoeratan dauden kontuan hartuta (amaituta eta egiteke, egoeraren arabera: hasita, martxan, ez atzera ez aurrera eta abar).



Eredu horretan, lantaldearen denbora errealeko ekintzaren ikuspegi argiagoa dago, baina zereginen identifikazioa zaindu behar da oso jarduera heterogeneoak edo talde oso desberdinei enkargatutakoak ez nahasteko, hala nola kontu logistikoaren eta zientifikoaren arteko diferentzia, bideoaren adibideari jarraikiz.

Lana antolatzeko balizko beste ikuspegi nagusi bat da alde zurretik zeregin-multzokak irizpide objektibo edo tenporal baten arabera multzokatzeko eta, multzo bakoitzaren barruan, zeregin-azpitaldeak banakatzeko, haien egoera, arduradunak eta beste ezaugarri batzuk adierazita. Bideoan zehaztu zen adibidean, jardunaldi zientifiko batzuei buruzkoan, zereginak honako zutabe hauetan multzokatu ziren Trello: "espazioak", ekitaldiaren "programazio zientifikoa", kanpoko esku-hartzeen bidezko parte-hartzea, hala nola komunikazioak, ekitaldiaren "komunikazioa eta hedapena" eta emaitzen "argitalpena".

Trelloko antolaketarako funtzio baliagarriak

Trello bezalako tresna oso erraz batean, antolaketa-jarduera zehaztuta tresna horiei etekina nola ateratu ondo ulertzeko, funtzio baliagarri batzuk deskribatzea komeni da.

Txartelen erabilera

Trello, informazioa zutabeetan antolatzen da (programak "zerrendak" esaten die, bertikalki zabaltzen direlako), eta, horien barruan, txartelekin. Txartelak informazio-unitate independenteak dira, kalkulu-orri edo taula bateko gelaxka gisa har daitezkeenak. Aipatutako B2 bideoko jardunaldien adibidean, hori argi eta garbi azaltzen da jardunaldien programazio zientifikoa egiteko zereginari dagokionez. Hori da zeregin nagusia ("parte-hartzaileak"), eta proposatutako pertsona bakoitza txartel bat da. Txartelak izenburu bat du, lehen begiratuan ikusten dena, bai eta informazio erantsi bat ere, txertatu eta izenburuaren gainean klik eginda ikus daitezkeena. Taldekide bati hitzaldia emateko norbait bururatu bazaio, txartel bat erants dezake, balioztatzeke dagoela adieraziz. Zuzendaritza zientifikoak hura balioztatzen duenean, "kontaktatzeko zain", "kontaktatua" eta "errefusatu egin du" edo "onartu egin du" egoerara pasa daiteke, erantzunaren arabera. Sartu nahi den zutabearen amaieratik sortzen da txartel berri bakoitza. Bi bide daude sortutako txartel batean ekintzak





egiteko.

Saguaren kurtsorea izenburuaren azken aldera hurbilduz gero, arkatz baten logoa agertuko da, "editatu" aukera adierazten duena. Hori bera gertatuko da txartelaren gainean saguaren bigarren botoiarekin klik egiten badugu. Klikatzean, aukera nagusiak dituen menu azkar bat zabalduko da:

- **"Ireki"**. Txartelean sartzen da, iruzkinetan informazio gehiago eransteko eta beste ekintza batzuetarako. Txartel horren gainean saguaren lehen botoiarekin klik eginez ere egin daiteke.
- **"Editatu etiketak"**. Koloreetako etiketak eransteko aukera ematen du, beste taldekide batzuek erraz identifika dezaten zereginen egoera edo arduraduna.
- **"Aldatu kideak"**. Partekatutako tauletan, txartel bakoitza kide bati esleitzen zaio berez, baina hortik beste bati esle dakioko. Adibidez, egilea ez den beste pertsona bat bada betekizunaren ardura hartu edo hura gainbegiratu behar duena.
- **"Aldatu azala"**. Etiketekin bezala, kolore edo irudi edo argazki bat jar daiteke, taularen hasieratik ikus dadin etiketaren goialdean. Kolore edo irudi bakoitzaren esanahia pertsona edo talde bakoitzaren lan-arauen arabera izango da. 4.1. atalean zerbait gehiago ikusiko dugu horri buruz.
- **"Mugitu"**. Etiketa lan-eremuko edozein tokitara eraman daiteke. Hori baliagarria da, batez ere, taula zereginen egoeraren arabera antolatzen bada, edukiaren arabera antolatu beharrean, atal honen hasieran ikusi zen bezala. (***Ikus arreta-koadroa eskuinean***). Mugitzeko aukeran klik eginda, helmuga-aukera horiek adierazten dituen leiho bat agertuko da. Ikusten denez (ikus 3. Irudia), txartela dagoen taula hauta daiteke helmuga gisa, baina baita beste bat ere, eta horien barruan edozein zerrenda (zutabea) eta zerrenda horretan bete beharreko posizioa, 1 lehenengoa izanik eta horrela hurrenez hurren. Hala ere, txartelak mugitzeko modu oso intuitibo bat da (taula berean bada) txartela nahi dugun lekura eramatea. Adibidez, "Egiteke" zerrendatik "Amaituak" zerrendara.

⚠ ADI!

Ez nahastu "lan-eremua" eta "taula". Trellon, erabiltzaile bakoitzak bere lan-eremua du (*workspace*), eta beste batzuen parte ere izan daiteke. Era berean, lan-eremu bakoitzean, banakakoan edo partekatuan, hainbat taula egon daitezke; gehienez ere hamar, Trelloren doako bertsioan.



3. irudia. Txartel bat "mugitzeko" Trelloko menua.

- **"Kopiatu"**. Txartel bat kopiatzeak txartel horren informazioa beste zerrenda batean edo beste taula batean ere izateko aukera ematen du, jatorrizko lekutik kendu beharrik izan gabe. "Kopiatu" sakatuz gero, "Mugitu" menuaren antzeko beste bat agertzen da, kopiatutako txartel hori itsasteko lekua hautatu ahal izateko. C2 mailako bideoan ikusiko denez, ekintza horietako asko, hala nola mugitu, kopiatu edo artxibatzea, masiboki egin daitezke power-up baten bidez (Trelloko tresna txiki bat).



TRELLO ETA DOODLE ERABILIZ LANA ANTOLATZEA

Bideo honetan, antolaketari buruzko aurreko bideoetan oinarrituta, ekitaldi bat sortu nahi duten pertsona batzuen lana Trello eta Doodle erabiliz nola antolatu azaltzen da modu aurreratu eta zehatzean.

e.digitall.org.es/A2C24C2V05

- **"Editatu datak"**. Ohikoena zereginak gauzatzeko data bat izatea da, gutxi gorabehera zehaztutakoa. Aukera horrekin, txartelaren izenburuaren ondoan ager daiteke data hori. Epemugak jartzea baliagarria da, Trello jakinaraz diezaiekeelako txartela sortu duenari eta aldi batez amaitu aurretik jarraipena egiten duenari, epez kanpo ez ibiltzeko. Gogorarazpen hori hainbat aurrerapen-tarterekin konfiguratu daiteke, eta zereginaren hasiera-data ere adieraz daiteke. Hau da, datorren hilean gauzatzeko den zeregin baten txartela sor daiteke gaur.



⚠ ADI!

Oro har, jakinarazpenak goialdean eskuinean dagoen kanpaitxora joanda ikus daitezke Trello. Gainera, txartel bakoitza jarraitzen duten pertsonen posta elektronikora iristeko moduan ere konfiguratu daitezke, zehaztasun maila desberdinekin. Jakinarazpen-menuaren eskuinaldean dauden hiru puntutxo bertikalen ikonoa sakatuz gero, aukera gehiago ikusiko dira, epemugaren hurbiltasuna baino gai gehiago jakinaraz baitaitezke. Nolanahi ere, jakinarazpenak taldekideen helbide elektronikoak gainezka ez egiteko moduan konfiguratzeko komeni da. Hori gertatzen denean, elkarlanean ari direnek ez baitute kasurik egiten.


- **“Artxibatu”**. Txartel batekin egin beharreko lana amaitzen denean (adibidez, hizlari-proposamen bat baztertu egin du zuzendaritza zientifikoak) txartela “artxibatu” egin daiteke. Horrek ez du txartela ezabatzen: zakarrontzi batera bidaltzen du. Ekintza hori desegin nahi izanez gero, dagokion taularen menura jo behar da; hau da, aplikazioaren goialdean eskuinean dauden hiru puntutxo horizontaletara. Bertan, “... gehiago” aukeratu klik egin behar da eta ondoren, “artxibatutako elementuak” 4. aukeratu. Hor agertzen dira artxibatutako txartelak, eta lehen zeuden zerrendan berrezarri daitezke (“bidali taulara”) edo behin betiko ezabatu (ikus 4. irudia).



4. irudia. Trelloko taula bateko “artxibatutako elementuak” menua.

Etiketen erabilera

Txartelen azalekin ikusi berri dugun moduan, Trello txartel bakoitzari etiketak esleitzeko aukera ematen du. Esanahia lantaldean adostutako kolore-kodearen arabera da, baina ohikoena zereginaren egoerarekin lotzea da. Zeregina oso konplexua bada edo jende askok lan egiten badu bertan, taulan legenda gisako zutabe bat ere sar daiteke (ikus 5. irudia), taldeko kide guztiei etiketa bakoitzaren esanahia argi uzteko (ikus 6. irudia).



5. irudia. Trelloko zutabea, etiketen legenda duena.



6. irudia. Etiketen esanahiaren deskribapena, Trelloko txartel baten goialdean.



Etiketak esleitzeko, klik egin behar da txartelaren gainean saguaren eskuineko botoiarekin edo editatzeko ikonoarekin, etiketaren izenburuaren amaieran. Horrela, menu batera iristen da, non hainbat kolore esleitu daitezkeen. Txartel batek etiketa bat edo gehiago izan dezake, 6. irudiaren adibidean bezala. Etiketa bakoitza kolore bat bakarrik izan daiteke, edo testu bat ere izan dezake esleituta. Adibidez, gorriari "garrantzitsua" edo "urgentea" lotu dakioko. "Editatu etiketa" menuan, txartelak izango dituenak esleituko dira. Trellok zortzi kolore komun eskaintzen ditu lehenetsita, baina txartel berriak sor daitezke, taula horretan eta beste batzuetan erabiltzeko.


Taularen ikuspegitik, txartelaren izenburuaren gainean ikusiko den etiketa kolore bat baino ez da izango, baina txartelaren gainean klikatuz gero, kolorea eta lotutako testua ikusiko dira. Horrela, antolaketa-ikuspegi bakoitzaren hutsuneak konpentsa daitezke. Hau da, zereginen egoeran oinarritutako ikuspegia aukeratu bada, etiketek balio dezakete etiketa berean eduki mota bereko edo talde beraren zereginak multzokatzeko. Zeregin-moten arabera antolatutako taula bat aukeratu bada, etiketek balio dezakete adierazteko zer zeregin dauden egiteke edo martxan, zeintzuek duten urgentzia edo zeintzuk dauden eginda edo epez kanpo.

Checklisten erabilera

Txartelak zerrenden edo zutabeen barruan dauden zereginak dira, eta checklistak, txarteletan txerta daitezkeen azpizereginen zerrendak. Hala, zeregin konplexu bat zeregin sinpleagotan bana daiteke, eta, azken horietako bat egiten den bakoitzean, markatuta utzi. Horrekin, zeregin batek ez ditu bi egoera bakarrik izango (egiteke edo eginda), eta haren garapena xehetasun handiagoz ikusi ahal izango da, ez baita gauza bera egiteke dagoen baina % 80 bukatua duen zeregin bat eta heren bat eskas egina duen beste bat.

Checklist bat egiteko, txartelera sartu behar da eta aukera hori hautatu eskuineko menuan: "Erantsi txartelean" > "Checklist". Bertan, zerrendari izenburua emateko eskatuko da.

Era berean, checklista taularen beste toki batetik kopiatu ahal izango da, lehendik sartua bagenuen hor. Hori oso baliagarria da, litekeena baita antzeko checklist bat erabiltzea (adibidez, hizlarien proposamenari dagokionez: proposamena, balioztatua, kontaktatua, erantzundakoa), eta horrekin denbora luzea aurreztu ahal izatea.






Behin edukia zehaztuta, egokitzat jotzen diren elementuak edo azpizereginak erantsi behar dira. Horietako bakoitzari epemuga bat erantsi dakiok, txartel osorako azaldu den bezala. Era berean, azpizeregin bakoitza lantaldeko kide bati eslei dakiok, txartel osoekin egin daitekeen bezala. Hala ere, azken bi aukera horiek ez daude eskuragarri doan.

Checklista osatzen duten azpizereginak ezin dira osatu informazio edo xehetasun gehiagorekin, baina txartel oso berri bihur daitezke, lehen ikusitako aukera horietara guztietara sartu ahal izateko (ikus 7. irudia). Horretarako, azpizereginaren eskuinaldean ikusten den etenpuntuen botoian klik egin behar da, eta horrek aukera emango du zerrenda edo zutabe orokor horren barruan txartel oso bihurtzeko. Etenpuntuen botoiak azpizeregina ezabatzeko aukera ere ematen du. Azken hori eta egindako bezala markatzea ez dira gauza bera.

Azkenik, azpizeregin bakoitza ezkerrean markatu ahal izango da osatzen denean, eta horrekin checklistaren bilakaera-barra beteko da. Txartel berean checklist bat baino gehiago sar daitezke.

Aplikazioa instalatuta badago, menu horretatik sartu ahal izango da bertara. Gainera, instalatzen diren aplikazio guztiak agertuko dira Mirok ezkerrean duen tresna-barra bertikaleko integratzeko ikonoa klikatuta, 2. irudiak erakusten duen bezala.



7. irudia. Checklistak Trelloko txartel baten barruan.



Beste aplikazio batzuekiko integrazioa

Ikusi diren funtzioen eta beste batzuen bidez Trello aukera asko eskaintzen dituen arren, komenigarria litzateke funtzio horiek antolaketarako edo lan kolaboratiborako beste aplikazio batzuen erabilerarekin osatzea. Horretarako, beste aplikazio batzuetako fitxategiak integra daitezke txartelen barruan. Adibidez, jardunaldiak egiteko "espazioen" zerrendan, kalkulu-orri partekatu batekin lan egin nahi bada, denbora errealean, erabilgarri dagoen espazio bakoitzeko baldintzei eta negoziazioei buruz, Google Driveko kalkulu-orri bat integratu edo erantsi daiteke. Bi bide daude hori egiteko:

Zuzenena da kalkulu-orrirako esteka txartel berri baten izenburuan edo barruko bere jarduera-espazioetako batean kopiatzea. Hala eginez gero, estekatutako dokumentua txartel horri lotutako taularen azalez eskuratu ahal izango da, edo txartelaren barrualdetik, bertan klik egin ondoren.



⚠ ADI!

Eransten den edo sartzeko bidea txartel batean kopiatua duen dokumentu oro bere baimen-sistema beraren bidez baino ezin izango da eskuratu, eta ez Trelloko lan-eremuak duenaren bidez. Hau da, pribatuki mantentzen den kalkulu-orri baten esteka itsasten bada, edo hura ikusi baino ezin bada egin, baina editatu gabe, lantaldeko kideak ezin izango dira bertara sartu edo ezin izango dute hura editatu, nahiz eta baimen horiek izan Trelloko espazioan. Eta beste horrenbeste, alderantziz.

Aplikazioak integratzeko beste modu bat da, behin txartelean klik egin eta barruan egonda, eskuinaldeko "eranskina" botoia sakatzeko. Horren ondorioz, erantsi beharreko dokumentuaren jatorrizko leku-aukerak dituen menu bat zabaltzen da; aukera horiek norbere ordenagailutik eta Trelotik lan kolaboratiborako aplikazioetaraino (Google Drive, OneDrive edo Dropbox) doaz.

Lana antolatzeko modu bisualagoa

Atal honetan, antolaketa-tresnek itxura atseginagoa izateko eta lanaren antolamenduari buruzko informazioa osagai bisualen pisu handiagoarekin emateko soluzioak erakutsiko dira.



Trellon irudiak eta argazkiak erabiltzea

Trello ez da inpaktu bisualagatik nabarmentzen den tresna bat, baina badu antolaketan inpaktu bisual hori hobetzeko funtzio multzo bat.

Lehenengoa irudiak eranstea da. Horretarako, hodeiko gure biltegiatze-sisteman dagoen fitxategi baterako esteka kopiatu daiteke txartel baten izenburuan edo, haren barruan, "jarduera"-gelaxketako batean.

Irudiak eransteko bigarren modua, azken atalean aipatu bezala, irudi hori ordenagailutik bertatik edo hodeiko biltegiatze-zerbitzu batetik eranstea da.

Beste aukera bat txartel batzuei azalak eranstea da. 3.1. atalean ikusi genuen bezala, "Azala aldatu" aukeraren bidez, txartelaren goialdeari irudi edo argazki bat lotu dakioke (Trellon dituenetako edo ordenagailuan ditugunetako bat). Aukera hori taulatik aktiba daiteke, dagokion txartelean saguaren eskuineko botoiarekin klik eginez edo, txartelaren beraren barrualdetik, eskuinaldeko eta beheko zutabeko jarduera-menuko "Azala" aukerari klik eginez.

⚠ ADI!


Taulako eta txartelen azaletako irudiekin eta argazkiekin lotutakoa ez da kontu estetiko hutsa; kolore- edo irudi-kodeak informazio asko eman dezake, lehen begiratuan, zeregin horren egoeraz edo hura gauzatzeaz edo jarraitzeaz arduratzen den taldeaz (edo pertsonez).

Plannereko antolaketaren irudikapen grafikoa

Planner Microsoften plangintza- eta antolaketa-tresna da. Tresna horren bidez, zereginen egoera hainbat modutan ikusi daiteke. Alde batetik, zereginak zerrendetan antolatzen ditu, Trello ikusi den bezala, baina egutegi baten barruan ikusteko aukera ere ematen du, eta haien egoerari buruzko grafikoak sortzen ditu. Zereginen egoera grafikoetan ikusteak egoeraren panorama orokorra eskaintzen du berehala, garapen-egoeraren, zereginen lehentasunaren edo haiek esleitu zaizkion taldeko kidearen arabera.



Tarta- eta barra-grafiko errazak badira ere (ikus 8. irudia), zeregin bakoitzerako sartu diren datuetatik abiatuta automatikoki sortzen direnez, baliagarriak eta efizienteak dira proiektuaren ikuspegia taldekide guztiei helarazteko eta antolakundeko beste atal batzuentzako aurkezpenetan erabiltzeko.



8. irudia. Jardunaldi zientifikoen adibidearen "grafikoen" irudia Planneren.

Mondayko baliabide grafikoak: widget-panelak

Monday beste plangintza-tresna bat da, eta erreferentzia-bideoan azaldu zen. Mondayren bidez, konplexutasun handiko proiektuak antola daitezke eta beste talde batzuekin elkarlanean jardun. Mondayren alderdi interesgarri bat da antolaketa-lanak errazten dituzten widgetak edo miniaplikazioak integratuta izatea. Horietako batzuek proiektuaren zereginen egoeraren itzulpen grafikoa egiten dute.



Mondayn, lantzen ari garen proiektua hainbat modutan ikus daiteke. Ikuspegi batzuek informazio asko jasotzeko aukera ematen dute (bideoan erakutsitakoa, adibidez, zeinak, zereginak egutegian kokatzeaz gain, esleipena duten pertsonak eta zereginen egoera erakusten dituen), baina ez dute, hala ere, aurkezpen grafiko oso erakargarririk. Horretarako, panelak erantsi daitezke eta lehen aipatutako widgetak sartu haietan. Kasu honetan, zereginen itzulpen grafikoa egiten dutenak interesatzen zaizkigu. Horretarako, "Taula nagusia" lan-eremura sartu behar da, eta eskuineko + zeinuan klik egin. Horrela, zereginak diseinatzeko aukera berriak irekiko dira, grafikoenetatik (barra-diagramak, adibidez) hasita, zereginak Kanban diseinu baten arabera antolatzen dituztenetara, proiektuaren aurrerapena sinbolizatzen duen batera baten zati gisa edo Gantt diagrama gisa erakusten dituztenetara. Hasierako taula beraren barruan, ikuspegi desberdin horiek erantsi daitezke, sartutako datuetatik abiatuta automatikoki sortzen direnak. Ikuspegi berri horietako bakoitzak "widget" izena du Mondayn, baina beste mota batzuetako widgetak ere badira.

i Gehiago jakiteko

Dokumentu honetan aipatu diren aplikazioek beren produktuen erabilerari buruzko informazio asko ematen dute, ohiko galderentzako erantzunak eta tresnak ahalik eta gehien esplotatzeko xehetasunak. Gainera, hemen aipatutako gai gehienak espainieraz zabaldu dira:

- **Trellorako**, adibidez, beste aplikazio batzuen integrazioari buruz: trello.com/guide/integrate-apps
- **MS-Plannererako**: e.digitall.org.es/msplanner-crear
- **Mondayrako**. Aplikazioak laguntza-zentro bat du, informazioa hainbat ataletan antolatzen duena, eta gaztelaniaz, gainera. Dokumentuan jorratutakoa honelako izenburuei dagokie: "Bistaratu zure datuak panelekin" edo "Erabili Gantt diagrama grafikoa epe guztiak betetzeko". e.digitall.org.es/monday-empezar



DigitAll

Komunikazioa eta
elkarlana

2.5

SAREKO JOKABIDEA





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.5 Sareko
jokabidea

Berehalako mezularitza- aplikazioetako netiketa





Berehalako mezularitza-aplikazioetako netiketa

Sarrera

Mundua sortu zenetik, gizakia urrutitik hitz egiteko komunikazio-sistemak aurkitzen saiatu da: ke-seinaleak, erreflexuak, sintoniak, banderak, argiak, txistuak... Antzera, telefono adimendunetan eta ordenagailuetan erabiltzeko diseinatutako berehalako mezularitza-plataformek funtzio hori bete dezakete gaur egun. Hala ere, teklatu txiki batean idazteko zailtasunek edo baldintzatzaile teknikoek arintasuna ken diezaioke elkarreragin mota horri, edo gaizki-ulertuak ere eragin ditzakete. Horregatik, garrantzitsua da horrelako plataformetan mezuak trukatzeko orduan indarrean dauden netiketa-arauak ezagutzea.

"Berehalako mezularitza-aplikazioetako netiketa" izeneko A2C25B2V02 bideoa osatzen duen dokumentu honetan, aholkuak ematen dira, berehalako mezularitza-aplikazioetan elkarri eragiteko orduan. zein jokabide diren egokiak eta zeintzuk ez ezagutarazteko. .



BEREHALAKO MEZULARITZA-APLIKAZIOETAKO NETIKETA

Bideo tutoriala, non berehalako mezularitza-aplikazioak dituzten agertokiak erakusten diren, sareko jokabide ona eta txarra erakusteko.

e.digitall.org.es/A2C25B2V02

Bitartekoa da mezua

Epigrafe honi izenburua ematen dion esaldia Marshall McLuhanek sortu zuen *Understanding Media: The Extensions of Man* liburuan (*Komunikabideak ulertzea: gizakiaren hedadurak*), 1964an argitaratutakoan. Haren bidez, McLuhanek honako honetan arreta jartzea nahi zuen: mezu bat transmititzeko bitartekoa ez da neutrala; aitzitik, haren edukiaren pertzepzioan eragiten du.



Adibidez, argi elektrikoa mezurik gabeko hedabidea da, ez baitu edukirik, egunkari batek ez bezala, non albisteak, elkarrizketak edo iritzi-artikuluak argitaratzen diren, eta telebistan hainbat programa erakusten dira. Hala ere, bonbilla batek gauez espazioak argiztatzeko aukera ematen du, horiek iluntasunaren eraginetik ateratzeko. Hori dela eta, McLuhanek dio argindarra gizarte-eragina duen baliabidea dela.

Kanadako filosofo horrek oso gustuko zuen hitz-jokoak egitea, *message* ("mezua"), *mass age* ("aro masiboa"), *mess age* ("hondamendiaren aroa") eta *massage* ("masajea") terminoak parekatuz. Izan ere, bere ustez, komunikabide bat gai da pertsonak kiropraktikoen antzera "igurzteko" eta "masajeak emateko", eragina baitu helarazitako edukiak interpretatzeko moduan.

Gehiago jakiteko

Berehalako lehen mezularitza-plataforma 1970eko hamarkadakoa da, PLATO sistema erabiltzen hasi zen garaikoa. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, UNIX/LINUXen ezarritako sistemak hedapen handia lortu zuen ingeniari informatikoen artean. Baina ICQ sistema, 1996an sortua, izan zen gaur egungo aplikazio kopuru handiaren ernamuina.

e.digitall.org.es/revista-comunicar

Parametro batzuen arabera, erabiltzaileak berehalako mezularitza-aplikazio bat edo bestea aukeratuko du, bere interesak kontuan hartuta.

Era berean, esan liteke, ordenagailu bidezko komunikazioan, mezuaren formak eta hura transmititzeko erabilitako aplikazio motak eragin handia dutela bidalitakoan. Hala, mezu bat zabaltzeko berehalako mezularitza-aplikaziorik egokiena aukeratu aurretik, internautak honako galdera hauek egin beharko lituzke:

- **Zenbat erabiltzaile ditu aplikazio jakin batek?** Zenbat eta erabiltzaile gehiago izan, orduan eta aukera handiagoa izango da mezu bat audientzia potentzialera helarazteko, eta, era berean, aukera handiagoa izango da internautak, aplikazio horretarako sarbidea duten internauta guztien artean, bere kontaktuak aurkitzeko.



- **Zein da talde-txaten gehienezko edukiera?** Gai hori garrantzitsua izan daiteke beren mezuak kontaktu-talde handi bati helarazteko beharra duten erabiltzaileentzat. Alde handia dago aplikazioen artean, horiek har dezaketen talde-txaten gehienezko edukierari dagokionez.

Berehalako mezularitza-aplikazio jakin baten alde egin aurretik, komeni da haren pribatutasun-baldintzak ezagutzea.

- **Zein dira aplikazio jakin baten pribatutasun-baldintzak?** Batzuek mezu guztiak zifratzen dituzte. Beste batzuek, ordea, txat sekretuen bidez bidalitakoak baino ez dituzte zifratzen. Badaude, halaber, txata pasahitz batekin babesteko aukera ematen dutenak. Horietako batzuetan, telefono-zenbakia bera jarri behar da, eta, beraz, erabiltzaile potentzialak hausnartu behar du, aplikazio horretan alta eman aurretik, informazio pertsonal hori eraginpean jarri nahi duen.
- **Egin daiteke segurtasun-kopia bat?** Aplikazio batzuek beste batzuek baino erraztasun handiagoa ematen dute segurtasun-kopiak egiteko edo mezu garrantzitsuak berrezartzeko, adibidez, mugikorra aldatzen denean.

Aplikazio guztiek ez dute gailu anitzeko euskarririk.

- **Zer fitxategi mota bidali nahi dira?** Aplikazio batzuek testua eta emotikonoak bidaltzeko aukera baino ez dute ematen; beste batzuek, berriz, bideoak zabaltzekoa, fitxategiak eranstekoa edo norberaren kokapena denbora errealean partekatzekoa ere eskaintzen dute. Erabiltzaile batzuek istorioak (*stories*) argitaratu ohi dituzte, horrelako mezuen formatu iragankorra nahiago baitute. Hala ere, aplikazio guztiek ez dituzte istorioak barne hartzen.
- **Posible da aplikazioaren beste erabiltzaile batzuekin dei eta bideodeien bidez harremanetan jartzea?** Aplikazio batzuek deiak egiteko aukera ematen dute, baina guztiek ez dute bideodeiak egiteko gaitasunik (banakakoak zein taldekakoak).





- **Onartzen da gailu anitzeko euskarririk?** Aplikazio jakin batzuek soilik ematen dute aukera, adibidez, mugikorreko aplikazioaren bidez solasaldi bat hasi eta gero hura ordenagailuan jarraitzeko.

Parametro horien arabera, erabiltzaileak berehalako mezularitza-aplikazio bat edo bestea aukeratuko du, bere interesak kontuan hartuta. Eta horrek, logikoa denez, bere mezuen forma baldintzatuko du. WhatsApp, Instagram, Telegram, Facebook Messenger, Snapchat, Discord, Signal edo Line dira aplikaziorik ezagunenak.

OHARRA

IABSpain aholkularitza-enpresa ospetsuak egindako *Sare sozialen azterketa 2022* txostenaren arabera (2023ari dagokiona oraindik ez da argitaratu), Whatsapp da Espainian gehien erabiltzen den mezularitza-plataforma (egunero % 94k erabiltzen du). Ondoren, Instagram (% 68). Txikiagoa da Snapchat (% 32), Discord (% 30), Waze (% 19) eta Telegram (% 5) egunero erabiltzen dutenen ehunekoa.

iabspain.es/estudio/top-tendencias-digitales-2023

Publikoa ala pribatua?

Mezu bat berehalako mezularitza-plataforma batean argitaratu aurretik, komeni da galdetzea erabiltzaile bakar bati edo askori zuzenduko zaion. Gainera, mezu hori publikoa edo pribatua izango den hausnartu behar da, testuaren idazkera edo erantsitako edukiak baldintzatu baititzake horrek. Baina hori alde batera utzita, une oro errespetatu behar da hirugarrenen pribatutasuna.

Sare sozialen eta berehalako mezularitza-plataformen erabilera orokorrak aldatu egin ditu Interneteko elkarreragin-dinamikak. Ugaritu aurretik, mezu gehienak pribatuak ziren. Adibidez, mezu elektronikoak edo bi mugikor artean trukaturako mezuak. Hala ere, gero eta testu gehiago zabaltzen dira hartzaille askorengana irits daitezen.



Mezu bat idatzi aurretik, hartzailea nor den eta zer testuingurutan transmitituko den ezagutu eta baloratu behar da.

Egia da mugikorren teklatuak zaildu egiten duela mezu bat azkar idaztea eta azentuak eta puntuazio-zeinuak jasotzea. Lagunarteko elkarreragin batean honako hauek barkatzeko modukoak dira: laburdurak ugaritzea, enuntziatu batean harridura- edo galdera-zeinuak behar bezala ez erabiltzea, azentuak kentzea, letra guztietarako letra larria erabiliz hitzak idaztea asertzioa indartzeko, edo puntu baten ondoren minuskula erabiltzea.


Hala ere, praktika horiek ez dira gomendagarriak lan-eremuan edo eremu publikoan zabalduko den mezu bat idazteko. Oso ezagunak dira, ortografia-akatsak direla-medio, eskarnio publikoa jasan duten pertsona famatuen aurkako herritarren protesta-kasuak.

Edozein komunikazio motatan gertatzen den bezala, ordenagailu bidezko komunikazioan ere adeitasun-arauak errespetatu behar dira, eta besteen irudia kaltetzea saihestu behar da. Adibidez, mezu bat idatzi aurretik, komenigarria da pentsatzea zer erregistro komeni den erabiltzea.

Hor ere erritu bidezko adeitasuna izenekoa erabili ohi da. Hau da, agurrak, eskerrak, konplimenduak, zorionak eta abar. Gainera, testuinguruak justifikatzen ez badu, aginduak saihestu egin behar dira. Adibidez, eskaera edo galdera gisa planteatu behar dira horiek.

Irainak eta deskalifikazioak ere ez dira aukera ona berehalako mezularitzaren bidezko elkarreraginetan. Praktika horiek mezuaren hartzailearekiko edo erreferentearekiko hitzezko eraso dira eta idazten dituenaren irudia hondatzen dute. Anonimotasunak ere ez du adeitasunik eza justifikatzen.

Finean, mezu bat idatzi aurretik, zer testuingurutan transmitituko den eta hartzailea nor den ere ezagutu eta baloratu behar da. Adibidez, bezero batekiko komunikazioa eta senide edo ezezagun batekiko elkarreragina oso ezberdinak dira.





Gaztelaniari dagokionez, zer gaztelania erabili?

Mezua hainbat herrialdetako gaztelaniadunei zuzentzen bazaie, komeni da gaztelania *neutroa* erabiltzea. *Gaztelania neutroa*, *nazioartekoa*, *globala*, *orokorra* edo *estandarra* terminoak erabil daitezke gaztelaniadun guztiek zailtasunik gabe uler dezaketen gaztelaniari erreferentzia egiteko.

Mezua hainbat herrialdetako gaztelaniadunei zuzentzen bazaie, komeni da gaztelania *neutroa* erabiltzea.

Gaztelania neutroak ez du zerikusirik eremu geografiko jakin bateko lokalismoekin eta dialektoekin. Beraz, berehalako mezularitza-plataforma baten bidez trukaturako mezu bat zabandu eta jasotzen denean akatsak gertatzeko arriskua txikiagoa da hizkuntza-modalitate hori erabiltzen bada.

OHARRA

Gaztelania neutroa sintagma ugariago erabiltzen da kontinente amerikarrean. Han, ohikoa da modalitate "neutro" honetako konpetentzia nahitaezko baldintza izatea komunikazioaren eta telemerkadotekniaren profesionalentzat. Kasu horietan, tokian tokiko hizkuntza-ezaugarriak interferentzia desegokitzat hartzen dira hedabide-erloko produktuen eta pertsonen sustapenean.

e.digital.org.es/espanol-internacional

Hitzik onena, laburrena

Baltasar Gracian idazle aragoiarrak aforismo hau idatzi zuen *Oráculo manual y arte de prudencia* (1647) liburuan: "Laburtasuna lausengaria eta, are, negoziatzailea da. Adeitasunagatik irabazten du laburragatik galtzen duenak. Hitzik onena, laburrena. Eta txarra bada ere, gutxi bada, ez da hain txarra". Lan horrek komentaturako hirurehun aforismo ditu, gizartean moldatzeko jokabide-arauen multzo bat osatzen dutenak. Orduko gizartea, zeinarentzat idatzi zuen Gracianek, barrokoa eta gaur egungoarekiko oso ezberdina zen arren, laburtasuna adeitasun-adierazpentzat hartzea netiketara estrapolatzeko modukoa da.



Hain zuzen ere, berehalako mezularitzaren ezaugarri nagusietako bat berehalakotasun komunikatiboa da. Horretarako, idatziko kodearen bidez, ahozko hizkuntzaren estilo sintetikoa eta lagunartekotasuna imitatzen dira. Sintesia laburduren eta emotikonoen edo multimedia-*stickerren* bidez lortzen da, eta horiek kode grafikoan ez dauden baina erraz gogoratzen ditugun keinu jakin batzuetara eramaten gaituzte.

Posta elektronikoarekin gertatzen ez den bezala, berehalako mezularitza presaz idazteko komunikabide gisa hartu da, non mezuaren hartzaileak berehala erantzutea espero baita. Horregatik, funtsezkoa da argitasuna, eta ez da komeni paragrafo luzeak erabiltzea. Ohikoena oso lerro gutxiko mezuak dira.

Hobe da esaldi laburrak eta egitura sinplekoak erabiltzea (SUBJEKTUA+ADITZA+OBJEKTUA), mendeko perpausak alde batera utzita; aditzak boz aktiboan erabiltzea (boz pasiboa saihestea gomendagarria da) eta perpausaren hasieran informazio garrantzitsuena jartzea.

Pleonasmok saihestu behar dira, hau da, hitz erredundanteak edo esanahirik gabekoak. Era berean, ez da komeni artxiberbalismoa edo perpausak alferrik luzatzea, honelako egiturak erabiliz: "partidari begira elur-prezipitazioak gertatuko dira", "partidan elurra egingo du" erabili beharrean. Gainera, hobe da artxisilabismoa saihestea, hau da, alferrik hitz luzeak sartzea, hala nola "derrigortasuna" ("derrigor" jarri beharrean). Horrelako baliabideak erabiltzeak berehalako komunikazioa eragozten du, eta irakurlea nekatu eta aspertu egin daiteke.

Mezu bati denbora luzea pasatu ondoren erantzutea adeigabetasun-adierazpentzat har daiteke.

Kontuan izan behar da mezu horietako asko lan-ordutegian edo erabiltzailea bere bizitza pribatuko beste zeregin batzuetan ari den bitartean jasotzen direla. Horregatik, hobe da alferrikako distrakzioak eragin diezazkioketen garrantzirik gabeko mezuekin ez inguratzea.





Bestalde, ez erantzutea edo erantzuteko denbora luzea pasatzea adeitasun-faltatzat har daiteke. Berehala erantzun ezin bada, onena mezua jaso dela jakinaraztea da, baina denbora pixka bat gehiago behar dela proposamena pentsatzeko. Gainera, egoera zail batean edo mezuaren hartzailea irainduta sentitu bada, komeni da "beroan" ez erantzutea; aitzitik, erreplika lasai pentsatu ondoren erantzun behar da.

Arriskuan daude hizkuntzak?

Tony Judt historialari britainiarrek 2010ean adierazi zuen Interneteko idazkerak ugaritzea mehatxua zela edozein hizkuntzarentzat. Bere ustez, hitza arriskuan zegoen, *neo-hizkuntza* baten sinpletasun eskas eta ez-seguruen eragina zela eta. Kontzeptu hori George Orwell idazleak sortu zuen 1984 eleberrian, ingelesaren bertsio sinplifikatu bat aipatzeko (boterean zegoen Alderdiaren tresna totalitario gisa erabiltzen zena bere lan horretan). Hala ere, Judtek nahiago zuen ez-hizkuntzat jo, gutxiespenez, ordenagailuaren bidezko komunikazioan erabilitakoa.

Gehiago jakiteko

Endekapen-gaixotasun baten ondorioz hil baino pixka bat lehenago, Tony Judtek honako hau planteatu zuen: "Hizkuntza nahasiari mespretxuz begiratzen jarraitzen dut. Orain konturatzen ari naiz, hura erabiltzeko libre ez naizela, zein funtsezkoa den komunikazioa guztion onerako: ez bakarrik elkarrekin bizitzeko erabiltzen dugun bitarteko gisa, baizik eta elkarrekin bizitzeak esan nahi duenaren zati gisa. Nire hazkuntza-garaiko hitzen aberastasuna espazio publiko bat zen eskubide propioz, behar bezala kontserbatutako espazio publikoak, gaur egun falta duguna. Hitzak hondatzen badira, zerk ordezkaturko ditu? Hori besterik ez dugu".

e.digital.org.es/obituary

2013ko urtarrilean, Erresuma Batuko Historiako beste irakasle batek, David Abulafiak, ziurtatu zuen sare sozialen eta berehalako mezularitzaren erabilera hizkuntza idatzia suntsitzen ari zela. Bere ustez, honako honen ondorio zen hitzen erabilera egokiari zegokion maila intelektualaren gainbehera: berehalakotasuna eta Interneten hizkuntza erabiltzeko gogoeta eskasa. Hala ere, Cambridgeko Unibertsitateko ikertzaile horren baieztapenek eztabaida sutsua eragin zuten. Baita bere ikasleen artean ere, baieztapen haiekin ados ez zeudela adierazi baitzuten.



Berehalako mezularitza-plataformetan komunikazio-modu berri bat sortzen ari da, baina ez da ikuspegi katastrofista batetik ikusi behar.

Hizkuntzaren ikuspegi katastrofista baten emaitza dira iritzi horiek, arriskuan dagoen ondasun komun gisa aurkezten baita hizkuntza, eta, beraz, etsai erreal edo birtualen aurka defendatu beharrekoa. Hala ere, egoera ez da hain dramatikoa, sare sozialetan eta berehalako mezularitza-plataformetan gertatzen ari dena komunikatzeko modu berri baten sorrera delako.

Hala, bereizi egin behar dira, batetik, ortografia-akatsak ugaritu izana (autore batzuek *antiortografia* gisa ere kalifikatu dute; Gabriela Palazzok, adibidez), eta, bestetik, *heterografiak*. Jose Martinez de Sousak espainieraren grafiaren arauetara buruzko ezjakintasunari egotzi dizkio lehenengoak. Bigarrenak, aldiz, bere ustez, nahita egindako desbideraketak dira.

Gehiago jakiteko

Jose Martinez de Sousa ospe handiko galiziar lexikografoa da, ortografiaren eta ortotografiaren azterketan espezializatua. Hogei hiztegi baino gehiago, hainbat komunikabideren estilo-liburuak eta gaztelaniaren ortografiari buruzko eskuliburuak argitaratu ditu.

martinezdesousa.net

Hainbat arrazoik eragin dezakete heterografia bat. Adibidez, hitzun baten sormena, nolabait erabilera bat zabaldu duena, nahiz eta konbentzio-izaera hartu ez. Adibidez, espainieraz, "c" grafemaren ordez "qu" jartzea honelako enuntziatuetan: "**Qual cantante te mola más?**".

Beste mota bateko heterografiak *alternatibo* gisa kalifika dezakegun ortografia-konbentzio bati dagozkio. Horiek hainbeste erabili dira, ezen erabilera arrunt bihurtu baitira azkenean. Jatorria digitala edo ez-digitala izan daiteke. Horrela, termino jakin baten idazketaren laburdurak Grezia Klasikoan edo Erroma Inperialean ere erabiltzen ziren, eta, adibidez, espainieraz, duela hamarkada batzuetatik ekisa erabiltzen da *por* silabaren edo preposizio homografoaren ordez: "**alomejoo ponen el classic otra vee.. xq a casi tol mundo no le gusta este...**"; "**Buenos días a todos x la mañana...**".





Badirudi, berehalako mezularitza-plataformetako idazkeran, baztertu egiten dela mezua transmititzeko erabat beharrezkoa ez den guztia.

Adierazteko presak baliabide mota hori eragiten du, baita bokalen galera eta laburduren erabilera ere. Batzuk oso zabaldua daude berehalako mezularitzan, hala nola (espainieraz) *besos* substantibo pluralaren edo *fin de semana* sintagmaren irudikapenak: **“Enhorabuena querido - a ver si este finde me paso a ver la exposición - Bss a montones artista!!”**. Sigla batzuk anglizismoetatik ere eratorritakoak dira, hurrengo mezuan ikus daitekeen bezala. Mezu horretan *barbacue* terminoaren laburdurarik arruntena erabiltzen da: **“Gracias grdita jeje ave si nos vemos ya,vienes a mi bbq?”**.

Berez, laburduren erabilera ez da gaitzesteko moduko eta netiketa urratzen duen ezer. Hala ere, komeni da kontuan hartzea zein helburu duen transmititu nahi den mezua eta zer hartzaileri zuzentzen zaion. Adibidez, horiek guztiak ez dira batere gomendagarriak beste internauta batzuekiko elkarrengaren ohiko erregistro formalean, baldin eta haiekin ahaidetasun-harremanik ez badago.

Gainera, laburdurak ugaritzeak urduritasuna eragin dezake haiek ezagutzen ez dituztenen edo deszifratzeko gai ez direla sentitzen dutenen artean. Bazterketa-sentimendua eragin dezakete.

Bestalde, batzuetan, badirudi baztertu egiten dela mezua transmititzeko erabat beharrezkoa ez den guztia. Horregatik, hizkuntza-ekonomiaren printzipioari egotzi zaizkio erabilera horiek. Baita erosotasun eta azkartasunari ere, berehalako mezularitza-plataformen bidez zabaldutako testu askoren argitalpena baldintzatzen baitute horiek. Hitzen arteko tartetean ere aurrezten da, haietako asko bat eginda agertzen baitira: **“#parejasquemegustan yo y mi cama!!(aunque a veces la engaño cn elsofa)”**.

Laburdurek urduritasuna edo bazterkeria-sentimendua eragin dezakete ezagutzen ez dituztenen artean.




Oro har, berehalako mezularitza-plataformetan zabaldutako testuak telefono mugikorren bidez transmititzen direnekin (SMS esaten zaie) alderatu ohi dira. Haietan, karaktere-kopuruaren muga gainditzeak mezu berri baten kostua ordaintzea zekarren berekin. Esan liteke denbora aurrezteko nahiak eragiten duela, kasu horretan, hizkuntza-ekonomia. Horregatik, erabiltzaile askok beren mezuaren edukia ulertzeko beharrezkoak iruditzen ez zaizkien karaktereak bazterrean uztea erabakitzen dute.

Enuntziatuen hipersinplifikazio horrek kontrastea egiten du *i* letrarena bezalako errepikapen grafikoekin, maiz errepikatzen baita, hitz batean duen posizioa edozein dela ere: ***“Jacobiiin muchas felicidades guapeton! ya 19 niño, nos vamos haciendo grandesitos ya jajaja un besi...”***. Hala ere, ez dirudi letren errepikapen horrek, testu elektronikoetan zabaldu bada ere, jatorri digitala duenik. Izan ere, ohiko baliabidea izaten da, adibidez, edozein testu motatan aurki ditzakegun onomatopeietan.

Enuntziatuen hipersinplifikazioa ez dator bat errepikapen grafikoekin.

Heterografia digitaltzat jo liteke, ordea, uve bikoitza erabiltzea *g* edo *b* letren ordeztuz: ***“wapiyaaaaa jej aver cuando t veooo”***; ***“jajaja oooohhhh siiiinii k wenooooooooo amoxarle dos bellotaa vera como sta ves sale.perfestoo”***. Eta *y* kontsonantearen ordeztuz *i* bokala erabiltzea: ***“jajajajajaja ijaputiiii jajajaj yoo lo doi todo x mii betiss ombree ese el amor k nunca falla aunk...”***. *Ch* digrafoa ekis batekin irudikatzea bezala: ***“Felicidades xurrita pasalo en grande”***.





Idazketaren bidez hitz egitea

Heterografia batzuek hizkuntza mintzatua idazketan imitatzekeo beharrari erantzuten diote. Solasaldian, intonazioak garrantzi handiko funtzioa betetzen du. Izan ere, enuntziatuen zentzuaren ehuneko laurogeita hamarraren oinarria izan daiteke. Hala ere, idazketak baliabide orientatzaile gutxi dituenez (eten-puntuak, komatxoak, galdeketa- eta harridura-zeinuak eta ezer gutxi gehiago), ezin da grafikoki lortu solasaldiarenaren pareko intonazio-irudikapena.

Berehalako mezularitza-plataformetan, horren ordez, *idazkera ideofonematiko* bat erabil daiteke. Idazkera horrek testu baten edukia aberasten laguntzen du, igorlearen gogo-aldarteari buruzko informazioa edo haren hitzak interpretatzeko balizko jarrerari buruzkoa gehituta.

Idazkera ideofonematikoak pistak eman ditzake mezu baten egilearen gogo-aldarteaz.

Esate baterako, berehalako mezuetan, ortografia-akatsak dituen enuntziatu baten erabilera zabaldu da, non, formulazio-adeitasunaren berezko agurraren galdera-modalitatearen ordez ("kaixo, zertan ari zara?"), hainbat harridura-zeinu eta maiuskulak erabiltzen dira: **"#Rajoy. OLA K ASE!!!"**. Horrek guztiak aukera ematen du helburu ironikoa duela interpretatzeko.

Gainera, ahozko hizkuntza imitatzekeo ahaleginean, internautek sisipasa irudikatzen dute: **"Xurraaaa papa ma dxo k si este año kiero aser snow! Jaja le dxo k sii! Lo ases cnmgo?"**. Yeismoa ere bai: **"Oooooohh mii kanijaaaaa yo si q te echo d menooooos ave si vienes al barriooooo sta tarde te voi a yaamaaar!"**. Eta / letraren ordez r letra ere jar dezakete: **"gorfooo felicidad"**. Edo hatxea erabil dezakete xurgatutako soinu bat irudikatzekeo: **"Derroche de harte"**. Horrela, Andaluziako dialektoen ezaugarriak irudikatzen saiatzen dira. Askotan, asmo umoristikoarekin.



Emotikonoek mezu baten egilearen gogo-aldartea ere erakusten dute. Asko erabiltzen dira berehalako mezularitza-plataformen bidez zabaldutako testuetan. Hala ere, komeni da gehiegikeriarik ez egitea testuinguru profesionaletan, edo pertsona jakin batzuekin ari bagara eta haiekin konfiantza nahikorik ez badugu, gaizki-ulertuak eragin baititzakete. Era berean, sarkasmoa nolabaiteko zuhurtziaz erabili beharko litzateke, familia-eremura baztertuta eta lanbide-eremuan alde batera utzita.

Finean, berehalako mezularitza-plataformetan, hizkuntza beste erabiltzaileekin harremanak ezartzeko funtsezko tresna da. Hala ere, onena da zuhurtziaz idaztea, kontuan hartuta arau sozialak, internauten jatorrizko herrialdearen arabera alda daitezkeen desberdintasun kulturalak, erregistroa, komunikazio-egoera edo mezuaren hartzailearekiko lotura mota. Izan ere, esan ohi den bezala: "Jakintsuaren bihotzak zuhur egiten du ahoa, eta grazia eransten die ezpainei".





Gehiago jakiteko

Daniel Cassany: "Idazkera elektronikoa". Web helbidea: https://repositori.upf.edu/bitstream/handle/10230/27137/cassany_cye_escr.pdf?sequence=1&isAllowed=y [2023/02/21].

Gaztela-Mantxako Gaitasun Digitalak Garatzeko Zentroa: "Gaitasun digitaletan aurrera egiten: netiketa edo webeko jokabide-arauak, zer den eta zertarako balio duen". Web-helbidea: <https://www.bilib.es/actualidad/blog/noticia/articulo/avanzando-en-competencias-digitales-netiqueta-o-normas-de-conducta-en-la-web-que-es-y-para-que-sir/> [2023/02/25].

Leonardo Gomez Torrego: "Gramatika Interneten". Web-helbidea: https://www.academia.edu/19685215/La_gramatica_en_internet_Gomez_Torrego [2023/02/21].

Jose Ramon Morala Rodriguez: "Arroba, eñe eta emotikono artean". Web-helbidea: https://cvc.cervantes.es/obref/congresos/valladolid/ponencias/nuevas_fronteras_del_espanol/4_lengua_y_escritura/morala_j.htm [2023/02/21].

Gabriela Palazzo: "Gazteak adeitsuak dira txatean? Solasaldi birtualetako elkarrekintza-estrategien azterketa". Web-helbidea: [Http://www.cibersociedad.net/textos/articulo.php?art=60](http://www.cibersociedad.net/textos/articulo.php?art=60) [2023/02/21].

Pantaila Lagunak: "Sare Sozialetarako Netiketa Gaztea: herritartasun digitala eta ziberbizikidetzatza". Web-helbidea: <https://www.pantallasamigas.net/netiqueta-joven-para-redes-sociales-ciudadania-digital-y-ciberconvivencia/> [2023/02/25].



DigitAll

2.6

IDENTITATE DIGITALAREN KUDEAKETA





Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.6 Identitate digitalaren
kudeaketa

Gailu mugikorretan aztarna digitala konfiguratzeko





Gailu mugikorretan aztarna digitala konfiguratzeko

Aztarna digitalaren garrantzia gailu mugikorretan

Gaur egungo aro digitalean, agerikoa da gailu mugikorretan gizabanakoaren pribatutasuna gordetzearen garrantzia. Gailu horiek pertsonen eguneroko bizitzaren luzapen bihurtu diren heinean, funtsezkoa da ulertzea nola babestu daitezkeen datu pertsonalak etengabeko bilakaera-testuinguru honetan.

Dokumentu honetan, aholkuak emango dira ahalik eta aztarna digital txikiena uzteko, baita gailu mugikorraren konfiguraziotik (Android eta iOS sistema eragileetan) aplikazioen baimenak konfiguratzeko prozesu esplizituak ere.



GAILU MUGIKORRETAN AZTARNA DIGITALA KONFIGURATZEA

Aztarna digital txikiena utzita nabigatzeko aholkuak. Aholku bakoitzaren deskribapen soilak eta nola laguntzen duen aztarna digitala ez uzten.

e.digitall.org.es/A2C26B2V03

⚠ ADI!

Pertsonak Internetera konektatutako edozein aplikazio edo programa erabiltzen dutenean utzitako arrastoa da aztarna digitala. Beraz, aztarna digitala zenbat eta gehiago kontrolatu, orduan eta handiagoa izango da datu pertsonalen pribatutasuna.

Nabigatzailearen konfigurazioa

Interneten nabigatzen denean, web-orriek **erabiltzaileei buruzko informazioa biltzeko gaitasuna dute**. Bisita egiten den bitartean web nabigatzailean jarduten duten "**komando-sekuentzia**" izeneko programa txikien ondorio da hori. Nahiz eta normalean helburu legitimoak izan, hala nola multimedia- edukia kargatzea, "**aztarna digitalak**" **arakatzeko** ere erabil daitezke.

Aztarna digital horiek informazio zehatza dute erabilitako gailuari, sistema eragileari, web-nabigatzaileari eta erabiltzailearen online-esperientziarekin lotutako beste datu batzuei buruz.

Nonahi aztarna digitalak izatea ez da ideia ona. Aztarna horietatik bildutako datuak **enpresei sal dakizkieke** edo publizitate espezifikoak erakusteko erabil daitezke. Horregatik, garrantzitsua da online-privatutasuna babestea eta Interneten **nabigatzen denean aztarna digitalik ez uzten ikastea**.

Nabigazio-historia eta cookieak ezabatzea






Cookieak eta historia dira **pertsonak profilatzeko** komando-sekuentzia horiek eskura ditzaketen informazio-iturri nagusiak. Arrastoa zailtzea funtsezkoa da, nabigazio-historia eta *cookieak* ezabatuta. Jarraian, urratsez urrats zehaztuko da nola egin Google Chrome nabigatzailean (Androiden gehien erabiltzen den nabigatzailea) eta Safarin (iOSen gehien erabilitakoa).


Google Chrome

- **Sartu historiara:** Nabigatzailearen barruan gaudela, ireki "**gehiago**" menua eta ondoren joan "**Historia**" atalera (1. irudia).



1. irudia. Chromeko historiarako sarbidea Androiden. (geuk egina).

- **Ezabatu nabigazio-historia eta *cookieak*:** Pantaila honetan, gailuarekin bisitatu diren **webgune guztiak** ikus daitezke. "**Ezabatu arakatzeko datuak...**" hautatuz gero, **zein datu ezabatu nahi diren** eta zer denbora-tarte betetzen duten **hauta daiteke** (2. irudia).



2. irudia. Nabigazio-datuak eta *cookieak* ezabatzea Google Chromen (geuk egina).



Safari

- **Ezabatu nabigazio-historia eta -cookieak:** "Ezarpenak" menua ireki ondoren, "Safari" hautatu behar da eta "Ezabatu webguneen historia eta datuak" sakatu behar da (3. irudia). Historiarik, cookieak edo webgune-daturik ez badago ezabatzeke, botoia grisez agertuko da, eta ez urdinez, adibidean bezala.
- **Blokeatu cookieak:** Gerta daiteke nabigazio-historia gorde nahi izatea, gailu batetik bisitatzen diren orrien jarraipena egiteko. Cookieak blokeatzeko aukera dago. "Ezarpenak" menua ireki ondoren, "Safari" hautatu behar da eta "Blokeatu cookie guztiak" aukera aktibatu (4. irudia). Gogoan izan zenbait orri ez direla kargatzen aukera hori aktibatuz badago.



3. irudia. Safariren historia ezabatzea (Apple Support).


Ezkutuko modua edo nabigazio pribatua aktibatzea

Ezkutuko nabigazioa nabigatzaileen funtzio bat da eta erabiltzaileari aukera ematen dio **weba arakatzeko, historian nabigazio-daturik gorde gabe**, hala nola *cookie* edo pasahitzik. Hala ere, horrek ez du anonimotasun osoa bermatzen; izan ere, oraindik ere litekeena da Interneteko zerbitzu- eta webgune-hornitzaileek informazio jakin bat biltzea. Jarraian, Google Chrome eta Safarin nola aktibatu azalduko da.

- **Google Chromen sartzeko:** nabigatzailearen barruan gaudela, "gehiago" menua ireki behar da, eta, ondoren, "Ezkutuko fitxa berria" sakatu. Nabigazio-barraren ezkerrean, "ezkutukoa" ikurra duen fitxa bat irekiko da (5. irudia).




4. irudia. Safariren cookieak blokeatzea (Apple Support).



5. irudia. Ezkutuko nabigaziorako sarbidea Google Chromen (geuk egina).



- **Safarin sartzeko:** nabigatzailea gailuan ireki ondoren, "**fitxak**" botoia sakatu behar da. Jarraian, atzamarra irristatu behar da "**Nab. pribatua**" botoiraino eta ireki nahi den fitxa sakatu. Desaktibatzeko, atzamarra "**fitxa kopurua**" aldera irristatu baino ez da egin behar (6. irudiko adibidean, "2 fitxa"), eta ireki nahi den fitxa sakatu (6. irudia).



6. irudia. Ezkutuko nabigaziora sartu Safarin (geuk egina, Apple erabilita).

OHARRA

Funtzio horiek Windows eta macOS sistemetarako daude eskuragarri.

Euskarri tekniko orrietan, **Googlen** (e.digital1.org.es/cache-google) zein **Applen** (e.digital1.org.es/historial-safari) zeure ordenagailuan funtzio horiek nola aktibatu topa dezakezu.

Gehiago jakiteko

Prozeduretara sartzeko bideak aldatu egin daitezke gailuaren markaren arabera. Kasu horretan, markaren euskarri teknikoaren FAQa bilatu behar da Interneten.

- Support Google. **Cachea eta cookieak ezabatzea.** (e.digital1.org.es/cache-google)
- Support Google. **Modu pribatuan nabigatzea.** (e.digital1.org.es/incognito-google)
- Support Apple. **Cookieak Safarin ezabatzea.** (e.digital1.org.es/cache-apple)
- Support Apple. **Modu pribatuan nabigatzea.** (e.digital1.org.es/incognito-safari)



Gailuaren baimenak konfiguratzea

Smartphone batean aplikazioen baimenak behar bezala kudeatzearen garrantzia **erabiltzailearen pribatutasuna eta segurtasuna babestean** datza. Baimen horiek arautzen dute gailuaren zer datutara eta funtziotara sar daitezkeen aplikazioak.

Beharrezkoak ez diren baimenak emateak **arriskuan jar ditzake** datu pertsonalak eta aplikazioei nahi ez diren ekintzak egiteko aukera eman diezaieke. Baimenak kontu handiz kudeatzea lagungarria da **informazio partekatuaren gaineko kontrola mantentzeko** eta gailu mugikorraren osotasuna babesteko.

Nola aldatu aplikazioen baimenak?

Jarraian, Android eta iOS sistema eragilea duen telefono mugikor baten pribatutasun-aukeretan doikuntza hori nola egin azalduko da.

Android

- **Ireki Baimenen administratzailea:** Lehenik eta behin, **"Ezarpenak"** aplikazioa ireki behar da. Ondoren, **"Segurtasuna eta pribatutasuna"** aukera bilatu behar da. Gailuaren segurtasunaren estatus orokor bat agertuko da, eta behealdean, **"Pribatutasuna"** aukera. Jarraian, "Baimenen administratzailea" hautatu behar da (7. irudia).

⚠ ADI!

GAILUAREN MARKAREN ARABERA


"Baimenen administratzaileira" iristeko, baliteke "Segurtasuna eta pribatutasuna"-ren orde "Aplikazioak" menua bilatu behar izatea, eta menu horretatik bakoitzaren baimenak eskuratu ahal izango dira.



7. irudia. Baimenen administratzaileko sarbidea Androiden (geuk egina).



- **Appetarako baimenak aktibatzea eta desaktibatzea:**
"Baimenen kudeatzailearen" barruan, gailuan instalatutako aplikazioekin partekatzeko erabiltzaileak balioztatu beharreko informazio guztia ikus daiteke (8. irudia). Adibidez, gailua geolokalizatzeko baimena zer aplikaziok duten jakin nahi bada, "Kokapena" baimena ireki beharko da. Aplikazio jakin bat hautatzen bada, honako hauetako batera aldatu ahal izango da baimena (9. irudia):
 - **Onartu beti:** bigarren planoan dagoela ere erabil dezake aplikazioak.
 - **Baimendu erabiltzen den bitartean soilik:** itxi ondoren, baimena izateari utziko dio.
 - **Galdetu beti:** aplikazioak erabili behar duen bakoitzean.
 - **Ez onartu:** ez du baimenik.



8. irudia. Baimenen kudeatzailea Androiden (geuk egina).

9. irudia. Baimen motak Androiden (geuk egina).



ios

- **Appetan informaziorako sarbidea berrikustea edo aldatzea:** App batek beste app baten informazioa eskuratu nahi duen lehen aldian, erabiltzaileak eskaera bat jasotzen du. Adibidez, mezularitza-app batek kontaktuetarako sarbidea eska dezake, jada app hori bera erabiltzen duten lagunak bilatzeko. Konfiguratzeko, gero, "**Ezarpenak**" atalera jo behar da, "**Pribatutasuna eta segurtasuna**" aukera bilatu eta kategoria bat sakatu (*egutegiak, gogorazpenak...*). Sarbidea eskatu duten appen zerrenda agertuko da. Sarbidea aktibatu edo desaktibatu egin daiteke zerrendako edozein appetarako. "**Appen pribatutasun-txostena**" atalera ere jo daiteke, eta baimenak kontsultatu.

i Gehiago jakiteko

Prozeduretara sartzeko bideak aldatu egin daitezke markaren arabera.

- Support Google. **Appen baimenak Androiden.** (e.digital.org.es/permisos-android)
- Support Apple. **Appen baimenak iOSen.** (e.digital.org.es/permisos-ios)



Gailuaren sistema eragilea eguneratuta izatea

Praktika hori funtsezkoa da Interneteko azarna digitala minimizatzeko. Eguneraketa horietan, segurtasun-zuzenketak egin ohi dira, gailua kalteberatasun eta mehatxu zibernetikoetatik babesteko.

! ADI!


APLIKAZIOEN GAINEKO KONTROL HANDIAGOA

Gainera, eguneraketek, askotan, hobekuntzak egiten dituzte pribatutasunean eta baimenen kudeaketan, eta, horri esker, erabiltzaileak kontrol handiagoa du bere datuetara zer aplikazio sartzan diren jakiteko.



Eguneraketak Androiden egiaztatzea eta deskargatzea

Androideko gailu batek instalatuta duen bertsioa ezagutzeko, "Ezarpenak" menura joan behar da eta zerrendaren amaieran "Telefonoari buruz" aukera bilatu. Konfigurazio horretan daude bai gailuaren datuak, une horretan erabiltzen ari den bertsioa barne (Android 13, adibidean), bai gailuarekin bateragarria den azken bertsio erabilgarria deskargatu eta instalatzeko aukera. Ohikoena da automatikoki deskargatzea eta instalatzea, gailua wifi-sare baten barrutian dagoenean (10. irudia).



10. irudia. Android eguneratzea (geuk egina).



Eguneraketak iOSen egiaztatzea eta deskargatzea

iPhone bat **haririk gabe** eguneratu daiteke bertsio berrienarekin. Lehenik eta behin, iCloud edo ordenagailu bat erabili behar da gailuaren **segurtasun-kopia bat** sortzeko, eguneratu aurretik. Garrantzitsua da smartphonea sare elektrikoarekin eta wifi-sare batekin konektatuta egotea, prozesua errazteko. Bigarrenik, "**Ezarpenak**" atalera sartuko gara, jarraian "**Orokorra**" atalera, eta "**Softwarea eguneratzea**" aukeratuko dugu (11. irudia).



11. irudia. Safariaren historia ezabatzea (Apple)

⚠ ADI!

EGUNERAKETA BAT BAINO GEHIAGO

Eguneraketa bat baino gehiago badago, zein instalatu hautatu eta "**Instalatu orain**" sakatu behar da. "**Deskargatu eta instalatu**" botoia agertzen bada, hura hautatu eta kodea sartu behar da. Azkenik, "**Instalatu orain**" sakatu behar da.

i Gehiago jakiteko

Prozedurera sartzeko bideak aldatu egin daitezke gailuaren markaren arabera. Kasu horretan, markaren euskarri teknikoaren FAQa bilatu behar da Interneten.

- Support Google. **Androiden bertsioa egiaztatzea eta eguneratzea.** (e.digitall.org.es/actualizar-android)
- Support Apple. **iPhone edo iPada eguneratzea.** (e.digitall.org.es/actualizar-ios)



Gehiago jakiteko

Apple Support (dg) Interneten modu pribatua nabigatzea Safari, iPhonean. Apple Support. 2023/10/20an hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/guide/iphone/iphb01fc3c85/ios>

Apple Support (dg) Safariaren historia, cachea eta cookieak ezabatzea iPhone, iPad edo iPod touchean. Apple Support. 2023/10/20an hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/HT201265>

Apple Support (dg) Appen informaziorako sarbidea kontrolatzea iPhonean. Apple Support. 2023/10/23an hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/guide/iphone/iph251e92810/ios>

Apple Support (dg) iPhone edo iPada eguneratzea. Apple Support 2023/10/23an hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/HT204204#:~:text=Ve%20a%20Ajustes%20%3E%20General%20%3E%20Actualizaci%C3%B3n,versi%C3%B3n%20de%20iOS%20a%20iPadOS.>

Apple Support (dg) Appen informaziorako sarbidea kontrolatzea iPhonean. Apple Support 2023/10/23an hartua hemendik: [hemendik: https://support.apple.com/es-es/guide/iphone/iph251e92810/ios](https://support.apple.com/es-es/guide/iphone/iph251e92810/ios)

Google Support (dg) Cachea eta cookieak ezabatzea. Google Support. 2023/10/20an hartua hemendik: <https://support.google.com/accounts/answer/32050?hl=es&co=GENIE.Platform%3DAndroid>

Google Support (dg) Modu pribatua nabiga ezazu. Google Support. 2023/10/20an hartua hemendik: <https://support.google.com/chromebook/answer/95464?hl=es-419&co=GENIE.Platform%3DAndroid>

Google Support (dg) Aldatu aplikazioen baimenak zure Android telefonoan. Google Support. 2023/10/23an hartua hemendik: <https://support.google.com/googleplay/answer/9431959?hl=es>

Google Support (dg) Androiden bertsioa egiaztatzea eta eguneratzea. Google Support. 2023/10/23an hartua hemendik: <https://support.google.com/android/answer/7680439?hl=es>

Latto N. (2020) Zer da nabigatzailearen azterna digitala eta nola saihesta daiteke? Avast. 2023/10/20an hartua hemendik: <https://www.avast.com/es-es/c-what-is-browser-fingerprinting>



Komunikazioa eta
elkarlana

B2 maila 2.6 Identitate digitalaren
kudeaketa

Ordenagailu pertsonaletan aztarna digitala konfiguratzeko





Ordenagailu pertsonaletan azterna digitala konfiguratzeko

Azterna digitalaren garrantzia ordenagailuetan

Gaur egungo testuinguru digitalean, agerian geratu da garrantzitsua dela **norbanakoen pribatutasuna bermatzea** ordenagailu pertsonalak erabiltzen direnean. Informatika eguneroko bizitzan gero eta gehiago sartzen den heinean, funtsezkoa da, etengabe aldatzen ari den ingurune horretan, **informazio pertsonala babesteko neurriak** ulertzea.

Dokumentu honek Windows edo macOS sistema eragilea duen **ordenagailu pertsonal baten pribatutasuna konfiguratzeko** prozedura zehatzak emango ditu, baita azterna digitala modu eraginkorrean minimizatzeke gomendio batzuk ere.



ORDENAGAILU PERTSONALETAN AZTERNA DIGITALA KONFIGURATZEA

Bideo honetan, ordenagailu pertsonal batean ahalik eta azterna digital txikiena utzita nabigatzeko zenbait aholku ematen dira. e.digitall.org.es/A2C26B2V04

⚠ ADI!

AZTERNA DIGITALA

Azterna digitalak adierazten du nola sortzen diren erregistroak pertsonak Internetera konektatutako aplikazioak edo programak erabiltzen dituztenean. Azterna digital horren gainean zenbat eta kontrol handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da datu pertsonalen babesa.

Programen baimenen konfigurazioa

Ordenagailuan **programei emandako baimenak** behar bezala konfiguratzeko oso garrantzitsua da datu pertsonalen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko

Baimenen konfigurazio desegokiak kalteberatasunak eta segurtasun-arriskuak eragin ditzake, eta aukera ematen du programek datu kalteberak biltzeko edo nahi ez diren ekintzak egiteko.

👁 OHARRA

ZER DAKAR PROGRAMEN BAIMENAK AKTIBATZEAK?

Baimen horiek zehazten dute zer ekintza egin ditzaketen programek edo aplikazioek, hala nola **fitxategietara, kameretara edo mikrofonoetara sartzea, eta ea Internetera konektatu daitezkeen.**



Windows 11n programen baimenak konfiguratzeko

Windows 11 ingurunean, **Microsoft Store**ren aplikazio, programa eta joko jakin batzuk gailu bateko hardware edo software gaitasun espezifikoak aprobetxatzeko diseinatu dira. Adibidez, argazki-aplikazio batek kamerarako sarbidea izan beharko luke. Aplikazio edo programa horien baimenak Windows 11ko pribatutasun-orriaren bidez kudeatzen dira. Konfiguratzeko, honako bide hau jarraitu behar da (1. irudia):



1. irudia. Pribatutasun-ekarpenetarako ibilbidea Windowsen (geuk egina).

Bertan, "**Kontaktuak**" bezalako aplikazio-baimen bat aukera daiteke, eta funtzio espezifiko hori erabiltzeko baimenduko diren aplikazioak hauta daitezke (2. irudia).



2. irudia. Pribatutasun-doikuntzak Windowseko "Kontaktuak" baimenean (geuk egina).

OHARRA

PENTSATU INSTALATU AURRETIK

Aplikazio baten baimen espezifikoak ezagutzeko, aplikazio horren produktu-orrria kontsulta daiteke Microsoft Storen edo online. Aplikazio batek funtzio jakin batzuk erabiltzea nahi ez baduzu, beti dago ez instalatzeko aukera.



Hauek dira Windowsek ordenagailuan instalatzen diren programei eskain diezazkiekeen baimenak (3. irudia):

WINDOWSEKO BAIMENAK


Permisos de Windows					
	Ubicación		Micrófono		Activación por voz
	Cámara		Notificaciones		Información de cuenta
	Contactos		Calendario		Llamadas
	Historial de llamadas		Correo electrónico		Tareas
	Mensajería		Señales de radio		Otros dispositivos
	Diagnósticos de la app		Descarga automática		Documentos
	Carpeta de Descargas		Biblioteca de música		Imágenes
	Videos		Sistema de archivos		Capturas de pantalla y aplicaciones

3. irudia. Windowseko baimenak programetarako eta aplikazioetarako (geuk egina, Windows 11ren konfigurazioan oinarrituta).

macOSen programen baimenak konfiguratzeko

Mac batean, informazioa online eta sareetan nola partekatzen den kontrola dezakezu, bai eta enkriptatutako datuak babestu ere, "**Pribatutasuna eta Segurtasuna**" konfigurazioaren bidez.

Hori egiteko, urrats erraz batzuk jarraitu besterik ez duzu egin behar. Lehenik, egin klik Appleren ikonoan, pantailaren goialdeko ezkerreko ertzean, eta hautatu "**Sistemaren lehenetsunak**". Gero, leihoan agertzen den menuan, bilatu eta hautatu "**Pribatutasuna eta segurtasuna**" (4. irudia). Agian beherantz joan behar da hura aurkitzeko.



4. irudia. Pribatutasun-ekarpenetarako ibilbidea macOSen (geuk egina).

Hauek dira macOSek ordenagailuan instalatzen diren programei eskaini diezazkiekeen baimenak (5. irudia):

macOS-eko BAIMENAK

Permisos de macOS				
Localización	Contactos	Calendarios	Recordatorios	Fotos
Bluetooth	Micrófono	Cámara	Accesibilidad	<u>HomeKit</u>
Reconocimiento de voz	Multimedia y Apple Music	Archivos y carpetas	Acceso total al disco	Modo Aislamiento
Permitir conexión y accesorios	Monitorización de entrada	Grabación de pantalla	Llaves de acceso de navegadores	Automatización
Gestión de apps	Aviso de contenido sensible	Análisis de mejoras	Publicidad de Apple	Permitir a las aplicaciones descargas
Actividad física	<u>FileVault</u>	Concentración	Extensiones	Perfiles

5. irudia. macOSeko baimenak programetarako eta aplikazioetarako (geuk egina).

i Gehiago jakiteko

Support Microsoft. *Aplikazioen baimenak Windows 11n.* (e.digitall.org.es/permisos-windows)

Support Apple. *Macen pribatutasun- eta segurtasun-doikuntzak aldatzea.* (e.digitall.org.es/permisos-mac)



Sistema eragilea eguneratuta izatea

Ordenagailu pertsonal baten sistema eragilea eguneratzea oso prozedura garrantzitsua da behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko.

Sistema eragilea eguneratuta izatea funtsezkoa da datuak babesteko eta ingurune informatikoan errendimendu ezin hobea izateko.

⚠ ADI!

BERTSIO BERRIAK = SEGURTASUN HANDIAGOA

Garatzaileek egindako bertsio berriek eta hobekuntzek ezaugarri aurreratueterako sarbidea eskaintzen dute eta balizko segurtasun-kalteberatasunak konpontzen dituzte.

Nola eguneratu Windows 11

Windowseko gailuek funtzio berriak eta hobekuntzak jaso ditzakete eguneraketen bidez. Eguneraketa horiek amaitzeko, **berrabiarazteak programa daitezke**. Windowsen konfigurazioan, **azken eguneraketak automatikoki zein eskuz lor daitezke**. Eskuz eginez gero, urrats hauek egin behar dira (6. irudia):



6. irudia. Windows Updateetarako ibilbidea Windowsen (geuk egina).

Windows Updateren menuaren barruan zaudela, egin klik "**Bilatu eguneraketak**" aukeran (7. irudia). Eguneraketak egiteke badaude, deskarga hasiko da.



7. irudia. Windows Update (geuk egina).




Menu horretan beste aukera batzuk daude, hala nola "**Eten eguneraketak**", lehenetsitako eguneraketa automatikoak geldiarazteko, edo "**Eguneraketaren historia**", ordenagailuan instalatutako Windowsen azken bertsioak zeintzuk diren jakiteko (7. irudia).

Nola eguneratu macOS

"**Softwarea eguneratzea**" funtzioa baliagarria izango da Maceko edozein gailu, bere aplikazioekin batera, **azken hobekuntzekin eguneratuta** mantentzeko. Hasi aurretik, komeni da Macaren segurtasun-kopia bat egitea.

Eguneraketa berriak eskuragarri daudela egiaztatzeko, urrats hauek egin behar dira (8. irudia):



8. irudia. Softwarea eguneratzeko ibilbidea macOSen (geuk egina).

- 1 | Pantailaren izkinan, aukeratu Appleko menua eta hautatu "**Sistemaren ezarpenak**".
- 2 | Hautatu "**Orokorra**" alboko barran eta gero egin klik "**Softwarea eguneratzea**" aukeran.

macOSen bertsio berriak edo aplikazioetarako eguneraketarik detektatuz gero, deskargatu eta instalatu ahal izango da, "**Eguneratu**" botoian klik eginda (9. irudia). Instalazio-prozesuan zehar, baliteke Maca behin baino gehiagotan berrabiaraztea eta aurrerapen-barra bat edo pantaila zuri bat erakustea.



9. irudia. Softwarea macOSen eguneratzea (geuk egina).



Gehiago jakiteko

Support Apple. **macOS eguneratzea Macen.** (e.digitall.org.es/actualizar-macos)

Support Microsoft. **Windowsen eguneraketa berriena lortzea.** (e.digitall.org.es/actualizar-windows)

SPAMaren kudeaketa: Bigarren mailako posta elektronikoko kontua

SPAMa **nahi ez diren edo eskatu ez diren mezuez** osatuta dago. Ez da gogaikarria soilik, **datu pertsonalak** arriskuan jartzen eta online-aztarna digitala ugaritzen ere lagun dezake eta.

SPAMa jasotzeko aukera handiagoa duen bigarren mailako posta elektronikoko kontu bat sortzea jardunbide onuragarritzat jotzen da nahi ez diren mezuek eta harpidetzak kudeatzeko.

Estrategia horrek eskaintzen dituen abantailak lagungarriak dira zure posta-helbide nagusia babesteko eta sarrera-erretilura iristen diren eskatu gabeko mezuen bolumena murrizteko.

SPAMerako posta-kontu eksklusibo bat erabilita, kontrol handiagoa egin dezakezu jasotzen dituzun mezuen gainean. **Iragazki eta arau espezifikoak** aplikatu daitezke mezuek automatikoki aldeztu aurretik zehaztutako karpetetara bideratzeko; horrek erraztu egiten du harpidetza jakin batzuekin lotutako **mezuen antolaketa eta bilaketa**.

ADI!

MEZU GARRANTZITSUAK EZ GALTZEA

Nahi ez dituzun mezuek maneiatzeko kontu bat bereizita izanda, zure helbide pertsonala edo lanekoa gorde dezakezu, beharrezkoak ez diren distrakzioek eta mezuek hura saturatzea saihestuta.

OHARRA

AZTARNA DIGITALA MURRIZTEN

Praktika hori lagungarria da, halaber, Interneteko posta-helbide nagusiaren esposizioa murrizteko. Norbaitek bere helbide elektronikoa partekatzen duen bakoitzean, dela webguneetan erregistratzen denean, dela inkestetan parte hartzen duenean online, handitu egiten da *spammerrek* helbide hori lortzeko arriskua.

Gehiago jakiteko

Fernandez-Sanguino J. **Spam, Spam, Spam: nola saihestu eta borrokatu.** (e.digitall.org.es/spam)



VPN bat erabiltzea

VPN edo **sare pribatu birtual** batek beste segurtasun-geruza bat eskaintzen du Internetarako konexioan, erabiltzailearen datuak eta pribatutasuna babesteko. Teknologia hori funtsezkoa da zure azterna digitala babesteko, kokapena ezkutatu eta online-komunikazioak zifratzen ditu eta.

Windowsen VPN-konexio bat konfiguratzeko

VPN bat konfiguratzeko, lehendabizi sortu egin behar da. Norberaren kontura edo enpresako VPN-kontu baten bidez egin daiteke. VPN pertsonal baterako, Microsoft Storen aplikaziorik dagoen egiaztatu behar da eta zerbitzuaren webgunea kontsultatu konfiguraziorako.

Beharrezkoa den informazioa bildu ondoren, urrats hauek egin behar dira:

- 1 | Joan honetara: Konfigurazioa > Sarea eta Internet > VPN > "Erantsi VPN".
- 2 | Hautatu Windows (integratua) eta bete zure VPNaren datuak.
- 3 | Egin klik "Gorde" aukeran.

macOSen VPN-konexio bat konfiguratzeko

Mac batean VPN bat eskuz konfiguratzeko, urrats hauek egin behar dira:

- 1 | Sartu Appleko menura > "Sistemaren lehentasunak" > "Sarea".
- 2 | Sareko leihoan, "Ekintza" > "Erantsi VPN-konfigurazioa" eta hautatu konfiguratu nahi den VPN-konexio mota.
- 3 | Txertatu VPN-zerbitzu berrirako izena, "Erakutsitako izena" eremuan.
- 4 | Sartu VPN-zerbitzu berrirako eskatutako doikuntzak. Doikuntza horiek aldatu egin daitezke VPN motaren arabera, eta zerbitzariaren helbidea, kontuaren izena, pasahitza eta autentifikazio-metodoa barne har ditzakete.
- 5 | Azkenik, egin klik "Sortu" aukeran.

⚠ ADI!

NOLA KONEKTATU VPN-A?

VPNa konektatzeko, nahi den konexioa hautatu behar da ataza-barratik edo Windowsen Konfigurazio-orritik. Jakingo da konektatuta dagoela VPN-konfigurazioan "Konektatuta" ikusten denean, edo ezkutu urdin bat, ataza-barran. VPN bat wifi bidez konektatzen denean, wifi-ikonoak VPN-ekzutu urdin txiki bat erakutsiko du.

👁 OHARRA

KONFIGURAZIO AURRERATUA

Baliteke VPNaren alderdi teknikoagoak konfiguratu behar izatea; horretarako, "Konfigurazioa" menu zabalgarria sartu ahal izango gara sortze-prozesuan zehar, DNSa, proxiak edo TCP/IPa aldatzeko, beste alderdi teknikoago batzuen artean.

📄 Gehiago jakiteko

Support Apple. **Macen VPN-konexio bat konfiguratzeko.** (e.digitall.org.es/vpn-mac)

Support Microsoft. **Windowsen VPN batera konektatzeko.** (e.digitall.org.es/vpn-windows)



Gehiago jakiteko

Apple Support (dg) Macen pribatutasun- eta segurtasun-doikuntzak aldatzea. Apple Support. 2023/10/25ean hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/guide/mac-help/mchl211c911f/14.0/mac/14.0>

Apple Support (dg) macOS eguneratzea Macen. Apple Support. 2023/10/25ean hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/HT201541#:~:text=Utilizar%20Actualizaci%C3%B3n%20de%20Software&text=En%20el%20men%C3%BA%20Apple%20%E3%BF,de%20software%20a%20la%20derecha.>

Apple Support (dg) Macen VPN-konexio bat konfiguratzeko. Apple Support. 2023/10/25ean hartua hemendik: <https://support.apple.com/es-es/guide/mac-help/mchlp2963/mac>

Fernandez-Sanguino J. (2004) *Spam, Spam, Spam: nola saihestu eta borrokatu*. Germinus XXI. 2023/10/25ean hartua hemendik: https://aui.es/IMG/pdf/276_17-12-2004.pdf

Microsoft Support (dg) Aplikazioen baimenak. Microsoft Support. 2023/10/25ean hartua hemendik: https://support.microsoft.com/es-es/windows/permisos-de-aplicaciones-aea98a7c-b61a-1930-6ed0-47f0ed2ee15c#ID0EBD=Windows_11

Microsoft Support (dg) Windowsen eguneraketa berriena lortzea. Microsoft Support. 2023/10/25ean hartua hemendik: https://support.microsoft.com/es-es/windows/obtener-la-actualizaci%C3%B3n-m%C3%A1s-reciente-de-windows-7d20e88c-0568-483a-37bc-c3885390d212#WindowsVersion=Windows_11

Microsoft Support (dg) Windowsen VPN batera konektatzea. Microsoft Support. 2023/10/25ean hartua hemendik: <https://support.microsoft.com/es-es/windows/conectarse-a-una-vpn-en-windows-3d29aeb1-f497-f6b7-7633-115722c1009c>



DigitAll

Gaitasun
digitaletan
prestakuntza



Coordinación General

Universidad de Castilla-La Mancha
Carlos González Morcillo
Francisco Parreño Torres

Coordinadores de área

Área 1. Búsqueda y gestión de información y datos

Universidad de Zaragoza
Francisco Javier Fabra Caro

Área 2. Comunicación y colaboración

Universidad de Sevilla
Francisco Javier Fabra Caro
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
José Mariano González Romano
Juan Ramón Lacalle Remigio
Julio Cabero Almenara
María Ángeles Borrueco Rosa

Área 3. Creación de contenidos digitales

Universidad de Castilla-La Mancha
David Vallejo Fernández
Javier Alonso Albusac Jiménez
José Jesús Castro Sánchez

Área 4. Seguridad

Universidade da Coruña
Ana M. Peña Cabanas
José Antonio García Naya
Manuel García Torre

Área 5. Resolución de problemas

UNED
Jesús González Boticario

Coordinadores de nivel

Nivel A1

Universidad de Zaragoza
Ana Lucía Esteban Sánchez
Francisco Javier Fabra Caro

Nivel A2

Universidad de Córdoba
Juan Antonio Romero del Castillo
Sebastián Rubio García

Nivel B1

Universidad de Sevilla
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
José Mariano González Romano
Juan Ramón Lacalle Remigio
Montserrat Argandoña Bertran

Nivel B2

Universidad de Castilla-La Mancha
María del Carmen Carrión Espinosa
Rafael Casado González
Víctor Manuel Ruiz Penichet

Nivel C1

UNED
Antonio Galisteo del Valle

Nivel C2

UNED
Antonio Galisteo del Valle

Maquetación

Universidad de Salamanca
Fernando De la Prieta Pintado
Pilar Vega Pérez
Sara Alejandra Labrador Martín

Creadores de contenido

Área 1. Búsqueda y gestión de información y datos

1.1 Navegar, buscar y filtrar datos, información y contenidos digitales

Universidad de Huelva

Ana Duarte Hueros (coord.)
Arantxa Vizcaíno Verdú
Carmen González Castillo
Dieter R. Fuentes Cancell
Elisabetta Brandi
José Antonio Alfonso Sánchez
José Ignacio Aguaded
Mónica Bonilla del Río
Odriel Estrada Molina
Tomás de J. Mateo Sanguino (coord.)

1.2 Evaluar datos, información y contenidos digitales

Universidad de Zaragoza

Ana Belén Martínez Martínez
Ana María López Torres
Francisco Javier Fabra Caro
José Antonio Simón Lázaro
Laura Bordonaba Plou
María Sol Arqued Ribes
Raquel Trillo Lado

1.3 Gestión de datos, información y contenidos digitales

Universidad de Zaragoza

Ana Belén Martínez Martínez
Francisco Javier Fabra Caro
Gregorio de Miguel Casado
Sergio Ilarri Artigas

Área 2. Comunicación y colaboración

2.1 Interactuar a través de tecnología digitales

Iseazy

2.2 Compartir a través de tecnologías digitales

Universidad de Sevilla

Alién García Hernández
Daniel Agüera García
Jonatan Castaño Muñoz
José Candón Mena
José Luis Guisado Lizar

2.3 Participación ciudadana a través de las tecnologías digitales

Universidad de Sevilla

Ana Mancera Rueda
Félix Biscarri Triviño
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
Jorge Ruiz Morales
José Manuel Sánchez García
Juan Pablo Mora Gutiérrez
Manuel Ortigueira Sánchez
Raúl Gómez Bizcocho

2.4 Colaboración a través de las tecnologías digitales

Universidad de Sevilla

Belén Vega Márquez
David Vila Viñas
Francisco de Asís Gómez Rodríguez
Julio Barroso Osuna
María Puig Gutiérrez
Miguel Ángel Olivero González
Óscar Manuel Gallego Pérez
Paula Marcelo Martínez

2.5 Comportamiento en la red

Universidad de Sevilla

Ana Mancera Rueda
Eva Mateos Núñez
Juan Pablo Mora Gutiérrez
Óscar Manuel Gallego Pérez

2.6 Gestión de la identidad digital

Iseazy

Área 3. Creación de contenidos digitales

3.1 Desarrollo de contenidos

Universidad de Castilla-La Mancha

Carlos Alberto Castillo Sarmiento
Diego Cordero Contreras
Inmaculada Ballesteros Yáñez
José Ramón Rodríguez Rodríguez
Rubén Grande Muñoz

3.2 Integración y reelaboración de contenido digital

Universidad de Castilla-La Mancha

José Ángel Martín Baos
Julio Alberto López Gómez
Ricardo García Ródenas

3.3 Derechos de autor (copyright) y licencias de propiedad intelectual

Universidad de Castilla-La Mancha

Gabriela Raquel Gallicchio Platino
Gerardo Alain Marquet García

3.4 Programación

Universidad de Castilla-La Mancha

Carmen Lacave Roderó
David Vallejo Fernández
Javier Alonso Albusac Jiménez
Jesús Serrano Guerrero
Santiago Sánchez Sobrino
Vanesa Herrera Tirado

Área 4. Seguridad

4.1 Protección de dispositivos

Universidade da Coruña

Antonio Daniel López Rivas
José Manuel Vázquez Naya
Martíño Rivera Dourado
Rubén Pérez Jove

4.2 Protección de datos personales y privacidad

Universidad de Córdoba

Aida Gema de Haro García
Ezequiel Herruzo Gómez
Francisco José Madrid Cuevas
José Manuel Palomares Muñoz
Juan Antonio Romero del Castillo
Manuel Izquierdo Carrasco

4.3 Protección de la salud y del bienestar

Universidade da Coruña

Javier Pereira Loureiro
Laura Nieto Riveiro
Laura Rodríguez Gesto
Manuel Lagos Rodríguez
María Betania Groba González
María del Carmen Miranda Duro
Nereida María Canosa Domínguez
Patricia Concheiro Moscoso
Thais Pousada García

4.4 Protección medioambiental

Universidad de Córdoba

Alberto Membrillo del Pozo
Alicia Jurado López
Luis Sánchez Vázquez
María Victoria Gil Cerezo

Área 5. Resolución de problemas

5.1 Resolución de problemas técnicos

Iseazy

5.2 Identificación de necesidades y respuestas tecnológicas

Iseazy

5.3 Uso creativo de la tecnología digital

Iseazy

5.4 Identificar lagunas en las competencias digitales

Iseazy



El material del proyecto DigitAll se distribuye bajo licencia CC BY-NC-SA 4.0. Puede obtener los detalles de la licencia completa en: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es>